

Goienkaria

2008ko maiatzaren 23a > Egubakoitza > VIII. urtea > 333. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Elikadurak zeresan handia du ikusten ditugun gaitz kronikoetan"

Rosa Azkue
Medikua > 09



G2a

Jabier Muguruzak
Arrasaten joko du bihar > 43

ARRASATE
Udalaren jarduerak aurrera segitzen duela dio gobernua > 18

BERGARA
Udal Artxiboak webgunea egin du, Euskal Herriko lehena > 25

ARETXABALETA
Ekainaren 6an inauguratuko dute Arkupe kultura etxea > 31



BELARRA MOZTEN Asteon, azken aldiz moztu du belarra Azkoagainen Alex Martinek; irailetik aurrera belar artifiziala izango dute Oñatin.

MIREIA BIKUÑA

KIROLA > OÑATIKO FUTBOL ZELAIA

Belar naturaleko azken partidua Azkoagainen

DOAN Aloñak eta Touringek bihar jokatu duten lehiarako sarrera doanekoa izango da, 16:30ean

LANAK Azkoagain birmoldatzeko lanak datorren astean hasi eta abuzturako bukatuko dituzte > 02-03

GERTAKARIAK > ERASOA

Sexu erasoak salatu dute Bergaran

Bestalde, delitu mota bera leporatuta lagun bat atxilotu dute > 06

KIROLA > HERRI KROSA

Eliteko lasterkariak bihar Oñatin

VI. Nazioarteko Herri Lasterketara datoz Cuevas eta Yator > 42

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Saikatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

Embalán 3
Enbalaje Sistemak

ITSAS ENBALAJE eta AROTZERIA INDUSTRIALA, PALETAK, KAKAK eta ENBALAJERAKO MATERIALEN HORNIKUNTZA: FILMAK, ZINTA ITSASGARRIAK, PLASTIKOZKO PALETAK, eta abar...

Tel.: 943 76 9972

Aprobetxatu aukera!
Toyota Corolla Verso diesela 2.2 136 ZP

Pintura metalizatua
EasyFlat 7 jarleku toledura sistema
Egonkortasun kontrola + 9 aire-poltsa
Bi zonatara zuzendutako aire-girogailu automatikoa

6 auto stock-ean Prezioa: 22.575 €

TOYOTA
www.euskoauto.toyota.es

EuskoAuto
Olabarrena 2/g BERGARA
943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

KIROLA > BELAR ARTIFIZIALA JARRIKO DUTE

Aloña-Touring: belar naturaleko azken norgehiagoka Azkoagainen

BIHAR Preferenteko azken jardunaldiko partidua 16:30ean jokatu da, eta bukaeran jokalariekin argazkiak egiteko aukera izango dute zaleek

BERRIKUNTZAK Belar artifiziala, argi-posteak, bederatzi metroko sarea, eserleku eta ate berriak jarriko dituzte, besteak beste

ABUZTURAKO Zelaiko birmoldaketa lanak datorren astean hasiko dituzte, eta abuztuaren 31rako bukatuta egon beharko dute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

2008ko maiatzaren 24a izango da Azkoagain futbol zelaiaren historian gorri kolorearekin jarri beharreko beste data bat. Hain zuzen, 1949ko martxoaren 20a (futbol zelaia bedeinkatu zen eguna), 1973ko azaroaren 1a (Azkoagain berriro inauguratu zen eguna) eta 1994ko maiatza (Aloña hirugarren mailara igo zen) gorri kolorekoak diren moduan.

Izan ere, bihar, 16:30ean jokatuko dute Oñatiko Azkoagain futbol zelaiko belar naturalaren gainean azken partidua: Aloñak eta Touringek neurtuko dituzte indarrak. "Festa eguna izango da guztiondako; horregatik, sarrera doanekoa izango da. Oñatiar guztiak daude gonbidatuta", esan digu zuzendaritza batzordeko kide Jose Luis Agirrek. Gainera, lehia bukatu ondoren, jokalariekin argazkiak egiteko aukera izango dute zale gazteek. Birmoldaketa lanak hurrengo astean hasiko direla kontuan hartuta, belar zati bat gorde gura duenak horretarako aukera izango du. "Lagunei eta zaleei esan diet zela zati bat eroan gura badute, aukera izango dutela horretarako", azaldu digu Agirrek.

LANAK, HURRENGO ASTETIK

Astelehen edo martitzenean hasiko dituzte Azkoagain zelaia birmoldatzeko lanak, eta, Udalak jarritako epea betetzen bada, abuztuaren 31rako amaituta egon beharko dute.

Egingo duten lehen gauza da sarrera nagusitik eskuinetara dagoen horma botatzea, toki horretan aldagelak jarriko dituzte-eta. "Guztira sei aldagela jarriko dituzte zelaiaren sarreran; hortaz, aldagela zaharrak ez ditugu erabiliko. Baina kanpotik ez ezik, barrutik ere hainbat lan egingo dituzte; besteak beste, estalita dagoen harmaila luzeagoa jarriko dute, eserleku berriak metakrilatozkoak jarri dituzte, lau ate berri jarriko dituzte zabalera zortzinako futboleko jokatze, eta egun dauden ateak aldatuko dituzte", esan digu Jose Luis Agirrek.

Azkoagainek ez du argi artifizialik, eta irailetik aurrera hartuko dituen entrenamendu eta partiduetarako ezinbestekoak diren argi-posteak ere jarriko dituzte. Gainera, futbol zelaiaren bueltan bederatzi metroko sarea jarriko dute babesgarri moduan. Baina, duda barik, aldaketa esan-

Belar naturalean baloiak ematen duen boterearen antzekoa lortzeko asmoz, belar artifizialari kautxua botatzen diote gaineratik, eta beltza edo berdea izan daiteke

Irailetik, futbol ekintza guztiak Azkoagainen egingo dituzte; besteak beste, jokatuko dute Aloñako taldeek, eta egingo dituzte futbol eskolak, eskola kirolak eta herriko futbol txapelketak

guratsuen belar artifiziala jartzea izango da. 1949. urteko martxoaren 20an belar naturaleko zelaia inauguratu zenetik erabili den belarra kendu, eta artifiziala jarriko dute: "Gure asmoa da Zestoako futbol zelaiaren dagoenaren antzekoa jartzea, edo bestela, Mojategikoaren antzekoa". Belar artifizialeko zelaiek kautxua dute gaineratik, eta hori erabiltzen da belar naturalean baloiak egiten duen boterearen antzekoa lortzeko. "Arrasaten eta Zestoan kautxu beltza jarri dute, baina badakigu berdea ere badagoela", esan digu Azkoagain futbol zelaia zaintzen duen Alex Martinek.

BALOIA MENDERATZEA, ZAILAGOA

Hurrengo astean hasiko diren berrikuntza lanekin, Azkoagain egun duen itxura asko aldatuko da. Baina aldaketak sufrituko dituztenak jokalariek izango dira: "Aspalditik jokatzen ditugu ligako hainbat partidu belar artifizialeko zelaietan, baina arraro egingo zaigu Azkoagainen jokatzea", esan digu Aloñako jokalaria Iker Olalde. Gipuzkoan belar naturaleko 18 zela daude oraindik (ikus ondoko taula); eta, irailetik aurrera ibarre-



1967-68 denboraldiko Ilintxaren aurkako norgehiagoka



1973an, Azkoagain berriro inauguratu zutenean, pa...

an egongo den bakarria Bergarako Agorrosin izango da. Bestalde, Ipintza futbol zelaiaren belar artifiziala jartzeko lanak hasiko dituzte laster.

Preferente mailako talde gehienek jokatzen dute belar artifizialarekin. "Ohitura kontua izango da. Baina nire ustez, belar artifizialean baloia menderatzea zailagoa da, eta baloia astiroago

Arizmendi Ikastolaren LANBIDE HEZIKETA

BIHARKO profesionalak



- >> goi mailako zikloak
- >> Eraikuntzako proiektuen garapena eta aplikazioa
- >> Obra eta planen burutzapena

GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA
INGURUMEN KIMIKA

- >> endi mailako zikloak
- ERIZAINZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK
- ARRETA SOZIOSANITARIOA

AURREMATRIKULA EKAINAREN 2tik 13ra // 902 11 20 25
lanbide@arizmendi.ikastola.net // www.arizmendi.ikastola.net/lanbideArizmendi
ikastola



Jose Antonio Aiestui jaurtiketa egiten, eta atzerago, Jose Mari Ugarte, zain. Garai haietan, Azkoagain lepo betetzen zen.



Partidua jokatu zuten jokalariek.



1949ko martxoaren 20an bedeinkatu zuen futbol zelaia On Eleuterio Iñarrak.



1961eko abuztuan aurrendenboraldiko entrenamendua egiten. ARGAZKIAK: ALOÑA MENDI

joaten da", azaldu digu taldeko kapitain Julen Barrenak. Jokatzeko erabiltzen dituzten botak ez dira asko aldatuko: "Belar artifizialean erabiltzen direnak belarean ere erabil daitezke. Gainera, takoak plastikozkoak izaten dira", dio Iker Olalde. Erreportajea egiteko berba egin dugun pertsona guztiek azpimarratu digute, egingo diren aldaketekin

Azkoagainek duen xarma galdu egingo duela. "Guztiek esan dute Azkoagain zelai berezia dela. Dena den, espero dut zaleek ez digutela hutsik egingo", dio Barrenak.

TALDE GEHIEGI

Irailtik aurrera herriko futbol ekintza guztiak Azkoagainen egingo dituzte. Besteak beste, fut-

bol saileko hamar taldeen entrenamendu eta partiduak, futbol eskolako eta kirol eskolako neska-mutikoen jardunak eta herriko futbol txapelketako partiduak jokatu dituzte. Horrek guztiak buruhauste bat baino gehiago ekarriko dio Jose Luis Agirrerri, entrenamendu eta partiduetako ordutegiak egiterakoan, "baina moldatuko gara".

Belar naturaleko zelaiak Gipuzkoan

HERRIA	FUTBOL ZELAIA	TALDEA
ASTIGARRAGA	Zarkumendegi	Mundarro
AZKOITIA	Txerloia	Anaitasuna
AZPEITIA	Garmendipe	Lagun onak
BEASAIN	Loinaz	Beasain
BERA	Matzada	Bera
BERGARA	Agorrosin	Bergara
BILLABONA	Arratzain	Billabona
DONOSTIA	Zubieta	Reala
DONOSTIA	Anoeta	Reala
EIBAR	Ipuruia	Eibar
HONDARRIBIA	Ondartza	Hondarribia
IRUN	Gal	Real Union
MUTRIKU	San Miguel	Mutriku
OIARTZUN	Ugaldetxo	Oiartzun
ONDARROA	Zaldupe	Aurrera
SORALUZE	Ezozia	Soraluze
TOLOSA	Berazubi	Tolosa
ZARAUZ	Asti	Zarauz

ITURRIA: GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA. www.fgf-gff.org

Alex Martin > Zaintzailea

"Azkoagaineko belarra Gipuzkoako onenatarikoa izan da, betidanik"

M.B. > OÑATI

1992. urtean hasi zen Alex Martin Azkoagaineko belarra zaintzen. Asteon egin ditu azken zainketa lanak bertan. Irailtik aurrera belar artifizialarekin egingo du lan. Bien arteko ezberdintasunei buruz egin digu berba.

Urte asko dira Azkoagaineko zaintza lanak egiten dituzula.

Bai, zehatz-mehatz 1992ko irailan hasi nintzen. Baina irailtik aurrera lanak aldatu beharko ditut.

Ze ezberdintasun daude belar naturala eta artifiziala zaintzeko lanean?

Lan ezberdinak dira. Orain arte, astero, belarra zapaltzeko makina pasatzen nuen, jeneralean, astelehenean, eta partidua jokatu aurreko egunean belarra mozten nuen.

Belar artifizialarekin beste lan batzuk egin beharko ditut, besteak beste zelaia ureztatu eta arrastelua (rastrilloa) pasatu.

Bestalde, belar naturala ongarritu egin behar da. Guk 40 eguneko epean ongarritzen genuen. Gainera, ekaineko lehenengo astean zelaia ereiten genuen. Horregatik guztiatik, Azkoagaineko zelaia Gipuzkoako onenatarikoa izan da betidanik. Kanpoko taldeetako jokalariek eta ordez-



MIREIA BIKUÑA


kariet beti esan digute futbol zelai ederra genuela, eta ondo zainduta-koa, gainera.

Irailtik aurrera ze lan egingo dituzu Azkoagainen?

Alde batetik, Ibarra futbol zelai-ko lanak utziko ditut, eta ordu guztiak Azkoagainen emango ditut. Besteak beste, aldagelak garbitu, belar artifiziala zaindu eta taberna txukundu.

Pena hartuko duzu belarra kentzen dutenean?

Pena hartuko dut, urte hauetan mimo handiz zaindu dudalako; baina aldaketa herriko futbolaren onerako izango dela uste dut.



Mankomunitateko ordezkariak eguaztanean egin zuten bisita; bigarren solairuan, teilatuan, lorategia ipini dute usain-belarrekin.

IRATI AGIRREAZALDEGI

HEZKUNTZA

Lanuzteak egin dituzte hainbat ikastolatan

LAB eta ELA sindikatuek deituta egin zuten greba martitzenean

GOIENKARIA > BERGARA

Ikastoletako sektoreko eta ekimen sozialetako ikastetxe batzuetan egin zituzten lanuzteak martitzenean. ELA eta LAB sindikatuek deituta, langileen lan baldintzak hobetzea lortzeko Eusko Jaurlaritzari finantzazio akordio berria eskatzea zen lanuztearen helburua. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egin zuten lanuzte deialdia.

Sindikatu bi horiek diote aldaketa hori gertatu ostean bakarrik egin ahal izango zaiela aurre langileen oraingo eta etorkizuneko beharrei. Negoziazio kolektiboaren bidea aldarrikatzen dute; gainera, diote gaur egungo finantzazio ereduarekin ezin zaiela dauden beharrei aurre egin. Itunpeko ikastetxeetako langileen eskakizunen artean soldaten parekatzea dago. Bai irakasleek eta baita zerbitzuetako eta administraziozko langileek ere hezkuntza sare publikoko langileek adina irabaztea eskatzen dute.

DEIALDIAREKIN BAT EGIN

Bergarako Aranzadi ikastolak eta Oñatiko Txantxiku ikastolak egin zuten bat deialdiarekin. Hala, martitzen arratsaldean ez zuten eskolarik ezta zaintza zerbitzurik ere eskaini.

Bestalde, Bergarako Mariaren Lagundia ikastetxean ez zuten deialdiarekin bat egin eta normaltasunez eman zituzten eskolak. Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean eta Arrasateko Arizmendi ikastolan egindako bozketeetan ezezkoa atera zen; horrenbestez, ez zuten deialdiarekin bat egin.

MANKOMUNITATEA > ERAIKIN BERRIRA BISITA

Mankomunitateko zerbitzu guztiak, eraikin bakarrean

Egoitzan daude Mankomunitatea, Enpresa Ekintzetarako Zentroa eta Lanbide Hastapena

Eraikinean bulegoak, tailerrak, batzar gelak eta ikasgelak bateratu dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateko gobernu batzordearen ohiko bilkuraren ostean, Mankomunitatearen egoitza berria izango deneko lanak ikuskatzeko bisita egin zuten kideek.

Nafarroa etorbideko egoitza berriak, beheko solairuaz gain, beste bi izango ditu. Beheko solairu horretan hasi zuten bisita, Suradesako gerente Luis Laskurain gidari zutela. Enpresa Ekintzetarako Zentroko zortzi bulego eta tailer ikusi zituzten lehenengo. Mankomunitatearen Garapen Ekonomikorako Agentzia ere egongo da solairu horretan, eta horren barruan, turismo saila eta enplegu arloa. Suradesa

agentziak ere han izango du tokia. Bestalde, aztertzen dihardute kontsumitzaileendako bulegoa ere han ipini edo ez.

Lehenengo solairuan, idazkaritza, Mankomunitateko artxiboa, lehendakariaren bulegoa, ingurumen saila eta zerbitzu orokorretarako gunea egongo dira; tartean, euskara zerbitzua. Lanbide Hastapenetako eskolako tailerrak eta ikasgelak ere solairu horretan kokatu dituzte.

Egoitzaren bigarren solairuan batzar gelak egongo dira, eta teilatuan lorategia ipini dute, usain-belarrekin.

Eraikin argitsua da eta espazio zabalak ditu; lantegi zahar bat, egungo erara moldatua.

EROSOA HERRITARRENDAKO ERE

Pedro Lasagabaster Mankomunitateko presidenteordeari ere hala iruditu zaio: "Eraikin oso polita eta handia da, eroso ibiliko dira hemendik aurrera langileak. Mantendu da eraikin zaharraren egitura, baina betiere teknologia modernoak sartuta. Hala ere, ingurumen irizpide batzuk sartzea falta da eta aztertzen dihardugu eguzki plakak sartzeko aukera, besteak beste".

Egoitza berria irekitzea herritarrendako ere onuragarria izango da, Lasagabasterren esanetan: "Zentralizatu egingo dira zerbitzu guztiak, eta, herritarrek zuzenean etorriko direnez, euredako ere erosoagoa izango da".

ATE IREKIKO JARDUNALDIAK

ARRASATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2008-2009

EGUNA	ORDUA	LEKUA	TITULUEN INGURUKO INFORMAZIOA
maiatzak 24 (larunbata)	11:00	5001 Gela	<ul style="list-style-type: none"> • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak • Informatika Sistemen Administrazioa • Informatika Aplikazioen Garapena • Proiektu Mekanikoen Garapena • Mekanizazio Bidezko Produkzioa • Industri Ekipoaren Mantenimendua

EKONOMIA > ENPRESAK

Irizar eta Ampo kooperatibak aztertzen dabilta Mondragon Taldeetik irtetea

Bi enpresok uste dute Mondragon Taldeetik kanpo "eraginkorragoak" izan daitezkeela

Ampok gaurko batzarrean hartuko du erabakia; Irizarren batzarra maiatzaren 29an izango da

JASONE ZABALA > BERGARA

Irizar eta Ampo kooperatibak aztertzen dabilta Mondragon taldeetik irtetea. Irizar eta Ampo Mondragon Taldeko Goikide Sailaren barruan kokatuta daude, Legazpiko Urola enpresaren batera. Irizarrek autobusen karrozeriak egiten ditu. Idiazabalaren dagoen Ampo kooperatiba, berriz, altzairu herdoilgaitzen galdaketara dedikatzen da.

Goikide Saila 2005ean sortu zen. Koldo Saratxagak abian jarritako kudeaketa eredu berezia jarraitzen du sail horrek. Eredu horri esker, azken urteotan emaitza onak lortu dituzte eta euren saileko liderrak izatera iritsi dira. Biek ere Mondragon Taldean kooperatiba garrantzitsuak izatea lortu dute, bereziki Irizarrek. Horrela, autobusen karrozeriak egiten dituen enpresak pasa den urtean 435 milioi euro fakturatu zituen. Guztira 3.900 autobus egin zituen eta 2008an %15 haztea espero du. Irizarren, 730 langile daude eta Ormaiztegin ez ezik, Brasilen, Txinan, Mexikon, Hego Afrikan, Marokon eta

Indian dituzte lantegiak eta kontinente guztietan saltzen dute. Ampok, bestalde, Idiazabalaren bi lantegi ditu, guztira 510 langile. 2007an, 180 milioi euro fakturatu zituen eta aurten 200 milioi eurora iristea espero du.

ZERESAN HANDIA

Kooperatiba munduan albiste horrek zeresan handia sortu du, bi kooperatibak Mondragon Taldeetik irteten badira aurrekari gabeko albiste izango delako; hala ere, gogoratu behar da duela urtebete Ecotecnia kooperatiba Katalana taldeetik aterazenean, Mondragon Taldeak inolako arazorik gabe onartu zuela erabaki hura.

IRIZARREK MAIATZAREN 29AN

Korporazioaren antolaketa ereduarekin bat ez datozela-eta, bi kooperatibetako kontseilu errektoreek taldean jarraitzeko edo irteteko proposamena egin dute. Batzarrek dute azken hitza. Irizarren, esate baterako, maiatzaren 29rako batzar orokorra deitu dute. Mondragon Taldeak eta Irizar eta Ampo koopo-

ratibek prentsa ohar bateratu bidali dute. Horretan, korporazioak kooperatiben sarrera eta irteera aurrekusten duela gogorra ekarri du. Esandako bi kooperatibek kudeaketa eredu berezia dutela ere azpimarratzen da oharrean, Mondragon Taldean "jarraitzen denarekin zerikusi handirik ez duena". Hala, horien kontseilu errektoreek antolaketaren eredu propioaren bidetik eguneroko lanean eraginkorrago izan daitezkeela uste dute. Ampok, bestalde, gaur, egubakoitza, hartuko du erabakia Azkoitian egingo duen bileran.

ZALANTZAK LANGILEENGAN

Irizar kooperatibako Errektore Kontseiluaren proposamenak egonezina sortu du bertako langile batzuegan. Langileen gehiengoa Errektore Kontseiluaren planteamendurekin ados egon arren, batzuek ez dute "argi ikusten" euren etorkizuna taldeetik kanpo. Gaur egun enpresaren egoera ona baldin bada ere, urte batzuetara gauzak alda daitezkeela uste dute, eta taldeetik ateratzen badira eta hori gertatuz gero, ez lukete Mondragon Taldearen laguntzarik izango, 1991. urtean enpresak izandako krisian gertatu zen moduan.

Garai hartan, taldean zeudenez, hark eman zizkien laguntzez baliatu ziren, eta soberan zeuden langileak taldeko beste



Irizar kooperatibaren autobus bat.

GOIENKARIA

kooperatiba batzuetan hasi ziren lanean. Hala eta guztiz ere, Errektore Kontseiluak adierazi die langileei taldeetik aterata ere Lagun Aro barruan jarraituko luketela. Izan ere, Lagun Aron badaude Mondragon Taldeetik kanpo dauden kooperatibak ere. Ampo kooperatibako iturriek ere gauza bera diote; hau da, Lagun Arok ematen dituen zerbitzu guztiek berdin jarraituko luketela. Bi kooperatibak taldeetik irtenez gero, Irizar eta Ampo batera joango liriateke, nahiz eta oraindik zehaztu gabe dagoen zein modutan egingo luketen. Horretarako, kooperatiba bakoitzak egingo duen batzarrean hartzen den erabakia-

ren zain gelditu beharko da, gaur Amporena eta maiatzaren 29an Irizarrena.

URTEKO BALORAZIOA

Bestalde, datorren martitzenean, maiatzaren 27an, Mondragon Taldeak urteko prentsa agerraldia egingo du taldearen egoitza nagusian. Bertan, 2007ko ekitaldiko urteko txostena eta emaitzak aurkeztuko dituzte. 2007an egindako ekintzen artean honakoak daude: Eroskik Caprabo erostea, Txinako Kunshan hiriko industrialdea inauguratzea eta Mondragonen Irudi Korporatibo berria garatzea, besteak beste.

ENPRESAK

Ikerketa eta garapen gune berria, Microgune

J.Z. > BERGARA

Microgune kooperatiba ikerketa guneak Arrasateko Garaia gunean izango du egoitza nagusia. Lanak datorren hilean hasiko dira, eta 2009. urterako inauguratu gura dute. Egoitzak 650 metro koadro eta lau solairu izango ditu.

ALIANZA ESTRATEGIKOA

Hain zuzen, CEIT, Ikerlan eta Tekniker, MU, Tecnum eta MCCren arteko aliantza da Microgune. Bertan, mikro eta nanoteknologiak aztertu eta garatuko dituzte. Horrekin batera, egoitza berean Ikerlan enpresaren mikroteknologiaren laborategia ere egingo dute. Aurrekontua 7 milioi euro izango da.



AUZO LAGUN, KOOP. E

Estatutu Sozialen 32. artikulua dioenaren arabera

OHIKO BATZAR OROKORRA

Eguna: 2008ko maiatzaren 24a.
Ordua: 10:30ean lehen deian eta 11:00etan bigarrenan.
Tokia: Garaia Berrikuntza Gunearen auditorioa (Arrasate).

EGUNEKO AZTERGAIK

1. Akten onespenera buruzko informea eta akordioa.
2. Memoriaren irakurketa eta onarpena.
 - 2.1. 2007ko Gestioari buruzko akordioa.
 - 2.2. 2008ko Gestio-Planaren onarpena
3. 2007ko kontuen eta balantzeen azterketa.
4. Soberakin garbien banaketa
5. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
 - 5.1. Sarrerako kuota eta ekarpena.
 - 5.2. Kapitalaren ordaina.
 - 5.3. Giza heziketa eta promoziorako fondoaren aplikaziorako irizpideak.
6. MCC; Banaketa elkarketa; ERKOP Nekazaritza-Elikadurako elkarketa txostenak.
7. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
8. Eskari eta galderak.

2008ko maiatzaren 6an

ULMA Forja, Koop. E
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

Eguna: 2008ko maiatzaren 30a.
Ordua: 10:30ean lehen deialdia eta 11:00etan bigarrena.
Tokia: ULMA Taldeko auditorioa - Oñati.

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea.
2. 2007ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2008ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2007ko ekitaldiko kontuak eta balantzea aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
5. Auditoria izendatzea.
6. Soberakin garbiak banatzea.
7. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoaren (H.K.S.F.) erabilera.
8. Egituraz gaindiko erakundeekin zerikusia duten gaiak.
9. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
10. Kapital ekarpenak derrigor aldatzeko eta, hala badagokio, Estatutu Sozialerako 17, 21, 38, 54, 56, 57 eta 72 artikulua eta Lehenengo Xedapen Gehigarria aldatzeko akordioak.
11. Kooperatibaren Barne Araudiaren 44 eta 46 artikulua aldatzea, hala badagokio.
12. Mendeko ekarpen finantzarioen jaulkipena.
13. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
14. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
15. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
16. Galderak eta eskaerak.

Oñati, 2008ko maiatza

OHARRA: Bazkide guztien jakinarekin gainean zera jartzen da, kontabilitate liburuak eta deialdi honetan proposatutako estatutuzko eta Barne Araudiaren aldaketan testuak eta zergatien txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea dutela. Hala eskatzen, dokumentuok eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko.



Azokek erantzun ona izan zuten herritarren artean.

HARREMAN

AZOKAK > BIDEZKO MERKATARITZA

Salmenta onak izan dituzte aste bukaerako azokek

Aita Menni ospitalean, Antzuolan eta Aretxabaletan egin ziren azokak: denera, 1.088 euroko salmentak izan zituzten

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Arrasaten, Aretxabaletan eta Antzuolan egin zituzten joan den aste bukaeran bidezko merkataritza azokak. Antolatzaileak gustura geratu dira azokek izan duten erantzunarekin eta salmentekin. Parte hartzea ona izan dela esan dute. Hiru azoka horietan 1.088 euro batu direla gaineratu dute. Horregatik, azokan egon ziren guztiei esker eman gura dizkiete Harreman elkarteko kideak.

SINADURA BILKETA

Arrasateko Aita Menni ospitalean jarri zuten bidezko merkataritzako postu bat: "Jende askok *Egizu planetaren alde, aukeratu bidezko merkataritza kanpainaren alde galdetu zuen*", azpimarratu du Iñigo Truebak, Harreman elkarteko

kideak. Hala, kanpainaren berri eman eta informazioa eskaini zuten Harremaneko kideek. Horren harira, kanpainaren sinadura egiten ari dira Arrasateko Eroski supermerkatuan dagoen Harreman denda. Gainera, kanpainaren berri ere ematen dute.

DONOSTIAREKIN ELKARLANA

Aretxabaletako azokara Valentín Olaetxea Donostiako Caritaseko kidea etorri zen. Hori dela eta, Olaetxeari eskerrak eman gura dizkiote Harremanetik: "Bisita horren helburua, bi taldeek lan koordinatua egitea izan da", dio Truebak. Orain arte elkarlanean egindako lana ona izan dela eta aurrerantzean ere ona izaten jarraitzea espero dutela gaineratu du Truebak.

GERTAKARIAK > SEXU ERASOAK

Salaketa bat eta atxiloketa bat, sexu erasoak leporatuta

Oñatin, 42 urteko gizonetako bat atxilotu zuen Ertzaintzak maiatzaren 15ean, ustezko bortxaketa bat leporatuta

A.E. > BERGARA

Azken egunotan ibarrean hainbat gertakari izan dira. Bergaran eta Oñatin, esaterako, sexu erasoekin lotutako gertakariak izan dira; gainera, Oñatiko kasuan, atxilotu bat dago gertaera horiek direla tarteko.

Bergaran, ostera, hiru emakumek sexu erasoak jasan dituztela zabaldu da herrian. Hori dela-eta, beldurra zabaldu da Bergarako herritarren artean; batez ere, emakumezkoen artean. Ertzaintzarekin harremanetan jarrita, sexu erasoak direla-eta salaketa bat jaso dutela adierazi dute. Baina ez dute beste bi gertaeren berri eman.

TRENBIDE ZAHARREAN

Ertzaintzak aditza eman duenez, maiatzaren 12an izan ziren gertakariak. Antza denez, gizonetako batek emakumezko bati eraso egin zion. Gizonetako emakumezko bortxatzen ahalegin du zen. Ustezko gertaerak Bergarako trenbide zaharrea izan ziren, Murinondo auzoan. Jakin denez, beste bi saiakerak ere leku berean izan ziren; hau, da, trenbide zaharrea. Baina ustezko gertaera horien salaketarik ez du jaso Ertzaintzak.

Ustezko bortxaketa saiakera zela-eta, Bergarako komisarian jarri zuen emakumeak salaketa. Ertzaintzak adierazi du salaketa jaso zutenean ikerketa zabaldu zutela eta orain, ustezko deli-

tua ikertzen ari direla. Hala, ustezko delitua egin zuen gizonetakoaren bila dabil Ertzaintza. Delituaren ezaugarriak kontuan hartuta, biktimaren daturik ezin dutela eman jakinarazi du Ertzaintzak. Oraindik inor atxi-

lotu ez duten arren, Ertzaintzak Bergaran gertatutako ustezko delitua ikertzen dabiltzala gogoratu du.

ATXILOTU BAT OÑATIN

Sexu erasoak direla medio, Oñatin maiatzaren 15ean gizonetako bat atxilotu zuen Ertzaintzak. Emakume bat sexualki bortxatzea leporatuta atxilotu zuten gizonetako. Ustezko delitua ere Oñatin bertan gertatu zela jakinarazi du Ertzaintzak. Atxilotutakoa 42 urteko gizonetako da, baina Ertzaintzak ez du beste daturik eman.

BI KASUEN ARTEKO ERLAZIOA

Bergarako eta Oñatiko kasuak erlazioa izan dezaketen edo ez ezin du esan oraindik Ertzaintzak. Oñatiko kasuan, gizonetako atxilotuta dago eta bortxaketa delitua leporatzen diote.

Bergarako kasua, ostera, geroago gertatu zen. Ertzaintzaren komunikazio sailak adierazi du ez dirudiela pertsona bera denik, baina oraindik ezin du datu hori konfirmatu. Hain zuzen, bi herrietan gertatutakoak ikertzen ari direla adierazi dute komunikazio sailak.

ISTILUAK ARETXABALETAN

Aretxabaletan zauritutakoak onera egin du

Aretxabaletan domeka goizaldean izandako iskanbilaren harira badago berritasunik. Larri zaurituta Gasteizko Santiago ospitalera eraman zuten gazte magrebtarrak hobera egin du asteon. Konortea berreskuratu du eta Zainketa Intentsiboetako Unitatetik gelara pasa dute. Buzurra apurtuta dauka, baina badirudi, hasiera batean, behintzat, haren bizia ez dagoela arriskuan. Bestalde, Ezkutu tabernako jabeak azpimarratu gura du gertakariak ez zirela taberna barruan gertatu. Kanpoan izan zirela argi laga gura izan du. Gazte magrebtarra Durana kalean agertu zen larri zaurituta.

> POLIZIA OPERAZIOA

Arrasateko PSE-EEko kideak pozik daude, Carrasco "hiltzeko agindua" eman zuena atxilotu dutelako

Martitzenean atxilotu zituzten Frantzian ETako ustezko lau kide: Francisco Javier Lopez Peña *Thierry*, Ainhoa Ozaeta, Igor Suberbiola eta Jon Salaberria. Atxiloketa horien harira, pozik azaldu da Arrasateko PSE-EE. Paco Gartzia esan du pozik daudela atxiloketengatik; baina batez ere ETako buru *Thierry*-ren atxiloketak poztu du Gartzia. Ustez, Isaias Carrasco "hiltzea agindu" zuen *Thierry*-k.

Gartzia gaineratu du ETak "inoiz" ez dituela bere helburuak lortuko. Legea erabilita "terrorista guztiak" atxilotuko dituztela eta denek kartzelan bukatuko dutela esan zuen Gartzia.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Silbia Sarasola > MUko Enpresa Zientzien Fakultatea

"Datorren ikasturtetik aurrera atzerrian ikasteko aukera edukiko dute ikasleek"

NEREA MENOR > OÑATI

MUko Idazkaritza Zuzendaritzako ikasketen ezaugarri garrantzitsuenetakoa da nazioarteko esperientzia. Orain arte, atzerriko egonaldia praktikatara zuzendu dira. Datorren urtean atzerrian ikasteko aukera ere edukiko dutela azaldu digu nazioarteko harremanen arduradun Silbia Sarasolak.

Ikasleek praktikak atzerrian egiteko aukera dute. Nola antolatzen dituzue horiek?

Gure ikasleek bi egonaldi egin behar dituzte enpresetan derri gor, praktikak egiteko. Titulazio horretan hizkuntzen ezagutzak duen garrantzia kontuan hartuta, praktika horiek atzerrian egiteko aukera ematen diegu ikasleei. Horretarako, Erasmus programan hartzen dugu parte edo fakultateak finantzatutako diru-poltsak eskaintzen dizkiegu espediente hobereana duten ikasleei.

Enpresek balio handia ematen diete atzerriko egonaldiei. Baina ikasleek interesik badute?

Ikasleek ondotxo dakite enpresek kontuan hartuko dutela, baina hori ez da arrazoi bakarra. Garai batean bidaiatzea gai konplikatu zen; gaur, aldiz, erraztasun guztiak ditugu, eta, gainera, gero eta merkeagoa eta seguruagoa da. Horren ildora, ikasleak oso irekiak agertzen dira esperientzia hori bizi izate-



Silbia Sarasolak atzerriko programa ezberdinak azaldu zizkigun. SUSANA AZPILIKUETA

ko eta hasiera-hasieratik daukate buruan aukera hori.

Datorren urtean atzerriko egonaldiak egiteko programaren edukia zabaldu egingo duzue; zeintzuk dira aipatutako aukera berri horiek?

Datorren ikasturtean, ikasleek praktikak atzerrian egiteko

aukeraz gain, atzerrian ikasteko aukera edukiko dute. Horretarako hitzarmen berezia sinatu dugu Alemaniako unibertsitate batekin. Eskolak alemanez egingo dituzte eta praktikak bertako enpresa batean. Esperientzia interesgarria izango da eta ondorengo urteetan ere programak zabaltzen joango gara.



UNED

Txinara hurbilduko dira Bergarako UNEDeko VII. udako ikastaroetan

Joan den martitzenean, UNED-Bergarako VII. uda ikastaroen aurkezpen ekitaldia egon zen Donostiako Kutxa aretoan. Guztira, 21 ikastaro aurkeztuko ziren bi eremu garrantzitsuetan banatuta: ikastaro orokorrak eta ikastaro metodologikoak.

Edizio honetan, honako ikastaroak nabarmen daitezke: *Euskal kultura, Txinara hurbilpen bat, euskarazko Irakurketaz, Buruzagitza eta motibazioa, nondik hasi? eta Genero bortizkeria.*

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Ekaineko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
20 euro abendura arte

CANON KAMERA



KAMISETA+POLTSA



ZIRA+KAMISETA



SARI NAGUSIA:

GETARIAKO ASTILLERO JATETXEAN BI PERTSONENDAKO BAZKARIA



SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, hailer zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

gure artekoak

FORD MONDEO > Udazkenean merkaturatu zuen Ford etxeak Mondeo berria; orain, hil honetan bertan, Mondeo bera merkaturatu dute, baina motor handiagoarekin. Mugarriko Rafa Etxabek aurkeztu digu autoa.

Rafa Etxabe > Ford Mugarriko saltzailea

"Zabaltasun handiena duen autoa da Mondeo berria"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
"Udazkenean merkaturatu genuen Mondeo berria. Baina hasiera baten, motor aukera guztia ez da merkaturatzen. Hortaz, orain, Mondeo bera atera dugu, baina motor aukera zabalagoarekin", azaldu du Rafa Etxabek, Mugarri etxe saltzaileak.

Titanium moduan ezagunagoa, 2.2 TDCI 175 ZP motorreko autoa gama altuko autoa da. "Bai motorra eta baita autoaren akaberare ere gama altukoak dira", dio Etxabek.

HIRU ATE AUKERA

Lau ate, bost ate edo auto familiarra (Sportbreak) daude aukeran. Etxabek esan digu Mondeo autoa batez ere familia dutenei zuzenduta dagoela: "Erosle gehienak 35 urtetik gorakoak dira; hau da, familia dutenak eta lau pertsona autoan sartu behar direnak".

Mondeo berriaren ezaugarri azpimarragarriena segurtasuna da. Bai segurtasun pasiboa eta baita aktiboa ere. Gidariarentzako eta lagunarentzako airbagak eta, baita ere, gidariaren belautentzako airbagak. AFS argiztapen sistema; hau da, argiak 15 gradu biratuko dira autoak hartzen duen norabidearen arabera. Gainera, gura besteko lekua dago Mondeo autoaren barnealdean.



Rafa Etxabe, Mondeo berria aurkezten.

A.E.

Ford Mondeo 2.2 TDCI 175 ZP

Prezioa	28.500 euro
Luzera	4,83 metro
Zabalera	2,07 metro
Maletategia	540 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	6,2 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	205 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	9,7 seg.
CO2 isurketak	165 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

MOTORRAK

Gasolinazkoen artean, honako motorrak daude aukeran: 1.6 125 ZP, 2.0 145 ZP eta 2.5 220 ZP. Dieselen artean: 1.8 125 ZP, 2.0 143 ZP eta 2.2 175 ZP. Motorrak bost edo sei martxakoak dira. Gainera, martxa aldaketa automatikoa edo erdi automatikoa dago aukeran.

Auto Bild aldizkariak egiten duen testaren arabera, antzerako autoen artean Ford Mondeoa da puntuazio handien jaso duena. Erabilgarria izateaz gain, errepidean duen portaera ona azpimarratu du Auto Bild-ek.

etxeke leihotik



Eneko Azkarate > eazkarate@goiena.com

Non daude, baina, Bergarako mutikoak?

Bergarako Musika Eskolak 25 urte beteko ditu aurten. Eta urteurrena ospatzeko *Miserableak* ikuskizuna eszenaratuko dute berriro ere. Orain dela 15 urte estreinatuta zuten euskaraz, Musika Eskolaren 10. urteurrenean. Orduko bultzatzaile nagusiak, musikala egokitu eta plaza-ratu zutenak, oraingorako berriro elkartuko dira. Alfredo Gonzalez Chirlaque orkestrako zuzendaria eta Balen Moñux berriro elkarrekin. Batuta indartsuago.

Bergarako Orfeoia eta Aritzeta abesbatza ere batu nahian dabilzala komentatu didate, herriko abesbatza nagusi biak elkarrekin aritzeko. Izan ere, gero eta jende gutxiago animatzen da koruetara; batez ere gizonezkoen ahotsak falta dira. Non dira mutilak?


Joan zen egubakoitzean 40 bat neskatila-mutikok jardun zuen Bergarako Munibe plazan dantzan. Gutxi-gutxi batzuk mutilak, ordea. Musika Eskolak, bestalde, udaberriko kontzertua eskaini zuen zapatuan frontoian eta han ere neskek nagusi. Non dira, baina, mutilak? "Futbolearen" zioen batek. Eta Bergara erregionalean, Antzuolarekin lehiatu eta galtzen... Ai ene!

> **Kultura** eta turismoa bultzatu nahi ditu Bergarako Udalak. Baina ekipamenduak falta zaizkio herriari. Gobernu eta oposizioko indar nagusia ekipamendu estrategikoetan bat ez etortzea ez da ona.

> **Udaberriko kontzertua, Miserableak, bandaren emanaldiak, Taun Taunen txotxongi-loak, herriko zein kanpoko musikariak... ikusiko nituzke gustura ganorazko areto batean Bergaran. Ez daukagu.**

"40 bat neska-mutiko dantzan eta horietatik gutxi-gutxi batzuk mutilak"

begi-bistan



Eguzki sukaldaritza (Arrasate) 2008/05/15

Argazkia: Arantzazu Ezkibel.
Testua: Arantzazu Ezkibel.

Mugarik Gabeko Ingeniaritza taldeak egin zuen erakustaldia MUn. Eguzki izpiekin bakarrik janaria presta daitekeela erakutsi zuten. Txistorra, behintzat, ederra zegoen!

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Alberto Sanchez
KIROLARIA

Arrasatearrak modu onean hasi ditu 2008ko txapelketak. Hain zuzen, bigarren sailkatu zen maiatzaren 11n jokatuako Bilboko txapelketan. Sanchezen hurrengo erronka ekainaren 1ean Donostian jokatu den IX. Open Classic Olimpus Sport proba da.



Juan Zelaia
ENPRESA BURUA

Juan Zelaia oñatiarrak Jimeno Jurio 2008 saria jaso zuen domekan Artaxonan (Nafarroa). Hain zuzen, urte askoan eta hainbat esparrutan euskararen alde egindako lanagatik jaso zuen saria.

Harekin batera, Jorge Cortes-Izal euskaltzaleak ere jaso zuen saria.



Zuhaitz Ezpeleta
KORRIKALARIA

Arrasatearrak maiatzaren 18an Tarragonan jokatu-tako Espainiako Kopako bigarren proba irabazi zuen. 380 parte-hartzailearen artean, 2:12:48ko denbora egin zuen. Kopako hurrengo proba Espainiako txapelketa izango da, ekainaren 15ean, Castellon.

Oñatiko osasun etxean, herri-tarregana hobeto iristeko komunikazioaren bide-orria egin dute. Horren harira, gaitzatz bat hartu eta osasun etxe-ko erizainek eta sendagileek jendeari informazioa helarazteko kanpainak ipini dituzte abian. Gripearen gaineko informazioa eman zuten lehen, eta oraingorako aukeratu duten gaia elikadura osasungarria da.

Rosa Azkue > Familia medikua

"Elikadurak zeresan handia du ikusten ditugun gaixotasun kronikoetan"

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Rosa Azkue familia medikua da Oñatiko osasun etxean. Jose Conejo administrariarekin eta Santiago Ayechu zuzendariarekin batera azalpenak eman dizkigu zentroan bertan abiarazi duten informazio kanpaina horren gainean.

Informazioa zabaltzea da kanpainaren helburua, ezta?

Asmoa da medikuntza prebentiboa egitea; aholkuak ematea. Orain elikadura osasungarriarekin dihardugu eta gero beste gai batzuk landu nahi ditugu.

Zergatik aukeratu duzue elikadura osasungarria?

Uda gertu egonik *bikini operazioa*, dieta miragarriak... direla, jendea ohartarazi nahi dugu kontuz ibiltzeko kontu horiekin. Gainera, elikadurak zeresan handia du gure kontsultetan ikusten ditugun gaixotasun kronikoetan.

Ze informazio emango duzue?

Aholku orokorrak ematen dizkiegu elikadura osasungarria egin dezaten. Ez diegu dieta zorrotzik ematen, hori kontsultetan egiten dugu erizainek eta medikuok. Informazio kanpaina ez da gaixotasunen gainekoa, osasunari buruzkoa baizik.

Osasun etxeko edozein langilek hitz egingo die datozenei elikadura osasungarriari buruz?

Ez, erizainen eta sendagileen kontsultetan egingo da. Baina erabiliko ditugu beste medio osagarri batzuk informazioa zabaltzeko: pantailak, eskuorriak...

Elikadura arazoa da gaur egungo gizartean. Zein arazo ikusten dituzue kontsultetan?

Egungo gizartean gaizki jaten dugula esan daiteke. Informazio batzuk ez dira egokiak eta sasoi zehatzetan jendeak dieta miresgarrietara jotzen du. Dirua gastatzeko gertu dago jendea, baina ez da egoki elikatzen. Hortaz, gero eta gizenago gaude, gero eta arazo gehiago daude kolesterolari, bihotzari, tentsioari, hezurrei... lotutakoak. Gainera, jateko ohitura onak galduz doaz.

Domekan hipertentsioaren eguna izan zen, eta gaitz horrek ere badu zerikusia elikadurarekin. Nola kontrolatzen dira gaixotasun horiek?

Hipertentsioa gaixotasun kronikotzat hartzen dugu; hortaz, sendagileok eta erizainek zeresan



Oñatiko Osasun Zentroan dihardu lanean Rosa Azkue sendagileak.

IRATI AGIRREAZALDEGI

DIETAK

"Aholku orokorrak ematen ditugu; dieta zehatzak sendagileen eta erizainen esku daude"

JATEKOA

"Egungo gizartean gaizki jaten dugu; gero eta gizenago gaude eta gero eta osasun arazo gehiago dago"

GAZTEAK

"Ikusten dugu gazteek beti jatordu berdintsuak egiten dituztela: pizza, makarroiak eta horrelakoak"

handia dute kontrolean. Bakitziari dagozkion aholkuak ematen dizkiogu, pertsonalizatuak, eta azterketa ere hala izaten da.

Elikadura osasungarria izan dadin, zein oinarritzko pauso jarraitu behar dira?

Gomendio orokorrak dira, esaterako, egunean bost jatordu egitea, lekaleei eta barazkiei garrantzia ematea, baina esaten dugu haragia eta arraina ere jan behar direla. Izan ere, ikusten dugu gazteek jatordu berdintsuak egiten dituztela: pizza, makarroiak... Horretaz gain, janaria egosita edo plantxan jatea gomen datzen dugu; opil industrialak ez jatea; freskagarriak, saltsak, fritituak... saihestea; eta ariketa fisikoa egitea.

Zuek ematen dituzue dietak?

Ez, guk dietak ez ditugu ematen, aholku orokorrak baizik. Osasun-heziketa da guk egiten duguna. Ondoren, gaixotasunen bat izanez gero, diabetesa, esate-

rako, kontsultan emango zaio pertsona horri dagokion dieta pertsonalizatua.

Nori zuzendutako kanpaina da?

Adin muga batzuk ipini ditugu: 20 urtetik 60 urtera bitartean. Adin tarte horretan gaia landuz gero, beste arazoak saihesteko bidea egon liteke.

Gero eta gehiago erreparatzen zaio umeen elikadurari. Zuek neurri berezirik hartu duzue?

Ez, apartekorik ez. Pediatrek egiten dizkiete osasun azterketak, eta kontrolatuta daude.

Azterketa baten arabera, umeen %25 ez dira ondo elikatzen. Txikitatik landu behar da gaia?

Eskoletan erakusten diete nola jan behar duten, baina beste kontu bat da eurek gero betetzen dituzten emandako aholkuak. Errua ez dakit norena den. Izan ere, informazioa guztiok daukagu eta jangeletan ere janari egokiak ematen dizkiete, horre-

tarako daude elikaduran adituak direnak, baina badirudi umeek ez dutela hango jatekoa hartzen.

Aurreko informazio kanpainak zein eragin izan dute?

Gripearen gainekoa egin genuen otsailetik apirilera bitartean, eta eragina neurtu dugu: emaitzak onak izan ziren.

Hurrengo kanpaina zeren gainekoa izango da?

Oraindik zehaztu gabe ditugu gauzak, baina baliteke ariketa fisikoren gainekoa izatea. Gainera, ekainaren erdialdera arte gai horrekin jardungo dugu. Egitekotan, udazkenean hasiko ginateke. Betiere aukeratuko dugu gairen bat populazioarengan eragin nabarmena duena.

Beste inon egiten da horrelako kanpainarik?

Osasun etxeetan ez dugu besterik ezagutzen; aitzindariak gara. Bide-orri honetan Euskal Herriko zentro gutxi gaude.

plazara

Debagoieneko Sahararekiko elkar-tasun talde Nubi eta Iesbaak egi-tasmo berria antolatu dute: Saha-rako umeendako udalekuak anto-

latzea eta hango ume batzuei aukera ematea udako hilabeteak osasuntsu eta pozik pasatzeko. Ume horiek gerrak eta minek kal-

tetutakoen senideak dira, eta Mar-tir Chreief zentroan bizi dira asko. Agurne Juldainek kanpaina horren aldeko arrazoiak ematen ditu.

Agurne Juldain *

Kolore beltzaren ondoan, txuria aurki daiteke


Hogeta hamar urte baino gehiago dira herri sahara-rra zapaldu zenetik. Marokok, eskubide guztiak zapaldurik, Mendebaldeko Sahara hartu zuen. Espainiak Mendebaldeko Sahara oparitu zien 1976an Maroko eta Mauritaniari, lege guztiak alde batera utzita. Gaur egun oraindik ere zapalketa horren ondorioak ikus daitezke Mendebaldeko Saharan eta Aljeriako Tindouf hirian dauden saharar errefuxiatuen kanpamentuetan.

Arrasateko Sahararen Lagun garen Nubi Elkartekoak eta Aretxabaletako Iesbaa Elkartekoak kolore beltzaren ondoan txuria ere aurkitu dezakegun froga eka-rrari behar dugu udarako.

Tindoufen kokatutako errefuxiatuen kanpamentuetan zentro berezi bat dago, Martir Chreief zentroa, hain zuzen. Bertaraino iritsi ginen bi elkartekoak orain dela bi urte. Egun horretatik aurrera zentro horren aldeko ekintza bat egin behar genuen ideiarekin lanean hasi ginen.

Martir Chreief zentroan, gerra eta minen ondorioz dauden biktima mordoa bizi da. Mina baten eztagatik edo gerraren ondorioz bertan bizi direnak paraplegikoak, itsuak, anputatuak... dira. Bertan aurkitu ditzakegu gure lagunak: Said, Chej, Daha, Gazmula, Mariam... Zentrorra hel-tzean, irribarre batekin agurtzen gaituzte. Beraien geletara gonbi-datzen gaituzte tea hartzeko eta hizketaldi txikiak izateko.

Mariamena gelara gerturaz-ten gara. Bertan dago bere lau seme-alabekin, ahizpa eta loba batekin tea hartzen. Mariam 1977an (1976an Marokok eta Mau-



MIKEL ARROIABE

ritaniak Mendebaldeko Sahara hartu zuten) Tifariti herritik gertu zihuan lagun batzuekin batera auto baten. Orduan mina batek eztanda egin zuen. Istripuaren ondorioz, Mariamek gerritik behera eta goi eskuinaldean paralisia du. Ezin izan ditu seme-alabak bakarrik hazi, beti norbaiten laguntzarekin. Bere istripua kontatzen digu irribarre leun batekin.

Tea amaitu aurretik, atetik Daha sartu da. Daha zentzoko langilea da, gaixoa izatez gain. 1994an, Tifaritin zegoen, minak desaktibatze kanpaina batean. Eztanda egin zion mina batek, ezkerreko begia eta eskumako eskuko atzamarrak galduz. Istri-

"Martir Chreief zentroaren aldeko ekintza bat egiteko ideia izan genuen orain dela bi urte"

"Saharako haurren irribarreak ikusi nahi ditugu Euskal Herrian, beste mundu bat posible dela esaten dutelako"

pua izan zuenetik, zentroan bizi da. Bisitariak etortzen direnean bera da zentroa erakusteko ardu-raduna. Mantenimendu lanak ere berak egiten ditu. Zentroaren koordinatzaile Brahim Liliberekin batera, bera da funtzionamendu zehatzen ezagutzen duen per-sona. Ahots leuna du, etengabe-ko irribarrea eta lasaitasuna eskaintzen digu. Irrati zahar bate-tik musika sahararra entzun deza-kegu tea hartzen dugun bitarte-an. Haurrak dantzan eta abesten pozik daude, gu ere pozik gaude.

Nubi eta Iesbaa elkartek, aurten, zentro horren bizia gure artera ekarriko dugu. Bertan bizi diren biktimen seme-alabak, ilobak, lobak... guregana ekarriko ditugu, beste mundu bat posible dela ikus dezaten. Beltzaren ondo-an txuria ere badagoelako, gau-aren ondoan eguna dagoelako, zapalkuntzaren ondoan askatasu-na dagoelako.

Guztion betebeharrak delako gobernuei presioa egitea legea bete dadin, Herri Sahararrak askatasuna lor dezan, Marokok jarritako minengatik istripu gehiago egon ez dadin eta Marokok egindako lege zapalkuntza-gatik bere zigorra bete dezan.

30 urte baino gehiago darama-tzagu beltzak eta txuriak existi-tzen direla entzuten, garaia da gobernuek hau froga dezaten. Negarraren ondoan irribarre dagoelako eta haur hauen irriba-rreak ikusi nahi ditugulako uda honetan Euskal Herrian, beste mundu bat posible dela esaten ditugulako.

* Sahararekiko Nubi elkartasun tal-deko kidea da.

zer deritzo zu?

www.goiena.net

Euskal taldeak jarraitzen dituzu ligan?

BAI	%57,1
EZ	%42,9

> EA REALA IGOTZEN DEN!

Lehen maila interesgarria egon da, zein talde jaitsiko zen ikusteko. Bigarren mailan, berriz, Realarekin sufritzen ari gara, ea geratzen diren 12 puntueta-tik 12ak lortzen dituen eta igotzen garen.

Itziar

> ILUSIOA GALDU DUT

Reala zeozer jarraitzen nuen lehen, baina pixkana-pixkana, ilusioa galdu nuen. Beste taldeek egiten duena ez zait interesatzen.

Esther

> FUTBOL ZALEA NAIZ

Bigarren maila jarraitzen dut, Real zalea naizelako. Eta lehenengo maila, eta European jokatzeko diren txapelketetako partiduak, futbol zalea naizelako.

Maialen

> NAZKATUTA

Futbolari gehiegizko garrantzia ematen zaiola uste dut. Nazkatuta nago hainbeste futbol dela eta ez dela. Gora Bera Bera!

Joseba

DATORREN ASTEKOA: Sukaldari famaturen batenean egon zara?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

Kazetari multierdia

'Kasketa'
blogak.com/kasketa

Joxe Aranzabali *Faroa*-n irakurri nion kazetari multimediar buruzko artikulua (...). Nik, ordea, beti izan dut zalantza gauza asko eta denak ondo egin litezkeen, eta zalantza baino kezka nuen gauza asko egitean galtzekotan zerk galtzen zuen. Aranzabalek gehiegi idealizatu zuela iruditu zitzaidan, eta horrela frogatu

nuen gerora Debagoieneko hitzaldi batean:

Han zen kazetari multimedia. Bideo kamerarekin irudiak jaso zituen lehenik, handik eta hemendik. Argazkia atera zuen ondoren, baina argazki kamera atera aurretik koaderno eta boligrafoa atera zituen. Nire artean pentsatu nuen "arrazoia zuen Joxek", baina usteak ustelegi: argazkia atera eta berriz bideo kamerari eutsi zion; ondoren, dena gorde eta alde egin zuen.

Zer ez zuen jaso kazetariak? Mamia. Irudiak zituen, argazkiak zituen, baina ez zuen hizlariak esan zuenaren berri

jaso. Hitzaldien aurkezpeneko eskuorriak balio izan zion gero albistea osatzeko, ez zuen aurkezpen orritik aurrera egin, hitzaldiaren berri eman beharrean, hitzaldiaren aurkezpenaren berri eman zuen (...).

Kazetari multimedia diogu, eta etorkizuna izan liteke, baina uste dut lehenik ondo pentsatu behar dela nola egin; izan ere, mamia albo batera utzi behar badugu, albistea ez da albiste izango, nahiz eta irudiek bestela erakutsi.

Kazetaritza multimedia multierdia da momentuz, eta galtzen den erdia albistea bada, multihutsa (...).

koplak

Manex Agirre

Egun batean

Egun batean Maria San Gil nigana etorri gero esango diot: kaixo, baina ez pare bat muxu espero.

Egun batean Savater jauna hizketan etorri gero silikonazko tapoiak jarri ta egongo naiz bero-bero.

Egun batean Josu Jon Imaz bertsoan etorri gero bizkarrean joz esango diot: "sartu zaitez gerrillero".

Klaudio Landari esango diot noizbaiten elkartuz gero: "Zeure burua biderkatzeko aukera ezazu zero".

Egun batean Txentxo Jimenez nonbait aurkitu ezkerro baietz galdetu: "ta, hurrengoan Senegal aldera edo?"

Horietatik inor aurkitu gabe mantendu ezkerro, gaur bezalaxe irribarretsu Jaiki behar naiz goizero.

Denok bagara garaile gara

Patxi Arburua, Oihana Aranburu, Arkaitz Biain, Yolanda Perez de Arenaza, Juan Mari Sampedro eta Izadi Mondragon (Arrasateko Udal Gobernuako kideak) Arrasate

Gutun honen bitartez, behean sinatzen dugunok azken hilabeteetan Arrasaten gertatutako inguruan hitz egin nahiko genuke.

Lehenik eta behin, Ino Galparsoro alkatearen kartzelaratzera salatu nahiko genuke eta bere erabateko askatasuna exijitu.

Azken bi hilabeteotan jasandako jazarpen politikoa nahiz mediatikoaren baitan aurkitzen da kartzelaratzera hau. Erabaki judizial guztien gainetik, ez daukagu duda izpirik *jokaldi* hau Espainiar Gobernuaren estrategia politikoa hutsean oinarritzen dela, honetan guztian, dimisio mozioekin argi gelditu zen bezala EAJ-PNV bidaia lagun aproposa duelarik.

Agerian gelditu da, beste behin ere, nor dagoen Euskal Herrian bizi dugun gatazka gaintzeko prest eta nor jartzen dizkion oztopoak.

Hedabideak eta herrian entzun ahal izan ditugun zurrumurru batzuk, Inoren kartzelaratzeari baliatuz, Udaleko jardueraren etenda dagoela zabaltzen saiatu dira. Azken asteotan epaile batek agindutakoa ulertzen eta hau gauzatzeko bideak jorratzen aritu garenik ezin dugu ukatu, baina Udalak bere zereginak betetzen jarraitzen duela ziurtatu dezakegu.

Honekin, azken hilabeteotako egoera gainditzen lagundu eta laguntzen gaituztenei eskerrak eman nahi dizkiegu.

Ezin dira aipatu gabe gelditu elkartzasuna, laguntza eta beraien berotasuna eskaini diguten Arrasateko, Euskal Herriko nahiz munduko beste zenbait txokotako herritarrek, bazterrak nahastu beharrean herritarrei informazioa eskaintzen lanean aritu diren eta diharduten hedabide gutxi batzuk, presio eta jazarpen izugarrien gainetik adorea eta indarra erakutsi duten zinegotziak, eta baita, beraien borondatea, jarrera eta pazientzia helarazi diguten Udaleko langileak ere. Hauetaz guztietatik gure eskerrak beroenak.

Baina bereziki lerro hauek Inori eskaini nahi dizkiogu. Mozio etikoenean ere deskribatu ezin den duintasun eta konpromiso leziorik handiena berak erakutsi baitu eta erakusten jarraitzen baitu, Udalean nahiz kartzelan egon. Hemendik, gure besarkadarik handiena oztopoak oztopo Arrasateko alkatea izaten jarraitzen duen Inori.

Bukatzeko, pasa den urteko maiatzean hautatuak izan ginenok, traba guztien gainetik, gure lan eta konpromisoekin aurrera egingo dugula adierazi nahi dugu, garai hartan esan genuenari eutsiz, denok bagara garaile gara.

Murgia auzoko jaiak

Fermin Altube
Oñati

Maiatzeko lehenengo domekan Murgia auzoko jaiak izan dira: Asentzio jaiak. Aurten sekulako ilusioarekin egon gara murgiatarrak; izan ere, ermitaren mendeurrena ospatu dugu. Gainera, auzo elkarte berria inauguratu dugu eta baita

bedeinkatu ere. Honen harira, Murgiari eta hango ermitari buruz idazteko tartea hartu dut. Oñatitik Murgiara bidean, lehenengo dagoen baserriaren ondoan, ermita bat zegoen 1505. urtean. Bidea jarraituta, auzoaren azkeneko baserri ondoan, Maala baserrian, beste ermita bat zegoen urte berean: Santa Maria Magdalena izeneko. Lehenengo, Murgialdai baserri ondokoa, San Andres ermita zen. Harritzekoa da bai Andres eta bai Magdalena ermitak garai berekoak izatea. Magdalenako ermitaren arrastorik ez dago. Bai, ordea, San Andres ermitarena: izan ere, Murgialdaiko etxebizitzaren ate gainean San Andresen armarrria dago. Gainera, Elizondo izenarekin ezagutzen da lehenengo ermita zegoen lekua.

Gaur egun, auzoaren erdian dago Asentzioko ermita. Aipatzeko da, 1505. urterako Murgialdai baserria zutik zegoela. 50 urte geroago, 1555. urtean, Murgialdaiko Andresek tratua egin zuen Borgoñako Feliperekin ermitarentzat erretaula egiteko. Lanaren kostua 50 dukatekoa izan zen.

San Andres ermitak historia luzea du: kofradia bat izan zuen eta, jakin badakigu, sortu izan ziren abusuak konpontzeko nolako arauak jarri zituzten. Eliza ospakizunak ere egiten ziren eta meza batzuk emateko betebeharrak ere bazuten apai-zek. 1801. urtean baserri bien jabe moduan kaperau bat agertzen da: Francisco Ignacio Urrutia.

Parrokiako artxiboan sarri zamar aipatzen da San Andres ermita bertako ezkontza eta ospakizunen berri adierazteko. Baina, behin XVIII. mendea ezker beste izen batekin agertzen da: Asentzioko ermita. 1505. urtetik 1905. urtera arte

iraun zuen lehenengo ermitak. Orain auzoaren erdian dagoena, lehenengo ordezkoa da. 1555ean egindako erretaula berbera dago jarrita ermitan eta, azken aldian egindako lanari esker San Andres santua bere tokian jarrita dago.

Asentzioko misterioarekin eta ermitarekin ongi uztarturik ikusten ditugu bai Andres eta bai Magdalena, Murgia auzoarentzat bide erakusle eta bidelagun izan direnak.

Hemendik aurrera, beste egon leku goxo bat izango du auzoak. Amets egin genuen eta ametsa egi bihurtu da. Igandeko bedeinkapen oparoa zabaldu dadila guztientzat. Azken aipamena: auzoak liburuxka berri bat du. Auzoko familiek ale bana jasoko dute.

Auzoarenaganako maitasunak eraginda sortu da idatzi hau. Denontzat poz bide izan dadila eta, denon elkartzasunaren adierazgarri. Hala bedi.

Diru eta ilusio lapurreta

Roberto Arriaran Ugarte
Oñati

Auto berri baten erosketak guztioi sorrarazten digu ilusioa. Hau ez litzateke horrela izan beharko garraio bide publiko eraginkor bat izango bagenu. Dena den, duela bederatzita hilabete bizi izandakoa azalduko dizuet:

Bergara Cars etxean erosketak egiteko hartu nuen erabakiak ilusio horiek zapuztu zizkidan. Bergara Carseko saltzaile eta bazkideetako baten eskutik entzundako gezur eta argelkeri ugariekin. Sinistarazi zidan Alemaniatarik garantia eta guzti ekarritako auto berria kontze-

sionario ofizial batean baino prezio hobean eskaintzen zidala.

Bederatzita hilabete berandua, pertsona horrek salmentarako kontratua bertan behera uzten du. Arrazoiak, Bergara Cars hornitzen duen lantegi alemaniarrek bertako ogasunari BEZaren bidez desfalkoa egin izana leporatuta. Honen ondorioz, beraien arteko harremana erabat eten egiten da eta hasieran seinale gisa jarritako dirua desagertu.

Nire dirua eta ilusioa Bergara Carsen eskutan geratu dira. Debagoienean, egoera honek dozena bat lagun eragin digu eta estatu espainolean 50 baino gehiagori. Honen inguruko informazioa izan edota kaltetua bazara jarri gurekin harremanetan. Ilusio eta diru lapur hauek alboratu behar dira.

Informazioa: www.euskalauto.com/castellano/display_message.asp?mid=8943

Espero dut agintariek mota honetako enpresei bideak moztea eta ez pertsiana botatzearekin edota porrot egin dutela esatearekin inolako zigorririk jaso gabe uztea

ZUZENKETA

GOIENKARIAren 332. zenbakiko *Min-gainari tiraka* atalean, 29. orrian, akats bat egin genuen. Goiz Argi enpresa Bergara, Antzuola eta Arrasateko udal-ekin elkarlanean aritzen dela ipini genuen elkarrizketatuaren, Kristina Soriano Goiz Argi zuzendariaren, ahotan. Hori ez da zuzena. Bergarako Udalak etxez etxe laguntza zerbitzua eskaintzeko Goiz Argi ez den beste enpresa batekin egiten du lan.

GOIENKARIA

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

markeline
haurrentzako moda

0 hilabetetatik 14 urtera

HAURTXOAREN HAMABOSTALDIA

(maiatzaren 24tik ekainaren 7ra)

Jantzietan eta puerikulturako artikuluetan

%10 eta %20ko deskontuak

Herri Lagunak 6, behea BERGARA Tel.: 943 76 05 24

HIPOTECA *Berdea*

Lehen aldiz,
energia aurrezten duen etxeak
dirua ere aurreztuko dizu hipotekan.



1.000 € rainoko deskontua egingo dizugu zure hipotekan.

Kutxaren Etxebizitza-Zerbitzuan gehien komeni zaizun hipoteka eskaintzeaz arduratzen gara eta zure neurrirako finantzaketa diseinatuko dizugu, hasi eta buka, erosketako prozesu osoan aholkua emango dizun gure kudeatzaile pertsonal baten laguntzarekin.

Baina, gainera, **kutxan ingurumena zaintzeaz kezkatzen gara.**

Horregatik, **energetikoki eraginkortzat kalifikatutako etxea erosten edo eraikitzen baduzu, 1.000 eurorainoko deskontua izango duzu**, edozein delarik ere aukeratzen duzun hipoteka mota.

Horrelakoa baita gure **Hipoteka Berdea**, errespetuzkoa ingurumenarentzat, eta ona zure poltsikoarentzat.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA

➤ OÑATIN

Erdi Maila

- Mekanizazioa
- Talde gidaritza natur ingurunean
- Mantentze-lan elektromekanikoa

➤ ARETXABALETAN

Erdi Maila

- Soldadura eta galdaragintza
- Ibilgailuen elektromekanika
- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Mekanizazioa

Goi Maila

- Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa



Ate irekiak: Ekainak 3 • 18:00

RM Zuazola - Larraña Institutua
San Lorentzo, z/g • 20560 Oñati
Tel.: 943 78 21 50
E-posta: onatikobhi@goieskola.net
www.onati.net




Aretxabaleta GLHBI
Etxebarri auzoa, z/g • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 79 00
E-posta: ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com

Gazte ikastaroak



ERROMERIAKO DANTZAK

Lore Gazteak-en eskutik
Maiatzaren 30etik ekainaren 20ra arte.
Egubakoitzetan, 19:00-20:30
Matrikula: 12 euro.
6 euro ikasle edo langabeentzat.



GAUR EGUNGO DANTZA

Maite Albesen eskutik.
Ekainaren 9tik uztailaren 16ra arte.
Astelehenetan eta eguaztenetan,
19:00-21:00.



BITXIGINTZA

Dunixe Royoren eskutik.
Uztailak 3, 10, 17, 24.
Eguenetan, 19:00-21:00.



SUKALDARITZA UDARAKO

Uztailak 1, 8, 15, 22.
Martitzenetan, 19:00-21:00.

Matrikula: 20 euro / 12 euro ikasle edo langabeentzat

Izena emateko: Gazte Bulegoan (943 25 20 65)

gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila ■

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Nothing Whitout:
10 urte skate
zaletasuna lantzen
eta hedatzen > **19**




> **BERGARA**
Bost gunetan
banatuta egongo
da Mundumira
festa > **24**



> **ARETXABALETA**
Kultura Etxe berria
ekainaren 6an
inauguratuko du
Udalak > **31**



> **ESKORIATZA**
Herritar talde batek
IV. Elizateen
Martxa antolatu du
domekarako > **34**



IPURTIKA Eusko Jaurlaritzaren plan horrek Ipurtika ibarbidean -argazkian, markatuta- du eraginik handiena.

ANTZUOLAKO UDALEKO BULEGO TEKNIKOAK

ANTZUOLA > EAE-KO IBIAIAK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO LURRALDE ARLOKO PLANA

Erreka eta ibaiak antolatzeko planak arazoak sor ditzake Antzuolan

ERAGIN EKONOMIKOA
Jaurlaritzako plan horrek Debagoieneko zenbait herritan duen eragina handia da

JASONE ZABALA > ANTZUOLA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak EAEko ibaiak eta errekek antolatzeko Lurralde Arloko Planaren aldaketa publikatu du. Antzuolako kasuan, eta Udalaren arabera, plan horrek herriaren garapen ekonomikoan eragina izan dezake, eta horregatik, Mankomunitatearen bitartez alegazioa jarri du. Jaurlaritzaren plan horrek, besteak beste, zera adierazten du: erreka arroa 1 km² baino handia-

goa den gunetan ezin daitekeela ezer egin: ez etxebizitzarik, ezta lantegi edo pabiloi berririk, e.a.

ERREKARI "ERRESPECTU FALTA"

Plan hori orain egitearen zergatiaren gainean galdetu diogu Valen Moñuxi, Mankomunitateko Hirigintza batzordeko kideari: "Garapen garaietan, 60-70eko hamarkadetan, inongo errespeturik ez zitzaion errekarari, asko eraikitzen zen; orain, aldiz, guztiz kontrakoa gertatzen ari da; hau da, egoera hori guztia oso kontuan hartzen hasi dira. Kontuan hartu behar da Gipuzkoako orografiak asko baldintzatzen duela, eta horri Eusko Jaurlaritzaren plana gehitzen badiogu, ezinezkoa da etxebizitzak eraikitzea, lantegiak haztea..." Antzuolari dagokionez, gune batzuei eragiten die Eusko Jaurlaritzaren plan horrek:

Ipurtikako ibarbidea, adibidez. Gune horretan, ibai arroa goian aipatutako neurria baino handiagoa da; beraz, gune industrialdean bertan egiteko aukera baztertuta gel-

ditzen da, ibai-ibilgua desbideratu beharke litzatekeelako, eta Eusko Jaurlaritzaren planak hori baztertu egiten du. Hala eta guztiz ere, Mankomunitatearen alegazioan,

DEBAGOIENEO BESTE HERRI BATZUK

Eusko Jaurlaritzaren planaren barruan, Oñati, Arrasate eta Bergara ere egongo lirateke

Eusko Jaurlaritzak egindako plan horrek badu eragina Debagoieneko beste herri batzuetan ere. Hauek dira plan horren eragina duten Debagoieneko beste herri batzuk: Arrasaten, esaterako, hiriguneko zati handi batean, San Andres auzoko zati batean, Musakolako industrialdean eta Eroski merkataritza gunean, besteak beste. Oñatin, berriz, Oñati errekariko zati askotan izango luke eragina, unibertsitate hasi eta Zubillagaraino, eta bitarte horretan dauden enpresak ere hartuko lituzke: Cegasa, Ulma Construcción, Hijos de Juan de Garay... Bergaran ere, baina neurri txikiagoan, eragina izango luke ondorengo lekuetan: Labegaraieta lantegian; eta neurri askoz txikiagoan Debagoieneko beste herri batzuetan.

aurreko hori posible izan den adibide bat agertzen da: Astigarragan Oria ibai-ibilguaren aldaketa Abiadura Handiko Trena delata. Plan horrek, bestalde, baztertu egiten du inongo etxebizitzarik edo eraikin berririk egitea; onartzen duen irizpide bakarria leku aldaketa da, eta, noski, hori diru asko da.

ANTZUOLAN ERAGINA

Irizpide horrek Antzuolako gune historikoan izan dezake eragina, baita Kalegoi eta Buztinzuriko eraikin berrietan ere. Goizper lantegiaren kasuan, konplexuagoda da: bertan badago eraiki daitekeen gune bat, baina Jaurlaritzaren planak ez du uzten, Irain errekaratara datozen 10, 100 eta 500 urteetan zehar errekararen ibilbide aldaketan eraginik ez izateko bideratu zuelako bere garaian.

kale inkesta

Odol emalea zara? Odola ematea beharrezkoa da?



Miren Urriategi
Langilea
Antzuola



Pello Zabaleta
Langilea
Antzuola



Patxi Luke
Langilea
Antzuola



Vicente Morais
Langilea
Antzuola



Mari Karmen Hermida
Langilea
Antzuola

Inoiz ez naiz odol emale izan, ez dut inoiz horretan pentsatu; beharrezkoa dela ikusten dut, baina ez dut uste inoiz odol emale izango nintzatekeenik. Familian, aldiz, senarra da odol emalea.

Odol emalea naiz, eta, gainera, aspalditik. Guztira, 26 urte daramat odol ematen. Beste batzuek odol behar badute, lagundu egin behar da, ez dakizu-eta zuri noiz egoki dakizukeen...

Odol emalea ez naiz, baina odola jaso dut, beharra izan dudalako; baina banaiz hezur-muin emalea. Nire ustez, jendea animatu egin beharko litzateke eta emale egin, beharra dago-eta.

Ezin naiz odol emale izan, gaixotasunagatik. Ni gaixo egon nintzenan odol asko sartu zidaten, eta eskertzekoa da. Nire familian, aldiz, semea eta alaba odol emaleak dira.

Normalean, urtean hiru aldiz ematen dut odola. Arazo batzuk direla-eta, sendagileak esan zidan urtean behin emateko. Beharrezkoa da odola ematea; gainera, organo emalea ere banaiz.

5 galdera...

Olga Parra

Anezka jantzi dendakoa
Bergara

1. Jantzigintza eta ebaketa ikastaroa ematen zabilta Bergaran. Zer erakusten duzu?

Hamazazpi ikasle dauzkat ikastaroan, eta bakoitzaren beharretara egokitu naiz. Baxuak hartzen irakasten diet, kremailerak aldatzen, gona baten patroia erakusten diet eta ondoren gona egiten. Josteko makinaren nondik norako guztiak ere irakasten dizkiet, baita diseinua ere.

2. Erraza ala zaila da praktika batzuei baxuak jostea, jantzi baten mahuka konpontzea, kremailerak aldatzea...?

Norberak duen erraztasunaren arabera da guztia. Pertsona bakoitza ezberdina da, eta batzuei gutxiago eta besteei gehiago kostatzen zaie; beraz, dakizunetik hasi behar da, eta horrela, nahi dena lortzeko aukera badago. Eta ezagutza batzuk izanez gero, errazago ikasten da.

3. Zer hartu behar da kontuan jantzi bat egoki egiteko?

Egin behar zaion pertsona horren gorputza ezagutzea lehen-dabizi. Patroi ona eta mozketa egokia edukitzea ezinbestekoa da. Horrekin batera, noski, plantatzen jakin eta makinaz josten ere bai. Hori ondo jakinda, norberak egin ditzake jantziak ere.

4. Jostea emakumeen kontua dela esaten da. Gizonezkoen joan da ikastaroetara?

Bai. Momentu honetan, adibidez, bi mutil dauzkat ikastaroan, eta batek, zehazki, izugarriko erraztasunez prestatzen ditu jantzi modeloak.

5. Ikastaroaren bi egun pasa dira. Bertan parte hartu nahi duenak nora zuzendu behar du?

Bi aukera dauzka bertan apuntatu nahi duenak. Bizikasi programaren bitartez kudeatzen den ikastaroa da, eta nahi duenak 943 76 93 94 telefonora dei dezake, edo bestela Miguel Altuna institutura.



txistuak



GOIENKARIA

Zertarako ipini dituzte piboteak?



Aste honetan bergarar batek bidali digu kexa. Bergarako Matxiategi kalean aspaldi jarri zituzten piboteak zakarrontziak bertan jartzeko. Baina azkenaldian ez dute erabilera hori. Kontuan hartu behar da bertan aparkalekuak ere badaudela, eta orain, autoek aparkatzen duten bakoitzean, piboteen kontra talka egiten dute, eta autoetan matxurak eragin.

asteko datua

60.000

Bergarako udal artxiiboak herriko agiriak kontsultatzeko webgunea sortu du. Webgune horretan 60.000 erregistrotik gora kontsulta daitezke. Bigarren pausoa izango da udal artxiiboan gordeta dauden 23.000 bat argazki eta bideo webgunean kontsultagai jartzea.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

POLITIKA > ARRASATEKO UDALA

Udal lan jarduna ez dela eten nabarmendu du gobenuak

Diote euren "jarduna baldintzatuta dagoen arren", osoko bilkurak egingo dituztela eta haietan parte hartuko dutela, "orain arte bezala"

UBANE MADERA > ARRASATE

Ino Galparsoro alkatearen kartzelaratzek eragin zuzena izan du, jakina, udal jardunean: osoko bilkurarik ez, adierazpen publikorik ez... Badirudi Arrasateko Udala geldi dagoela, eta, hain zuzen ere, horixe da batek baino gehiagok uste duena Arrasaten eta inguruan.

Bada, udal gobernua uste hori zuzendu gura du eta zera adierazi du: "Arrasateko Udalak egunero funtzionamendu arruntaz jarraitzen du, hau da, udal langileek euren jardunean jarraitzen dute aldaketarik gabe. Aldiz, arlo politikoko funtzionamenduari dagokionez, Garzonen autoak, Ino kartzelaratzek gain, udal taldearen funtzionamendua ere baldintzatzen du etete aginduarekin, eta horrek hainbat esparrutan eragiten du. Baina, oro har, tarte horretan moteldu direnak batzorde informatzaileak bakarrik izan dira".

Edozelan ere, horrekin batera, gaineratu dute batzorde informatzaileak ez egiteak ez duela esan gura "egitasmoak edo proiektuak gelditzen direnik". Honelaxe azaldu dute: "Batzorde informatzaileak gaitiaz sakon hitz egin eta informazioa gardentasunez tratatzeko aukera ematen dute. Ondorioz, alderdi bakoitzak iritzia eman dezake eta proposamenak egin eta posible denean adostasuna lortu. Baina batzorde informatzaileak ez dira organo erabakigarriak, erabakiak gobernu batzordean edo udalbatzan hartzen dira gaiaren arabera".

Eta azpimarratu dute bada biltzala eguneroko erritmoa berreskuratzen: "Garzonen autoa segurtasunez interpretatu ahal izateko denbora behar izan dugu, Udaleko nahiz beste instituzio batzuetako zerbitzu juridikoei zailtza ugari sortzen zizkielako; baina esan daiteke Arrasateko

Udala, egunetik egunera, lan erritmo normala berreskuratzen ari dela. Aurrekontua gauzatu jarraituko dugu. Bestalde, jaso dugun elkartasuna -alderdi batzuk, udal langileak eta herritarrak oro har- eskertu nahi genuke. Era berean, adierazi nahi dugu Inoren falta nabaritu egiten dela; baina prest gaude haren hutsunea betetzen saiatzeko; eta, ez dugu ahaztu behar Ino lehenbailehen udaletxera itzul dadin lanean jarraituko dugula eta ziur gaude arrasatearren elkartasuna handia izango dela hori lortzeko. Eta noski, Inori eskerrak eman gura dizkiogu, momenturo erakutsi duen duintasunagatik".

LANEN BANAKETA

Dena den, alkatea kartzelaratzek halabeharrez lanen banaketa beharra ekarri du. Horren gainean zera argitu dute: "Legeak diotenaren arabera, alkateak eginda-

ko izendapenak hark soilik alda edo ezaba ditzake. Beraz, momentuz Inok zeuzkan batzordeak, Pertsonala eta Hirigintza, jarduneko alkate Oihana Aranburuk landuko ditu eta gainontzeko arloek lehengo berean jarraitzen dute".

GUTXIENGOAN, LEHENGO MODUAN

Bestalde, orain arte udal gobernua gutxiengoan bazegoen, gutxiengo hori nabarmenagoa da orain, alkatea kartzelan dagoela. Horri zela aurre egingo dion ere azaldu du udal gobernua: "Legealdi honetan udal gobernua ez du gehien gorik izan; ez lehen EB-Zutik koalizioarekin batera geundenean, ezta ondoren ere. EB-Zutik koalizioak gobernua utzi zuenetik, zapi zingotzi izan gara gobernuko kide; aldiz, alkatea bahitu digutenetik, sei gelditzen gara. Honek zer suposatzen duen? Ba orain arte bezala edozein proiektu edo egitasmo aurrera ateratzeko beste

batzuen adostasuna lortu behar dela; hau da, 11 bozka. Bestalde, aipatu ere, orain arte ere adostasunetara iristeko saiakerak egin ditugula eta hemendik aurrera ere horrela jarraituko dugula".

Horren harira, gaineratu dute beharrezkoak direla gainontzeko alderdi politikoekin harremanak, herriaren onurarako: "Gainontzeko talde politikoekin harremana legealdi hasieratik gaurdaino antzera mantendu dela esan dezakegu, ezinbestekoak dira alderdien arteko harremanak mantentzea Arrasateren alde lanean jarraitu ahal izateko".

Bukatzeko, azpimarratu dute Arrasate "salbuespen egoeran" dagoela: "Argi dago ez dela egoera normala gaur bizi dugun hau. Agerikoa da demokraziaren izenean Euskal Herriari salbuespen egoera inposatzen zaiola eta Arrasaten egoera honen itzala nabarmena da".



Udal gobernua osatzen duten zinegotziak, osoko bilkura batean.

UBANE MADERA

Paraje eder baten kokatua

Razio hotzak ardo bereziarekin dastatzeko aukera bikaina
Bazkaria hasteko beste modu berezi bat

◆ *Menu bereziak aukeran: 18 €*

◆ *Karta*

◆ *Ostiral eta zapatu gauetan, menu bereziak: 28 €*

Arteaga

Landetxea

Arteaga baserria
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel.: 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82

AISSIA > NOTHING WITHOUT MUGIMENDUAREN URTEURRENA

Nothing Without, 10 urte skate zaletasuna lantzen eta hedatzen

Urteurreneko ospakizun ekitaldi nagusia bihar, zapatua, egingo dute: motorzaleendako ibilaldia antolatu dute; eta kontzertua, Taupa taberna kanpoan

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasateko Nothing Without mugimenduak hamar urte bete ditu aurten, eta urteurren horren ospakizunetako bat bihar, zapatua, egingo dute. Bi ekitaldi antolatu dituzte: batetik, motor ibilaldia; eta bestetik, kontzertua.

MOTOR IBILBIDEA

Ibilaldiari dagokionez, 15:00etan da hitzordua, Taupa taberna kanpoan. Ibilbidea honakoa da: Arrasate-Kanpanzar-Elgeta-Eibar-Elgoibar-Azkoitia (mendate zaharretik)-Elosu-Gorla (geldiunea, tragoa eta pintxoak)-Bergara-Arrasate-(barrutik)-Aretxabaleta-Eskoriatza-Arlaban-Landa-Legutiano-Aramaio-Arrasate. "Ibarretik urrun joan barik, inguru oso politak ditugu", adierazi du Hibaí Garaik, antolatzaileetako batek. Gaineratu du edozeinek parte hartu ahal izango duela, baina muga bat ere badagoela: "Scooter txiki-txo batekin ezin dituzte igo behar ditugun mendateak igo. Hortik aurrera, ez dago mugarik, segurua-ekin etorri beharra dago, kasko-arekin eta ondo pasatzeko gogo handiarekin".

Irteeran parte hartu eta Gorlako merienda izateko bost euroko bonua erosi behar du: "Taupa, Ostantz edo Iamai tabernan edo Nothing Without dendan". Horrekin, motorrerako oparien zozketan ere parte hartuko dute.

KONTZERTUAK

Motorzaleak 18:30erako bueltan izango dira Arrasaten; izan ere, orduantxe hasiko dira kontzertuak: "Baicon Maiden eta Cool



Iñigo Bakero, Gorka Zubillaga eta Hibaí Garaik dira Nothing Without-eko bazkideak; argazkian, Otorako dendan.

U.M.

Circus taldeek joko dute, 18:30ean, Taupa kanpoan, doan, herri guztiarendako", zehaztu du Nothing Without saltokiko Hibaí Garaik.

SKATEA OINARRI

Baina zer da Nothing Without mugimendua? Garaik azaldu duen moduan, skatearen zaletasunetik eratorritako mugimendua da: "Lagun batekin, fantzine bat -Nothing Without- egiten hasi ginen, skate eta hardcore munduaren -biak oso lotuta zeudengainean jarduteko. Orain hamar urte, Arrasaten, skatearen inguruan ez zegoen ezer, Txanpa dena egon zenean izan ezik". *Nothing Without* fantzinea sortu eta desagertu egin zen, baina utzi zuen ondarea: "Fantzinea aurrera botatzeko dirua lortzeko *merchandising* egiten hasi ginen. Izan ere, fantzinea geroago eta landuagoa zen: koloretan sartu ginen, publizitatean... Azkenean, fantzinea desagertu zenean, arropa geratu zitzaigun, eta horretxekin jarraitu ginen".

DISEINU PROPIOAK

Eta hortik dator gaur egun Otorako kalean dagoen Nothing Without saltokia. "Arropa lehenengo furgonetan-eta saltzen genuen, modu txarrean. Gero etorri zen denda. Dena den, denda gure gustuko gauzak egiteko izan zen; skateko denda bat ez zegoelako, Nothing Withouteko jantziak genituelako... Guztia batuta pentsatu genuen denda zabaltzea. Orain dela bi urte zabaltu genuen".

Dendan denetarik dute, baina produktuen artean jatorrizkoak ere badira, eurek diseinatutakoak, Hibaíren esanetan: "Saltzen ditugu guri gustatzen zaizkigun gauzak, guk diseinatzen ditugunak. Herrian nahiko indar hartu dute, edo, behintzat, nahiko eza-gunak dira. Dena den, oso zaila da hortik bizitzea".

SINPLETASUNA INSPIRAZIO

Materialari dagokionez, gorpuzaren goiko partera mugatzen dira, momentuz: "Praka kontua ez dugu ukitu. Batez ere, dauzkagu

kirol-jertseak, kamisetak, zirak, poltsa batzuk eta biserak noizean behin. Ahalegintzen gara ahalik eta politenak egiten, eta diferenteak. Guztiz skaterrak izan beharrean, gustatzen zaizkigun gauzak ukitzen ditugu. Dena den, gure logotipoa burezur bat da, eta sartzen dugu gure jantzietan; beraz, horrek ja itxura jakin bat ematen du, *makarrilla* samarra batzuek, oldarkorra. Saia-tzen gara gauza sinpleak egiten; izan ere, askotan sinpleena izaten da politena. Originalak, ez dakit, baina diferenteak badira".

Estiloari dagokionez, hiruko nahasketa bat da: "Bazkideetako bat snowzale amorratua da, beste musika munduan dago sartuta eta neu, berriz, oso motorzalea naiz. Hori guztia nahasten dugu eta hortik irteten dira gure gauzak: logotipoa, grafitiak eta beste".

Bestalde, euren jantziak oparitzen dizkiete hainbat talderi, babesle moduan: skateboard, snowboard eta freeski taldeak babesten dituzte, adibidez.

OBRAK

Ferreriasko plazaren egitasmoa, jendaurrean

Pasabidea ere egingo dute, Erdiko kalea eta Ferrerías kalea lotzeko

U.M. > ARRASATE

Ferreriasko gura duten plazararen aurreproiektua jendaurrean dago. Ekainaren 24ra arte izango da, kontsultak egin eta alegazioak jasotzeko. Behin epea bukatuta eta alegazioak behar bezala aztertuta, behin betiko proiektua egingo dute. Arrasateko Biark Studio dabil horretan.

Plaza berria Casino elkarrearen orube zaharrean eraikiko dute. Horretarako, baina, lehenengo bota egin beharko dute hango terraza (Kuku atzeko eraikina). Plazak 300 m² inguru izango ditu, eta 18 metroko zabalera. Barruko aldean lau lorontzi handi ipiniko dituzte eta lorontzien azpiko aldean jarleku bana, plazara begira. Plazaren albo bietan, berriz -Erdiko kalera begira- harmailak izango dira.

Horrez gainera, Erdiko kalea eta Ferrerías lotuko dituen pasabidea ere eraikiko dute: "Arrapala baten bitartez lotuko ditugu, 1,30 metroko desnibela gainditzeko, aldapa oso samurra izango du eta eskaileratxoak tartekatuko dira", azaldu du Olaia Etxenagusia udal teknikariak.

Dena den, plazak ez du hartuko orube guztia. Orubearen erdialde inguruan izango da; izan ere, plazaren albo banatan Udalak erosita dauka orubea, "udal ekipamenduetarako bi eraikin egin ahal izateko, baina hori ez da oraingo proiektuan sartzen".

Edozelan ere, momentuz Ferreriasko plazaren proiektua besterik ez dute egingo: "Aurtengo aurrekontuetan ez dago aurreikusita obra hori; noiz egin politikariek erabaki beharko dute".

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

AGR

García Ripe

ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi

ILE APAINDEGIA
Otorako Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74



Iazko San Juanetako makalaren igoeraren irudi bat.

GOIENKARIA

JAIK > SAN JUANAK

Sekula baino egun gehiago daude aurten herriko jaiak ospatzeko

Ekainaren 14 eta 15eko asteburuaz gainera, San Juan jaiak ekainaren 20an hasiko dira eta ekainaren 26an bukatuko dira aurten

UBANE MADERA > ARRASATE

San Juan egunerako hilabete gertzen da, eta Udala buru-belarri dabil herriko jai nagusiak antolatzen, eta ekitaldi ugari dagoeneko erabakita eta lotuta dituzte. Gainera, aurten, herritarrez osatutako Jai batzordearen laguntzarekin, ahalegin berezia egingo dute sanjuanak indartzeko. Eta, jakina, herriko taldeekin lantzen dabilen elkarlan horrek jaien egitarauan isla izango du. Hala adierazi du Izadi Mondragonek, Kultura Saileko arduradunak.

Hasteko, jaiak azkeneko urteotan baino luzeagoak izango dira: ekainaren 14an eta 15ean izango dira aurreneko ekitaldiak (Haurren Danborrada eta Haur Danzari Eguna, besteak beste), eta

ekainaren 20an (egubakoitza) segituko dute ospakizunek, ekainaren 26ra arte (eguna).

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Jaiegunak luzatzeaz gainera, herritarrek kanpora joan ez daitezen jaiok erakargarriago egiten ere ahaleginu dira, bereziki aurreneko asteburuan: "Adibidez, ekainaren 21ean, zapatua, txosna-gunean zein Arrasaten, oro har, gazteendako ekitaldi mordoak izango dira: bazkaria, kontzertu indartsuak... Horrez gain, herritar guztiei begira, kale giroa indartu guran, antzerkiak eta beste antolatu ditugu".

Bestelako berritasun batzuk aipatzearen, makalaren igoeraren ostean egin ohi den herri

bazkaria Saran egin beharrean gaztetxean egingo dute, herriko txaranga batek lagunduta, gainera. Eta gaztetxetik mugitu barik, ekainaren 22rako, adibidez, film laburren saioa antolatu dute.

PIRRITX ETA PORROTX

Eta bestelako ekimenik ere bada aipatzeko moduan: adibidez, ekainaren 24an herriko taldeek kontzertuak joko dituztela; ekainaren 25ean, Haurren Egunean, Pirritx eta Porrotx pailazoak etorriko direla Monterronera eta pilota partidak ere izango direla, zehazteko dagoen egunen batean.

Oro har, jaiak antolatzen "gustura" dabilzala aditzera eman du udal zinegotziak, eta eurak eta Jai batzordea badabilzala ahalegina egiten jaiak indartzeko, baina horretarako "jendearen erantzuna" beharrezkoa dela azpimarratu. Era berean, gaineratu du "ahaleginduko" direla "Inoren falta presente" izan dadin jaietan.

IKASTAROA > OLIO DASTATZE IKASTAROA

Olioaren zapore guztiak aterako dituzte Kulturaten

Maiatzaren 28 eta 29ko olio dastatze ikastaroa aukera paregabea izango da olio mota ezberdinak ezagutzeko

NEREA MENOR > ARRASATE

Maiatzaren 28an eta 29an olio dastatze ikastaroa egongo da Arrasateko Kulturaten. Aurreko urtean Bergaran egon zen eta jendea "oso gustura" geratu zela esan zigun ikastaroaren antolatzaile Jexux Agirrek: "Harrera bera espero dugu Arrasaten".

Jaengo bi pertsonak emanago dute ikastaroa. Olio egiteaz gainera, kontseilu erregulartzaile bateko partaideak dira eta askotan hartzen dute parte nazioarteko olio dastatze lehiaketetan, epaile.

OLIOA EZAGUTZEN

Ikastaroen helburua olioaren mundua pixka bat ezagutzea da. "Jendeak olio birfinduaren eta birjina estraren arteko ezberdintasuna ezagutzea nahi dugu, olio mota ezberdinak daudela irakatsi nahi diegu", dio ikastaroaren antolatzaile Jexux Agirrek. Olio elikaduraren

barruan dago eta oso garrantzitsua da dietan.

Olio birjina estraren dastatzea egingo da ikastaroan. Horretarako, kopa urdinetan jartzen dute olioak: "Koloreak ez du dastatzaileen erabakietan eraginik izan behar", dio Agirrek. Ondoren, esku artean hartu eta epeldu ondoren, usaindu egin behar da. Horrela, olioaren belar, tomate eta fruta usainak igarriko dituzte ikasleek. Amaitzeko, dastatu egiten da, eta, olioaren arabera, garratzagoa, gozoagoa edo mingotsagoa izango da.

Lehenengo egunean lau olio dastatuko dira eta bigarrenegun beste lau pabost. Ondoren, olio on bati esentziaren bat botako diote olio txarra bihurtu eta on eta txarren arteko ezberdintasuna irakasteko.

OLIO DASTAKETA

> 1. PAUSOA: EPELDU

Olioaren kolorea ez ikusteko kopa urdinetan sartu eta eskuen artean epeldu.

> 2. PAUSOA: USAINDU

Fruta eta belar usainak igarri.

> 3. PAUSOA: DASTATU

Garratzagoa, gozoagoa edo mingotsagoa izango da zaporea.

> MUSIKA

Funk House Festa izango da bihar Acido C, THC eta Alain disko-jartzaileekin, 3.60 aretoan

Bihar, 23:00etan, Funk House Festa ospatuko da 3.60 aretoan. Donostiako Acido C izango da gaueko talde nagusia, DJ Alain (Electronische) eta THC disko-jartzaileek lagunduta.

Acido C bederatzi kidez osatuta dago. Ohiko gitarraz edo bateriaz gain, tronpetak eta saxofoiek leku garrantzitsua dute talde gipuzkoar horren musikan. Estilo ezberdinen nahasketa da taldea, disko, funk eta soul influentziak dituen musika egiten dute, eta arrakasta duela dirudi. Bihar Arrasaten joko dute, hurrengo asteburuan Ondarroan egongo dira eta irailera arte kontzertu asko emango dituzte Euskal Herrian eta Euskal Herrikan kanpo. Izan ere, Madrilgo Sol aretoan izango dira ekainaren 26an.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.

Tel.: 943-71 21 41

Faxa: 943-71 21 40

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua

Espezialitateak:

legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

ASTE BERDEA Arrasate

Maiatzak 26tik 31ra

Maiatzak 26 (Asteartea)

19:00 – KulturAten (Areto nagusian).

Filma: Crudo despertar
(petrolioaren amaierari buruzko filma, Suitza 2007)



Maiatzak 28 (Asteazkena)

19:00 – KulturAten (Areto nagusian)

Filma: Los ojos Cerrados de America Latina (latina-merikako egoera: petrolio, mehatzeak, bioerregaiak...)
Argentina, Eduardo Galeanoren "Latinamerikako zain irekiak" liburuan oinarrituta.

Maiatzak 29 (Osteguna)

19:00 – KulturAten (Areto nagusian)

Filma: Soberania violada (Bioerregaiak-Paraguayko egoeraren dokumentala)

Hizlaria: Gilda Roa, MAP

(Movimiento Agrario y Popular – Paraguay)

Dokumentalaren ostean solasaldia egonda da.

Maiatzak 31 (Larunbata)

Goizean – 11:00 – 14:00

Arratsaldean – 17:00 – 20:00

Katrakak konpainiak antolatuta birziklatutako gaiekin egindako jostailuen erakusketa.

Tailerrak eta jolasteko aukera izango da.



arrasate musikal

Matrikulazio epea zabalik:

*Maiatzaren 19tik
ekainaren 20ra.*

Berritasunak:

- *Harmonia modernoa*

4 urtetik aurrera

Helduentzako eskolak

Balleta



ATLETISMOA

Gipuzkoako txapelketa asteburuan Anoetan

X.U. > ARRASATE

Kadete mailatik hasita, Gipuzkoako atletak Anoetan izango dira bihar eta etzi Gipuzkoako Txapelketa absolutuan esku hartzen. Horrekin batera, alebin mailan eskola arteko txapelketak izango dituzte Zumarragan.

MADRILEN LAUGARREN

Joan den asteburuari dago-kionez, Jonathan Perez (Real Sociedad) laugarren sailkatu zen Madrilen. Arrasatekoak 4,90 metroko saltoa egin zuen pertika jauziarekin. Lander Errastik, berriz, ezin izan zuen parte hartu, lesionatuta dagoelako.

Bestalde, Alacanten egindako txapelketan, Bidasoako taldean lehiatzen diren Maialen Axpe eta Lore Mar bigarren eta hirugarren sailkatu ziren, 2,80 metroko markarekin. Debagoienarrek askoz ere marka hobea dute -Axpek, esaterako, 3,21 metroko marka dauka-, baina ez ziren ondo moldatu jauzi handiagoa egiteko pertigarekin.

Oihane Urtzelai, berriz, hirugarrena izan zen 100 metroko hesien lasterketan, eta 4x100 metroko errelebotan ere lan oso ona egin zuten, bigarren sailkatuta.

> BESAIDE

Ekainaren 1ean egingo duten irteerako izenematea

Ekaina mendi irteera batekin estreinatuko du Besaidek. Izan ere, hilaren 1ean, domeka, Nafarroa aldera egingo dute. Lizarragako mendatetik hasi eta San Donatotik igaro eta gero Unanura jaitsi eta handik Arbizura egingo dute. Irteera horretara joan gura duenak datorren astean eman ahal izango du izena, hilaren 26an, 27an eta 28an (19:30etik 20:30era).



DERBIA Mondraren eta aurten iguera fasean ibili den BTLSen arteko derbiko irudia, iaz, Atxabalpen.

GOIENKARIA

FUTBOLA > KOPAKO FINALA ETA BIGARREN ERREGIONALA

Mondrako neskek Amara Berriren kontra jokatu dute finala

"Iguera fasetik kanporatuta, amorrutaz jokatu dutelako sailkatu dira finalera", esan du entrenatzaile lanetan dabilen Iñigo Zabalok

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Zabaloren eta Txisko-ren neskek ibilbide luzea egin dute Kopako finalera sailkatu arte. Eta, asteburuan izango dute saria (domekan, 12:00etan, Deban) Amara Berriren kontra jokatu dute eta finala. Hasiera batean, iguera fasera sailkatzea zen Arrasa-

tekoek zuten helburua, eta hor hartu zuten denboraldiko kolpe gogorra. Etsipena gaindituta, Kopan kontzentratu zituzten gogoak, eta finaleraino iritsi dira: "Denboraldia ez da batere erraza izan, lesioak tarteko edo jokalarri batzuek futbola utzi dutelako askotan justu-justu ibili garela-

ko; horregatik, meritua bikoitza dela uste dut. Taldekideak iguera fasera sailkatu ez zirenean amorratu egin ziren, eta nik uste horrek motibatu dituela Kopan". Zabalok Mondrako nesken taldea zelakoa den ere azaldu du: "Hain zuzen, inor nabarmendu barik aurten talde moduan egin duten lana izan da azpimarragarriena".

AMARA BERRIREN GAINEAN...

Mondrako neskek defentsa sendoa dute, baina lehenengo lerrotik hasita, zuri-moreak behetik jokatzeko ahalegintzen dira: "Hegalak ere asko erabiltzen ditugu, gol asko egin ditugu hegaletik barneratuta, eta finalean ere gure joko inposatzen ahalegintzen beharko gara. Amara Berri ere kalitate oneko taldea da; akaso, fisikoki gu baino sendoagoak dira".

SOKOA AZKARATE

Gainera, Kopako finalak beste osagai bat ere izango du, urte mordea Mondrako atea defendatzen ibili eta gero, baliteke domekako Sokoia Azkarateren azken norgehiagoka izatea. Azkaratek Real du atzetik.

futbitoia zaldibar

EMAITZAK

Cipris-Iritzu Taberna	3-3
AT Celaya-Abokajarro	6-1
Cicatrús-HLB 108	2-3
Saukelu Abian-THC	1-0
Mc Awen Dauen-Lasagabaster	7-1
Iluntz-Equs	0-1
Dublin Irish Pub-Iturriotz Taberna	7-2
Dribling-Ekaintz Taberna	1-0
Betrayer-Kalapaxak	6-3
Cipris-Cicatrús	6-3
Saukelu Abian-AT Celaya	3-1

PARTIDUAK

Maiatzak 24, zapatua	Epaileak
10:00 Betrayer-Iturriotz	Iritzu Taberna
11:00 Iritzu Taberna-Cicatrús	Betrayer
12:00 HLB 108-Mc Awen Dauen	Cicatrús
13:00 AT Celaya-Cipris	Antolatzaileak
16:00 Total Disaster-Bar Kokots	Dribling
17:00 Dribling-Equs	Bar Kokots

Maiatzak 25, domeka	Epaileak
11:00 Dublin Irish-Lasagabaster	Kalapaxak
12:00 Bar Kokots-Kalapaxak	Lasagabaster
13:00 Saukelu Abian-Abokajarro	Bar Kok.

SAILKAPENA

	P	J
1. McAwen Dauen	49	18
2. Dribling	38	18
3. Lasagabaster	35	18
4. Cipris	35	18
5. Betrayer	34	18
6. Dublin Irish Pub	34	18
7. HLB 108	34	18
8. Saukelu Abian	32	18
9. AT Celaya	31	18
10. Iritzu Taberna	29	18
11. Kalapaxak	29	18
12. Abokajarro	20	18
13. Iturriotz Taberna	20	18
14. Equs	19	18
15. Cicatrús	15	18
16. Bar Kokots	15	17
17. Total Disaster	9	17
18. Iluntz	-	-
19. Ekaintz Taberna	-	-
20. THC	-	-

AT Celaya eta Saukelu Abian, zortzigarren sailkatzeko lehian

Oraingo asteburuan jokatu dute Zaldibarren lehenengo faseko azken jardunaldia. Horrek esan gura du lehenengo zortzi sailkatuek aurrera egingo dutela txapelketan, eta gainontzeko taldeek aurtengoz amaituta izango dutela denboraldia. Hala, bi talderendako jardunaldi erabakigarria izango da, AT Celaya eta Saukelu Abian dabilta eta hurrengo faserako txartela ematen duen zortzigarren postuagatik borrokan.

Sailkapenean, Saukeluk puntu bateko abantaila du, baina abantaila txikia da. Abokajarroren kontra jokatu dute horiek, domekan, 13:00etan. AT Celayak, berriz, kontrario gogorragoa izango du, laugarren sailkatuta dagoen Cipris.

Horrekin batera, ikusteko dago McAwen Dauen taldeak datorren fasean orain arteko moduko nagusitasuna erakusten duen.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 79 78 14
ARRASATE

Arrasatearrak kanpoan

Mikel Arkauz > Musikaria
Txilen bizi da

"Txileko jendea lasaitasun handikoa da; gehiegizkoa"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Mikel Arkauz pasa de martxoan joan zen Txilera; zehazkiago, Santiagora, hiriburura. Bertan, Orkestra Filarmonikako partaidea da, eta tronboia jotzen du. Santiagon ederki bizi dela onartu digu, jantzia oso gozoa dela, eta jendea ere, oso jatorra.

Mikel Arkauzek Rotterdamen musika ikasi zuen; Hannoverren graduondoa atera eta Santiagoko Orkestran sartzeko probak Londresen egin zituen. Berak dioen moduan: "Aukera ezin hobe iruditu zitzaidan Txilera etortzea; bidaiatu, beste kultura

bat ezagutu eta lan egiteko; ez da erraza gaur egun orkestra batean lan egiteko aukera edukitzea". Teatro Municipal delakoan egiten du lan Mikel Arkauzek, "bertan kontzertu sinfonikoak, opera eta balletak aurkezten ditugu". Mundu guztiko pertsoez osatutako orkestra da Santiagokoa.

"Fruta eta barazkiak gozoak dira, baita okela eta arraina ere. Hemengo ardoak ere badauka bere ospe ona"



Mikel Arkauz.

JENDE ASKO ETA KUTSADURA

Santiago hiri oso handia da; "jendez eta autoz beteta daude beti", adierazi du Arkauzek. Kutsadura ere nabarmena dela adierazi digu: "Euririk egiten ez badu, inguruko mendiak ikustea zaila izaten da, dena behelaino antzeri egoten baita". Hiriburutik irtenda, baina, guztiz aldatzen da dena: "Eskiatzeko pistak ordu bat eta erdira daude, eta kostalderantz, hondartzak, denbora berera", dio Arkauzek.

Santiagoko jana gustuko du Arkauzek: "Fruta eta barazkiak gozoak dira, baita okela eta arraina ere. Hemengo ardoak ere badauka bere ospe ona, eta ondo irabazitako ospea, gainera". Bertako jendea oso jatorra da, eta "lasaitasun handikoa; gehiegizkoa", Mikel Arkauzen arabera. "Euskal Herriko jendearengandik ezberdintzen duen gauza nabarmenena hori da, gauzak presa gabe egiten dituztela". Arrasatera bueltatzeko asmoa badauka, baina oraindik Txilen bizi duenaz disfrutatuko du.

bere ustez



Zuriñe Velez de Mendizabal

Zikindu ditzagun ibaiak!

Zaborrak. Plastikoa, oiha-lak, kartoiak... Denetarik sortzen dugu eta denetarik bota. Horietariko askok zabor arrunt izaten amaituko dute. Beste batzuek, aldiz, bizi berri bat edukiko dute, formaz aldatuko dira eta baliagarri izango zaizkigu etorkizun batean.

Ados, geroz eta gehiago birziklatzen dugu. Baina egia da baita ere gauza ugari ez direla behar diren tokian uzten. Norke ez die gure erreka bazterrei arretarik ipini? Denetarik aurki genezake bertan; eta ni

txutxu-mutxua

Zahar Berri eta Berriketaren taldeetan dabilzanak, mendi irteera Irukurutzetara

Asteburuan, maiatzak 17an, mendi irteera egin zuten Zahar Berri eta Berriketaren taldeetan dabilzanak, mendi irteera Irukurutzetara egin zuten mendi irteera. Arrasate eta Bergarako 11 lagun inguru batu ziren mendi buelta horretan. Mendi buelta ederra egin zuten, betiere, euskara hizketa lagun zutelak. Irukurutzetik buelta egin ostean, Elosuko elkartean hamarretako ederra egin zuten, galdutako indarrak berreskuratzeko. Bapote ondoan, 14:00ak aldera etxera bueltatu ziren.



BERRIKETAN

"Erreketako ura garden gura dugu, eta hori lortzeko araztegiak jartzea ondo iruditzen zait"

neu, behintzat, lotsatu egiten naiz nolako baldintzetan dauden ikustean. Erreketako ura garden gura dugu, eta hori lortzeko araztegiak jartzea ondo iruditzen zait... Baina itxura eskasa ematen dute txukundu gabeko zonaldeek eta baita erreken ibilbidean topatzen ditugun makina bat zakarrek. Hau kuxidada! Badiurdi kontzientzia piztu zaigula lurrera zikinkeria botatzearen inguruan. Baina ez da gauza berbera pasatzen izkintan amaitzen duten gauzekin. Arrasateetik pasatzen den Aramaio erreka, edota Deba ibaira gerturatzen bagara, aski erraz ikusi ahalko dugu urbazterren egoera tamalgarrria. Ez dugula egoera aldatu gura? Ba jarraitu dezagun ibai inguruak zikintzen! Ze demontre!

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

kapikua
OPARIAK ETA OSAGARRIAK

Bañez doktorea 4
(San Andres auzoan)
Arrasate
Tel.: 943 79 19 94

MUNDUMIRA > MUNDUKO KULTUREN FESTA

Erdiguneko bost gunetan egingo dute Mundumira festa

Seminarioan, Iargarai kalean, plazan eta pilotalekuan jarriko dituzte karpak

Autokarabanak eta aparkalekuak herriko ikastetxeetako patioetan egongo dira

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Hamabost egun barru ospatuko da Bergaran aurtengo Mundumira jaialdia. Programa zehaztuta dago, eta herriaren antolamendua ere bai. Aste honetan, plazako agertokia muntatzen ibili dira, baina gainerako gune eta karpa erraldoiak Mundumira bezperako egunetan jarriko dituzte, ekaineko lehen astean.

BOST GUNE

Bost gune nagusi egongo dira Mundumira jaialdian: "Seminarioa bitan banatuko dugu. Autobus geltokiaren aldera dagoen zatian mendi azoka eta Gobernu Kanpoko Erakundeen postuak egongo dira. Beste aldean, berriz, jakien postuak eta kale antzerkia egongo dira, besteak beste", argitu du Enara Minguezek, Kultura zinegotziak.

Gune guztiak Seminarioan eta herriko plazaren inguruan egongo dira. "Hirugarren gunea Iargarai kalea bera izango da. Artisau postuak egongo dira han ikusgai; toki askotariko 40 postu inguru, guztira. Laugarren gunea frontoia izango da. Oreak TX taldeak *Nomadak* izeneko azken lana aurkeztuko du pilotaleku barruan. Zortzi emanaldi egingo ditu taldeak guztira. Eta bosgarren gunea San Martin Agirre plaza bera izango da. Gune hartan gainerako ekitaldi guztiak egingo dira", jarraitu du jarraitu du Minguezek.



Plazako agertokia udaletxearen kontra muntatu dute, normalean egoten den tokiaren parean.

OIHANA ELORTZA

Plazako guneari lotuta, hango agertokia herriko jaietan erabili duten bera da, baina tokiz aldatu dute. Mundumiran udaletxearen kontra egongo da agertokia, ez Seminarioaren kontra,

normalean egoten den moduan. Seminarioko gunetik datorren jendeak plazako agertokia aurrez aurre ikustea gura izan dute antolatzaileek, eta horregatik aldatu dute tokiz.

Bestalde, jakien azoka Domingo Irala kalean egitekoak ziren hasieran, baina azkenean erabaki dute ezer ez egitea kale horretan, prestaketa horiek kaleko lanak atzera ditzaketelako.

EGITARAUAREN BARRUAN

Kriket partidua, irteerak eta beste

Musika emanaldiak, azokak, haurren txokoa, kalejirak, ikus-entzunezkoak, mendi bizikleta zeharkaldia, kriket partidua eta ibilaldi kulturalak zein mendi irteerak antolatu dituzte aurtengo Mundumira jaialdirako.

Kriket partidua, adibidez, herriko DBHko ikasleen eta pakistandarren artean jokatu dute ekainaren 7an, zapatua, Agorroingo gunean. Gaztetxoek domekan dute entrenamendua, igerilekuko berdegunean; pakistandarrek izango dira entrenatzaileak. Bestalde, ibilaldi kulturalak eta mendi irteerak ere antolatu dituzte, baita mendi bizikletako zeharkaldi bat ere. Horietan guztietan parte hartu gura duenak aurrez eman behar du izena telefono zenbaki hauetako baten: 943 79 64 63 edo 902 18 14 71. Jaialdia Debagoieneko Mankomunitatearen eskutik antolatu dute laugarrenez eta ibarreko elkarte askok hartu dute parte: Lokatza, Pol-Pol edo Felix Iñurrategi Baltistan fundazioa, besteak beste.

APARKALEKUAK IKASTETXEETAN

Aurtengo Mundumiran ere autobus zerbitzua eskainiko dute Bergararik kanpo bizi direnendako: "Asmoa da linea bat jartzea Elorriotik Bergarara, Elgetatik bueltan, eta bestea Antzuolatik Zumarragara, hara trenez doazanak Bergarara heltzeko. Egunez eta gauzez jarri gura ditugu zerbitzu horiek", dio Kultura zinegotziak. Hala ere, herriko ikastetxeen jolaslekuak autoendako aparkaleku moduan erabiliko dira. Autokarabanen kontzentrazioa Martinez Irala erakinaren patioan egingo dute. 50 inguru etorriko dira asteburu osorako.

> JAIK

'Egileor' izango dute gogoan Elosuko Otaba jaietan

Jesus Alberdi *Egileor* izango dute gogoan Elosu auzoko Otaba jaietan. Hain zuzen ere, domekan bertso bazkaria egingo dute elizpeko sagardotegian, eta tartetxo bat eskainiko diote *Egileor*-i. Narbaitza eta Gorrotxategi bertsolariak eta Lutxurdio eta Aitziber trikitilariak girotuko dute bazkaria.


Elosuko Otaba jaiak zapatuan hasiko dituzte. Herrenen lasterketa eta erromeria egongo dira, besteak beste. Domekan, puzgarriak eta herri kirolak ere egongo dira, bertso bazkariak gain. Larretxea, Nazabal, Goenatxo II.a eta Elosukorta etorriko dira. Jaiak bukatzeko, auzo afaria egingo dute astelehenean.

> EUSKARA

'Apatxi' aleen bilduma banatuko dute eskoletan

Apatxi aleen bilduma argitaratu du Udaleko Euskara Zerbitzuak. 2007an kaleratutako aleen bilduma da eta herriko eskoletan banatuko dute, haurtzaindegietan, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. Hala ere, aleren bat gura duen herritarrek Udaleko Euskara Zerbitzuan eska dezake.

Apatxi gehigarria *Gehixago* eta *hobeto* programaren barruan sortutakoa da eta GOIENKARIAN txertatuta banatzen da hilean behin.



Apatxi-ren azala.



margo industrial
margo orokorra
margo dekoratiboa
erreformak orokorrean
fatxadak

Sagasti auzoa 5-3D • ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 13 • 665 73 39 55 • 687 57 07 77


ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



Martitzenean egin zuten aurkezpena. Irudian, Arantzazu Oregi eta Mikel Elkoroberezibar, artxiboko beste langileekin. JASONE ZABALA

WEBGUNEA > UDAL ARTXIBOA

Martxan da Udal Artxiboko webgunea

Edozeinek artxiboan dauden dokumentuen gaineko kontsulta egin dezake ondorengo helbide elektronikora sartuta: 'bergarakoartxiboa.net'

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Bergarako Udal Artxiboak webgunearen aurkezpena egin zuen pasa den martitzenean. Bertan egon ziren, besteak beste, Arantzazu Oregi, Udal Artxiboko arduraduna, eta Mikel Elkoroberezibar, Ondare, Turismo eta Informatika zinegotzia.

EUSKAL HERRIAN LEHENA

Euskal Herrian webgunea duen lehen udal artxiboa da Bergarakoa. Guztira, 60.000 erregistrotik gora daude webgunean, kontsultatu nahi duenarentzat. Hori lehenengo pausoa izan da, Arantzazu Oregi Udal Artxiboko arduradunaren esanetan: "Webgunea hau sortzea lehen pausoa izan da; horrekin ahalbidetzen dugu herrian dugun artxibo historikoa edozein lekutatik kon-

tsultatzeko aukera izatea". Webgunea horren egilea Eibarko Codesyntax enpresa izan da. Aurkeztu berri den webgunea horretan, ez da moldaketa berririk egingo aurten, baina datoren urteari begira, orain kontsulta daitezkeen dokumentuez gain, Udal Artxiboan dauden 23.000 argazki eta zenbait bideo ere sartu nahi dira; hori bigarren pausoa izango litzateke. Oregik hauxe adierazi du: "Datu base gehiena gazteleraz dago, dokumentu gutxi dira euskaraz daudenak; beraz, bilaketa egin nahi duenak euskaraz sartzen baldin badu bilatu nahi duen hitz hori, eta horri buruzko informazioa dagoen dokumentua erdaraz bakarrik baldin badago, bilaketa horri dagokiona gazteleraz pantailaratuko da".

ESKAITZEN DITUEN AUKERAK

Behin *bergarakoartxiboa.net* webgunera sartzean bilaketa ezberdinak egin daitezke. Alde batetik, sarrera. Horrek, Udaleko fondoez gain, dauden beste fondo batzuk erakusten dizkigu, hala nola Errege Mintegia, parrokietako artxiboak, eskribautzak... Bakoitzaren dokumentazioa kontsulta daiteke.

Webgunearen aukeren artean, beste bat bilaketena da. Bilaketa orokorra, aurreratua eta zehatza egin daiteke. Toponimia, onomastika, jarduerak, baliabideak *on-line*, albisteak eta Udal Artxiboarekin harremanetan jartzeko bideak dira webgunean aurki daitezkeen beste aukera batzuk. *Baliabideak on-line* atalean, adibidez, 1527tik 1849ra arte Bergarako alkateen zerrenda aurki daiteke; baita 1850etik aurrera egon ziren udal eraketak ere. Informazio orokorrean, Udal Artxiboaren helbidea eta ordutegia dago ikusgai.

EUSKARA > JOLASLEKU IBILTARIA

Jardunen jolasleku ibiltaria frontoian egongo da gaur

Hiru egubakoitzetan egingo dute, ume eta gurasoekin jolas egiteko

tutako hori: "Helburua da gurasoak ere etortzea, ahozko transmisioa egon dadin guraso eta umeen artean", jarraitu du Mendizabalek.

OLINPIADAK MARTXAN

Bestalde, dagoeneko abian dira Jardunek azken zortzi urteetan antolatu dituen gaztetxoeren arteko olinpiadak ere. Lehen Hezkuntzako, 9 eta 12 urte bitarteko, umeendako olinpiadak dira. Aurten, bederatzita taldek hartu dute parte, 60 haur inguruk, hain zuzen ere.

Olinpiadetan proba ezberdinak gainditu behar dituzte gaztetxoek: herri kirolak, bolo, toka eta igela, igerilekuko probak eta Jarduntxioren jolasa. Bihar, zapatua, adibidez, igerilekuko probak izango dituzte Agorrosinen. Bolo, toka eta igel jolasak San Joxepe elkartearen egingo dituzte eta Jarduntxioren jolasa, Muniben.

Olinpiada horiek irabazten dituen taldea Gamarrako igerilekura joango da.



Umeak jolasleku ibiltarian.

JARDUN

> **DIPLOMA BANAKETA**

Gerontologiako laguntzaile diploma jasoko dute 32 lagunek Sierbetako egoitzan, bihar

Gerontologiako laguntzaile diploma jasoko dute 32 lagunek bihar, zapatua, Sierbetan. Adinduei eta gaixoei laguntzako formazioa jaso dute urtebetez ikasle horiek eta diploma jasoko dute orain. Formazioa Caritasek eta Madrileko erakunde batek antolatu dute hirugarren urtez. 17:00etan izango da titulazio banaketa.

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29




altzari denda
ikerleku zeharbidea · bergara
tel.: 943 03 46 30


UGARTE
AROSZTEGIA · ALTZARIAK



arotz lanak orokorrean
leihoak
ateak
horma-armairuak



erakusketa eta tailerra
san juan 1a · bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04

Unai Ziarsolo izan da herriko onena zuri-beltzeko kategorian, *Metro* izenburuko lanarekin.

UNAI ZIARSOLO

ARGAZKILARITZA > 24. BERGARA HIRIA ARGAZKI LEHIAKETA

Fernandez Ferreras eta Iglesias, Bergara Hiriko irabazleak

Jose Agustin Gurrutxaga eta Benito Cantero bigarren zuri-beltzean eta koloretan

246 argazki jaso dituzte eta lan onenak gaurtik ikusgai izango dira Aroztegi aretoan

EDU MENDIBIL > BERGARA

Berangoko Javier P. Fernandez Ferreras (zuri-beltzean) eta Iker Iglesias aretxabaletarra (koloretan) izan dira Bergara Hiria lehiaketako 24. edizioko irabazleak. Fernandez Ferrerarak *Cala* izenburuko argazkiari esker lortu

du lehen saria eta Iglesias *Maximo* lanarekin nagusitu da. 246 argazki jaso dituzte aurtengo ekitaldian, 130 koloretan eta 116 zuri-beltzean. Luis Madinak (Elo-rioko Argazkizale Taldea), Isabel Diezek (Gipuzkoako Argazkilari Taldea) eta Ubaldo More-

no argazkilariak osatu dute epaimahaia. Gainerako sarituak honako hauek izan dira: zuri-beltzean Jose Agustin Gurrutxagak eraman du bigarren saria (*Laino artean* lanarekin); Josu Garai legazpiarrak hirugarrena (*Tarifa I*) eta Bergarako onena Unai Ziarsolo izan da (*Metroa*). Koloretan, Benito Canterorentzat izan da bigarren saria (*Izotza*); Fernandez Ferrerarak hirugarrena eskuratu du (*Stop*) eta herriko onena, azkenik, Gurrutxaga izan da (*Poesía blanca*).

Sari banaketa ekitaldia hurrengo egubakoitzean, hila-

ren 30ean, egingo dute Aroztegi aretoan, 20:00etan.

ERAKUSKETA, GAURTIK

Bestalde, gaurtik, egubakoitza, erakusketa jarriko dute ikusgai Barrenkaleko Aroztegi aretoan bertan. Lehiaketara aurkeztutako 44 lan jarriko dituzte, ekainaren 1era arte. Aroztegi ondoko ordutegian izango da zabalik: martitzenetik egubakoitza 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta, azkenik, domeketan goizez, 12:00etatik 14:00etara.

JAIK > MAIATZEKO ERROMERIAK

Gazte-Alai dantza taldea eta Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak daude gaur Muniben

Datorren egubakoitzerako herri-afaria antolatu dute Munibe plazan, amaiera modura

E.M. > BERGARA

Maiatzeko erromerien egitarauarekin jarraituz, gaur, egubakoitza, Gazte-Alai dantza taldeak saioa eskainiko du Munibe plazan, 20:30ean hasita. Ondorengo erromeria Ansorregi eta Larrañagak alaituko

dute. Antolatzaileek dei egiten diete herritarrei gaur Munibe-
ra hurbiltzeko.

Herriko giroa piztea eta dantza bultzatzea da antolatzaileen asmoa. Dagoeneko hirugarren urtez gertatu dute egitaraua eta bultzatzaileak pozik dira jasota-

ko erantzunarekin. Giro polita sortu zen aurreko egubakoitzean Muniben. Moiazpi dantza taldeak eta Unsain anaiek jardun zuten joan den astean.

AFARIA EGUBAKOITZEAN

Udaberriko egubakoitzetan herri giroa alaitzeko asmoz, hiru hitzordu antolatu dituzte eta azkena hurrengo egubakoitza (maiatzak 30) izango da.

Egun horretarako egitarau berezia prestatu dute: 20:30ean Bergarako trikitilariarekin kalejira izango da eta ondoren haiek alaituko dute erromeria.

Azken urteotan ohikoa bilakatu denez, herri afaria egingo dute azken egunean egitarauri amaiera emateko. Munibe plazan izango da afaria eta dagoeneko izenematea zabalik dago. Interesatuak kultura etxera edo Jardun elkartera jo dezakete argibide eske. Afalostean erromeria izango da hurrengo egubakoitzean: Izer, Alabier eta Lutxurdiorekin izango da dantzan egiteko aukera, Munibe plazan.

> LANDARETZA Jose Antonio Aperribairen erakusketa

Jose Antonio Aperribaik *Euskal Herriko landaretza* izenburuko erakusketa zabalduko du astelehenean, hilaren 26an, kultura etxean, Errotalde jauregian. Aperribaik betidanik izan du landareekiko zaletasuna. 1.000 landare-siku inguruko bilduma du eta martxoan lokala zabaldu zuen Koldo Eleizalde kaleko 6. zenbakian, jendeak hosto edo zuhaixken gaineko kontsultak egiteko aukera izan dezan.

Kultura etxeko erakusketaren ordutegia honako hau izango duzue: asteleheneetik egubakoitza 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan, berriz, goizez izango da zabalik, 12:00etatik 14:00etara.

> HITZALDIA Udan merke bidaiatzeko hitzaldia gaur, Kultura Etxean

Uda honetan merke bidaiatu nahi? izenburuko hitzaldia egingo du Mertxe Bilbaok gaur, egubakoitza, Kultura Etxean, 19:00etan.


Uda gainean daukagula eta, Gazte Informazio Guneak antolatu du hitzaldia. Merke bidaiatzeko aukeren gainean jardungo du Bilbaok. Besteak beste, bidaiak antolatzeko informazio interesgarria emango du: web orriak, agentziak, aseguruak, InterRail eta beste. Gaiarekin interesatutako guztiei hitzaldira joateko gonbidapena egiten die Gazte Informazio Guneak. Gazteekin zerikusia duten gaien kontsultak egin daitezke bertan. Argibideak 943 77 91 57 telefono zenbakian.

> ERAKUSKETA Jaietako kartelak bihar arte ikusgai kultura etxean


Zapatura arte, hilaren 24ra arte, Mendekoste jaietarako aurkeztu ziren kartel guztien erakusketa dago ikusgai kultura etxeko aretoan.

Aipatutako lehiaketara 40 kartel aurkeztu ziren, eta epaimahaiak Mikel Calvoren kartela saritu zuen. 23 urte ditu eta Arte Ederretako 4. mailan dihardu, Leioako Fakultatean. 600 euroko saria jaso zuen aurreko egubakoitzean. Haren arrebak jaso zuen saria, Mikel Calvok ezin izan zuelako sari banaketara etortzerik izan.

Erakusketa ondorengo ordutegian izango da zabalik: gaur, egubakoitza, 18:00etatik 21:00etara eta zapatuan 12:00etatik 14:00etara.




ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABAETA



ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABAETA
FAGOR
banatzaile ofiziala



ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABAETA
expert
banatzaile ofiziala

Arkauz zure etxea da.



GRUPO
ARKAUZ

ARETXABAETA • ARRASATE
1950•2008

ZAHARRAK BERRI SAIOA

Aste honetan:

RR zahARRak
BERRI



NOIZ: maiatzak 28 eta 29

NOR: Amaia Diaz de Monasterioguren.
Dietista

GAIA: Gernu aparatua eta elikadura.

Zure intereseko **elkarrizketak**,
erreportajeak eta **tertuliak** batzen dituen
programa berria daukazu **GOITBn**

EGUAZTENETAN 20:15ean
EGUENETAN 13:15ean

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara,
SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!
Deitu programan zehar 943 00 08 34 telefonora

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Babeslea:

 **URREZKO**
kutxa ZERBITZUA



PIRAGUISMOA Irudian, Bergaran egindako txapelketa bat.

GOIENKARIA

KIROLDEGIA > UDAKO KANPAINA

Ur jolasak eta dantza latindarrak berritasun

Ekainaren 8ra arte eman ahal izango da izena udara begira antolatu dituzten jardueretan

X.U. > BERGARA

Bergarako Kirol Zerbitzuek gertu dute udako kanpaina, eta ohiko jarduerekin batera hainbat berritasun txertatu dituzte, bai gazteendako eta baita nagusiendako ere. Astelehenean ireki zuten izenemate epea, eta datorren ekainaren 8ra arte eongo dira izenak hartzen. Ondoren, eskaera handiak izan badira, Udal ordezkariak zozketa bidez antolatuko dituzte ikastaroak.

UR JOLASAK

Hori da aurtengo berritasunetako bat, igeriketa ikastaroen ordez ur jolasak egingo dituztela. Udaletik eman dute aldatetaren arrazoia: "Jokoak lehenetsiko ditugu eskola saioen artean". Horrekin batera, piraguismoko saioak Urkulun egiteko saiakera egingo badute ere, baimenik lortzen ez badute jarduerak berdin-berdin egingo du aurrera, baina Zubillagan.

Horrez gain, multijarduera saioak egingo dituzte, eta ekin-tza horiek kirol udalekuen barruan sartuko dituzte. Hala, neska-mutikoak jarduera bakarera mugatu beharrean hainbat kirol modalitatetan ibiliko dira. Eta hor, arrakasta duten saioekin egingo dute aurrera: piraguismo, irristaketa, hockey-a, batuka gaztea...

HELDUENDAKO ZER?

Udako kanpainan Agorrosingo arduradunek ere hainbat jarduera aurreikusi dituzte helduei begira. Hor ere, erantzun ona duten acuareobik, aerodance edota areto bizikleta moduko saioak antolatuko dituzte, baina horrekin batera, dantza latindarren ikastaroa ere egingo dute, hor dago berritasuna.

Ikastaro horien gaineko maiztasuna, prezioak, ordutegiak eta bestelakoak jakiteko www.bergara.net/kirola webgunera jotzea baino ez duzue.

SASKIBALOIA > BERGARA

Ander Gartzia, herriko saskibaloia sustatzen

Bergarako Saskibaloia Elkarteak eskatuta, eguaztenean Tau Baskoniako Ander Gartzia ikastetxe batetik bestera ibili zen, saskibaloia sustatzen

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bergarako Saskibaloia Elkarteak buru-belarri dabil lanean herriko saskibaloia sustatu eta klubeko harrobia jokalariei gazte hornitzeko. Horretarako hainbat ekimen dituzte esku artean -3x3ko saskibaloia txapelketa egingo dute aurki-, eta ekimen horien barruan, eguaztenean hainbat saskibaloia jokalariei ikastetxez ikastetxe ibili ziren, gazteei Bergarako elkartearen izena emateko animatzen. Hala, Ander Gartzia (Tau Baskonia), Igor Moracho (Baskonia Fundazioa) eta Antxon Hernandez (Mondragon Unibertsitatea) izan ziren goi mailako saskibaloiko ordezkariak, hiru-

rak ere bergararrak. Eurekin batera, baina, ikastetxe bakoitzean Bergarako Saskibaloia Elkartearen gazte mailako jokalariek ere izan ziren, gazteak animatzen.

BERGARAN, IZARRA

Ander Gartzia izar moduan hartu zuten San Martinen -lehenago Aranzadin eta Mariaren Lagundian izan zen-. Baskoniako eta MUKO ordezkariak lagun, Gartzia neska-mutikoek egindako galderei erantzuten ibili zen: Sergi Vidal dela Taun duen lagun onena, aurten hiru norgehiagokatan kantxaratu dela baina datorren urtean gehiago jokatzeko esperantza daukala, 191 zentime-

tro izanda ere taldeko txikiena dela, edota Neven Spahija entrenatzailea "kantxatik kanpora oso tipo jatorra" dela.

LAGUNTZEA, GUTXIENKOA

Aurreratu moduan, elkarteak deituta animatu zen Gartzia ikastetxeetan saskibaloia gainean berba egitera: "Bergarako taldean egin genituen lehenengo urteak, eta orain gazte faltan badabilta, gutxienekoa da herri-erorri eta neska-mutikoak animatzea. Orduan, beste batzuek egindako lanari esker hasi ginen gu saskibaloian, eta hori eskertzeko modu bat ere bada". Autografoak sinatzen geratu zen.



Ander Gartzia, eguaztenean, San Martin ikastetxeko kantxan ikasleei autografoak sinatzen.

XABIER URTZELAI

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

SANTOS

TIEN 21

Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

mingainari tiraka

Jaione Cuevas eta Rakel Cenzual > Ilargi dendako jabeak

"Arreta pertsonalak du lehentasuna"

NEREA MENOR > BERGARA

Ilargi puerikultura denda hiru aste zabaldu zuten Jaionek eta Rakelek. Bigarrenak semea eduki zuenean horrelako denda baten falta sumatu zuten inguruan eta, proiektuari bueltak eman ondoren, ilargi zabaltzea erabaki zuten.

Duela gutxi zabaldu zenuten denda. Nola doa, orain arte?

Maiatzaren 2an zabaldu genuen eta oso harrera ona eduki dugu, espero genuen baino hobea. Jende asko eta mota askotakoa dator. Astelehenetik zapatara egun osoan zehar egiten dugu lan. Jendea bueltatu egiten da behin baino gehiagotan, eta hori oso seinale positiboa da guretzat.

Zer eskaintzen du Ilargik?

Umeentzako arropak, panpinak, biberoiak, sehaskak, karrotxoak, haurdunaldirako arropa...0 eta 4 urte arteko produktuak.

Zuen dendak berezitasunik badu estilo bereko beste batzuekin alderatuta?

Jendea gustura etortzea nahi dugu, eta



konfiantza eman nahi diegu, erosi ala ez. Gertuko tratua eman nahi dugu. Herriko dendari guztion artean, jendea herrian geratzea nahi dugu. Gainera, gure prezioak finkatzeko orduan, Gasteizen-eta ibili ginen eta berdin balio dute gurean eta hirian, hainbat produktu merkeago, agian, deskontuak egiten baititugu. Arreta pertsonalari ematen diogu lehentasuna.

Zein da gehien saltzen duzuen produktua?

Arrakasta handiena sehaskako maindireek eta haurdunaldirako arropak dute. Inguruan ez da honelako arroparik saltzen. Neguan prezio eta estilo anitzeko arropa eskaintza edukiko dugu. Ezohiko maindire koloretsuak eta Ameriketatik bereziki malguak diren zapatak ere ekarri ditugu.

Rakel ama da. Aholkuak emateko esperientzia baliagarria izango da, ezta?

Produktu gehienak probatu ditu nire semeak. Jendeari konfiantza ematen dio norbaitek gauzak aurretik probatu izana. Gure produktuak ezagutzen ditugunez, aholku baliagarriagoak ematen ditugu.

bere ustez



Ainhoa Agirreazaldegia

Nondik helduko da berdintasuna?

Maiz hitz egiten da emakume eta gizonen arteko berdintasunaz. Arazoa estrukturala da, eta beraz, muinera jo behar da. Ez gara egoera berean egongo, aukera berdintasunik ez badugu. Lana da muinean dagoen arloetako bat.

Hiru lan mota daude: soldatapekoa, lan sozialak eta izkutuko lanak. Urte askoan gizonetzkoa lehen bi eremuetan aritu izan da, eta izkutuko lanetan emakumea. Orain emakumea soldatapeko lanetan eta

hau be badaukogu

Idazleak Ikastetxeetan programak Antton Kazabon ekarri zuen Mariaren Lagundira

Mariaren Lagundiko 4.mailako ikasleak Idazleak Ikastetxeetan programako partaideak dira. Honen bidez, ikasleek hainbat euskal idazleren biografia literarioa ezagutzen dute eta idazleak eskolako irakurleengana hurbiltzen dira. Aurten, Antton Kazabon idazlea eta bere *Momolo* liburua aukeratu dute, eta joan den hilabetean egon zen Kazabon ikasleak bisitatzen. Argazkian, idazlea eta ikasleak ahozko ariketak egiten daudela ikusi ditzakegu. Aho-korapiloak, asmakizunak, bertsoak eta olerkiak erakutsi zizkien gaztetxoek. Saioa amaitzean, ikasleek sinadura eskatu zioten autoreari.



MARIAREN LAGUNDIA

"Denok parte hartu behar dugu hiru lan eremuetan, baina ordu kopuru bera eskainiz"

gizarte-lanetan ere sartu da, baina horrek izugarriko sakrifizioa suposatu dio. Izkutuko lanez gain, soldatapekoak eta gizartearekikoak egiten ditu, baina bera da egoera berrira moldatu dena, zailtasun denak ahal dituen bezala gaindituz. Lan munduak, instituzioek, gizonetzkoek... sakrifizio askoz ere gutxiago egin dituzte, gehienetan partxeak bakarrik jarritz. Kapitalismoa emakumearen moldatze gaitasunaz baliatu da beste behin ere! Orain lan hirukoitza egiten du, hori bai errentagarria... Denok parte hartu behar dugu hiru lan eremuetan, baina ordu kopuru bera eskainiz. Etxean, lantokian zein gizartean, gizon eta emakumeok neurri bereko parte hartzea dugunean hasiko gara berdintasunaz hitz egiten.



**Ferretería
Múgica
Burdindegia**

INDUSTRIA HORNIDURAK



**Eskaintza bereziak:
LORATEGIA - PROFESIONALA - UDA**

Bidekurutzeta 8 • BERGARA • Tel.: 943 76 28 67 • Faxa: 943 76 94 31



Amaia Aranzabal | Aretxabaletako Institutoko zuzendaria "Eskaintza inguruko enpresei begira egiten du beti institutuak"

- Ekainean zabalduko duzue hasierako prestakuntzarako matrikulatze epea.

Bai, hala da. DBHtik eta batxilergotik datozen ikasleek gure zikloetan izena emateko aukera daukate orain.

- Zein ziklo eskaintzen dituzue?

Erdi mailakoak dira: Mekanizatua; Ibilgailuen Elektromekanika; Soldadura eta Galdaragintza; eta Erizaintzako zaintza osagarriak. Goi mailakoen artean momentu honetan bakarra daukagu: Fundizioa eta Pulimetalurgia.

- Eta orain hamar bat egun inauguratu zenuten Soldadura eta Galdaragintza zikloko tailerra.

Bai, baldintza eskasetan geunden lehen, eta orain tailer handia egin dugu: behar den makinariarekin, lan baldintza egokiek eta segurtasun neurri guztiak beteta. Tailerra, aurrerago, gehiago aprobetxatu gura dugu, titulu berriak emateko baimenak lortzerakoan, hain zuzen.

- Ikasketak praktikekin osatzen dituzue.

Noski, eta langileei eskaintzen diegun ikastaroek teoria baino gehiago dute praktika. Gainera, inguruko lantegi eta zaharren egoitzetara joaten dira ikasleak praktikak egitera, hasi Legutiotik eta Eibarrera artean dauden lantegietara.

- Eta enpresen aldetik eskaera handia dago?

Izugarria. Eskaintza inguruko enpresei begira egiten du beti Aretxabaleta institutuak. Horregatik praktikak egitera joaten diren ikasle asko lantegian bertan gelditzen dira lanean.

- Baina eskaintzen dituzuen ikasketak ez dira bakarrik ikasleendako, ezta?

Ez, hasierako prestakuntzarako zikloekin batera –goizean– langileendako ikastaroak eskaintzen ditugu –arratsaldean–: Fabrikazio Elektromekanikoa eta Metal Eraikuntzak. Eta langabeendako ere baditugu, bi hain zuzen: Mekanizatua eta Geriatriako laguntzailea. Telebista eta irrati antenen instalatzailea ere eskaini genuen, baina ez zuen aurrera egin ikasle gutxi zegoelako.

- Eta beste zerbitzurik baduzue?

Bai, Lanbide-Orientazio eta Enplegu Zentroa daukagu bertan, Leintz bailarako bakarra. Hala, ikasketak bukatzen dituzten ikasleen izenak zuzenean sartzeko Lanbiden, gure lan poltsa dela esan genezake. Hala ere, edozein herri-tarri dago zabalik Orientazio eta Enplegu Zentroa.

- Dagoeneko 30 urte bete ditu institutuak.

Bai, 1978an sortu zuten Leniz Lanbide Heziketa, eta 1983an Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketa sarean sartu zen. 2004an, ostera, Goi mailako zikloak ematen hasi ginen.

- Gainera, kalitatearen aldeko apustua egin duzue, eta zilarrezko Qa eskuratu.

Bai. Zentro integrala izan gura genuen, hau da, lanbide heziketako eskaintza osoa izatea –hasierako prestakuntza, langileendakoak eta langabeendakoak–, eta horretarako derrigorrez eskuratu behar genuen zilarrezko Qa. 2000. urtean ISO 9001 lortu genuen, eta 2006an zilarrezko Qa.



Aurrematrikulazio epea: Ekainaren 2tik 13ra
Matrikulazio epea: Ekainaren 30etik uztailaren 4ra.

Etxebarri auzoa z/g
Tel.: 943 79 79 00 / 943 77 09 55
posta elektronikoa: ia@iaretxabaleta.com
Webgunea: www.iaretxabaleta.com

EZAGUTZERA EMATEKO BIDEAK

Udalak 'erreferentzia kulturala' bilakatzeko asmotan dihardu

Aretxabaleako Udalak Arkupe "erreferentzia kulturala" izatea lortu nahi du. Hala, aretxabaletarrek eraikina ezagutu dezaten eta erabiltzen hasi daitezten, komunikazio kanpaina egitea eta kultur etxearen irudi grafiko berria sortzea erabaki zuen bere garaian. Horretarako, Arteman Komunikazioaren laguntza izan du.

Esandako enpresak kultura etxearen logotipoa egin du; baita errotilazioaren diseinu lanak ere. Bestalde, inaugurazioari begira, gizartearen segmentu guztiei zuzendutako komunikazio egitasmoak planifikatu eta bideratu ditu. *Aretxabaleta kultura bizia* leloa aukeratu du horretarako. Besteak beste, egunotan kalean ikus daitezkeen euskarrien eta bluetooth bidezko mezuen diseinuaz arduratu da. Egin den kultura programa antolatzen ere lagundu du. Beste gauza askoren artean, inaugurazio ekitaldiko gonbidapenak egin ditu.



Aretxabaleako alkate Inaxio Garro, Kultura zinegotzi Lore Martinez eta Kultura teknikari Inma Miguel izan ziren martitzeneko aurkezpenean.

MIRIAN BITERI

KULTURA > ARKUPE

Kultura etxe berria ekainaren 6an inauguratuko du Udalak

Eraikin berriaren instalazioetan, kultura ekimen asko egingo dira ekainaren 22ra arte

Ekainaren 6an zabalduko badute ere, Arkupek ez du irailera arte oso-osorik funtzionatuko

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Arkupe kultura etxe berriak badu dagoeneko inaugurazio data: ekainaren 6a. Udalak agerraldia egin zuen martitzenean eraikinaren gaineko ezaugarriak eskaintzeko, eta, hori girotzen joateko, antolatu duen kultura programa eta komunikazio kanpainaren berri emateko.

Inaugurazio ekitaldia 11:30ean hasiko da, ikus-entzuzko emanaldiarekin. Jarraian,

ordezkari politikoei hartuko dute hitza. Horren harira, herriko nahiz inguruetakoko eragile politiko eta kulturaletako ordezkariak gonbita egin diela jakinarazi zuen martitzeneko agerraldian herriko alkate Inaxio Garrok. Dagoeneko Arkupe izango direla jakinarazi dutenen artean, Markel Olano diputatu nagusia eta Maria Jesus Aranburu Kultura diputatua daude. Esandako ekitaldi horretan, bestalde, dantzari eta tri-

kitilariet gain, Anjel Alkain aktorea eta Pello Ramirez musikaria ere izango dira. Egun berean, Gutta Gutarrak taldekoek ikuskizuna eskainiko dute, 22:30ean.

EGITARAUUA ZABALA

Ospakizunak ez dira horretan amaituko; ekainaren 22ra arte iraungo dute. Aurreikusita dauden ekintzen artean, ekainaren 8an herriko abesbatzaren emanaldia egongo da; ekainaren 11n, *Halabazango ipuinak* ipuin kontaketa; ekainaren 13an, funky eta hip-hop dantza ikastaroa; eta ekainaren 19an, Etiopiaren gaineko diapositiba emanaldia.

Kultura etxe berria aurkezteko asmoz, gainera, asteon komunikazio kanpaina jarri da abian, *Aretxabaleta kultura bizia* lelope-

an. Azken hori Arteman Komunikazioarekin elkarlanean antolatu du Udalak. Hala, besteak beste, bi bluetooth igorle jarri dituzte Durana kaleko kioskoan eta Mitarteko Asensio dendan, Arkuperen inaugurazioarekin loturiko berriak jaso ahal izateko.

Horrez gain, herriko lorategi eta lorontzietan kolore askotariko kartelak daude astelehena ezkerre. Euskarri horiek Arkuperen logotipo berria dute. Kultura zinegotzi Lore Martinezek logotipo horren gaineko informazioa eskaini zuen: "Herriko plazako arkupea izan da inspirazioa irudi grafikoa sortzerakoan. Arkupeak, kontzeptualki, harrera egiten die kultura etxeko erabiltzaileei". Kultura etxearen izenaren jatorria ere gogorarazi zuen; hura aukeratzeko

ko lehiaketa jarri zela martxan eta Idoia Elexpururen Arkupek irabazi zuela aipatu zuen.

ERABILERA ASKOTARIKO GUNEA

Eraikinak 2.300 metro koadrotik gora ditu. Sotoak 400 metro koadro ditu; beheko solairuan, harre- ra nagusia, erakusketa gela eta areto nagusia daude. Azken horrek 99 eserleku ditu. Lehenengo solairuan, haurrentako eta nagusien- dako liburutegia dago; bigarren- an, arte ederren gunea eta kultura sailaren bulegoak; eta azken bi solairuetan, Leizarra musika eskola. Obren iraupena 19 hilabetekoa izan da eta aurrekontua, berriz, 3.650.000 euro.

Martinezek esan zuenez, "kultu- raz gozatzeko aukera berriak eskaini nahi ditu Arkupek. Herria kulturaz elikatzea datorren gunea da. Herriko kultura eskaintzari dimentsio berria emango diona eta kultura biziaren eragile eta bultzatzaile izango dena".

Garrok "lanak nahi baino gehiago luzatu" direla aipatu zuen. Hala, esan zuen eraikina 2007ko abuztuan inauguratu behar zela, baina izandako lan istripuak "lanak atzeratu zituela". Bestalde, ekainaren 6an zabalduko bada ere, irailera arte ez duela %100era funtzionatuko gaineratu zuen.



**ANDRA
MARI**

Aholkularitza

**Fiskala
Kontablea
Juridiko/laborala**

2007ko ondare eta errenta aitorpenenerako epea zabalik

Andra Mari auzunea 3 ARETXABALETA Tel. 943 79 29 26

HIRIGINTZA > ETXEBIZITZAK

Zabalik dago erreka bestaldeko etxe tasatuetarako izenematea

Uztailean zozketatuko diren etxebizitza merkeenak 183.335 euro kostatuko dira; garestienaren prezioa, berriz, 223.811 euro izango da

MIRIAN BITERI > ARETXABAETA

Erreka beste aldean saltzeko dauden 15 etxebizitza tasatuen zozketan parte hartzeko izena eman daiteke dagoeneko. Astelehenean zabaldu zen epea eta ekainaren 30ean bukatuko da. Herriko alkate Inaxio Garrok egin zuen iragarpen hori joan zen astelehenean egindako osoko bilkuran.

Horrekin batera, Udala etxe horiek eraikitzen ari den Bruesa enpresarekin akordiora iritsi dela jakinarazi zuen alkateak. Jakina da Udalaren eta Bruesaren artean desadostasunak izan direla etxebizitza horien prezioagatik. Metro koadro bakoitzk 2.380,97 euro kostatuko dela adostu dute.

Hala, etxebizitza txikienek 77 metro koadro erabilgarri izango dituzte, eta, beraz, horiengatik 183.334,69 euro ordaindu beharko dituzte jabeek. Etxebizitza handienek, berriz, 94 metro koadro izango dituzte eta 223.811,18 euro



Bruesa enpresa dagoeneko hasi da erreka bestaldeko lursailetan etxebizitzak eraikitzen.

MIRARI ALTUBE

kostatuko dira. Hala ere, horien artean, 82 eta 84 metro koadroko etxeak ere badaude.

PSE-EE ABSTENITU EGIN ZEN

Asteleheneko osoko bilkurak egoki ikusi zituen prezio horiek, eta, ondorioz, Bruesa enpresarekin hitzarmena sinatzea onartu zuen. Aralar, EA eta Ezker Batua-Berdeak alderdietako zinegotziek bozkatu zuten horren alde; PSE-EEko Ainhoa eta Angel Sagarrí-

bai, berriz, abstenitu egin ziren. Lehenengoak esan zuen etxebizitza horien prezioak izandako igotza ez duela gustuko, eta, beraz, "logikoena abstentzioa bozkatzeta" dela. EAJko zinegotziak, bestalde, ez ziren osoko bilkuran izan.

Erreka bestaldeko lur eremu horretan, guztira, 428 etxebizitza eraikitzen ari dira. Kirol etxe inguruan hasi eta Lausitta kalea bitartean altxatzen ari dira. Horietatik, 186 tasatuak izango

dira. Babes ofizialekoak, prezio libreko etxeak eta familia bakarrekoak ere aurreikusita daude han. Aipatutako 15 etxe tasatuak 2004an egindako zozketan banatu ziren. Baina zozketa hartatik irtendako esleipendunak atzera bota ziren eta Udalak beste zozketa bat egitea erabaki zuen; uztailean egiteko asmoa du.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Zozketa berri horretan sartu ahal izateko hainbat baldintza bete beharko dituzte interesatuek. Besteak beste, 2007ko abenduaren 31 ezker Aretxabaletan errolatuta egon beharko dute eta ez dira etxe baten jabe izango. Gainera, 2006an izandako diru sarreak eskatuko zaizkie.

Asteleheneko osoko bilkuran, bestalde, Jaurlearitzarekin babes ofizialeko ehun etxebizitza egiteko hitzarmena sinatzea aho batez onartu zuten. Etxe horien zozketa udako oporretatik bueltan egitea aurreikusita dagoela jakinarazi zuen alkateak. Iraileko edo urrirako jarri zuten horren data.

ATENTATUA

Udalak Legutianoko atentatua gaitzetsi du

Guardia zibilaren hilketa salatu eta ETari desager dadila exijitzen dio

M.B. > ARETXABAETA

Astelehenean egindako osoko bilkuran, Legutianoko atentatuaren gaineko adierazpena onartu zuen Udalak. Jose Manuel Piñuel guardia zibilaren hilketa "gogor salatu eta gaitzetsi" eta ingurukoei elkartasuna agertu die horretan. ETaren ekintza "oinarriko giza eskubideen kontrakoa" dela dio. Hala, gaineratu du "erailketa bat ez da sekula justifikagarria, eta hau ere ez".

Euskal Herriko gatazka konpontzeko "nolabaiteko eragina izan dezakeen orori" eskatzen dio gizarteak "behar duen bezalako eta eskatzen ari den gisako borondate eta jarrera erakuts dezala egoera behin betiko zuzentze aldera". Azkenik, ETari desager dadila exijitu dio.

> AISIALDIA

Haur masajea antolatu dute Kurtzebarri eskolan

Hilabete batetik lau hilabetera bitarteko haurrentako masajeak antolatu dituzte Kurtzebarri eskolan. Guztira bost saio emango dira.

Aurkezpen ekitaldia eta lehenengo saioa datorren egunean, maiatzak 29, izango dira. 17:30ean emango diote hasiera. Hurrengo lau saioak ekainean izango dira: ekainaren 3an, 5ean, 10ean eta 12an, hain zuzen ere. Toalla bat eraman behar da.

Kurtzebarri eskolak gurasoei ikastaro horretan parte hartzeko gonbita egin die, "txikiarekin batera, hazkundera goxoa bideratzen duen esperientzia delako".

GARBITU KOOP. ELK.

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak

Obra bukaerako garbiketak

Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak

Kristalen garbiketak

Errekabarren 3- Behea ARETXABAETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

((112))
SOS DEIAK

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA



Zenbaki
Aholkulariak



• Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigorzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...

- Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

• Kontalibiltatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABAETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

PREBENTZIOA > ALKOHOL-PROBAK

Bihar gauean egingo dituzte borondatezko alkohol-probak

Unibertsitate Etorbidean egingo dituzte probak gauerditik hasita, 03:00etara

Oñatiko Gizarte Zerbitzuek antolatu dute ekitaldia, Sasoia elkartearen laguntzarekin

dituzte. "Deialdia irekia da, baina baldintza bakarra bete behar da, alegia, 18 urte beteta izatea", esan digu Udaleko Prebentzio arduradun Ainhoa Moiuak. Sasoia elkarteko kideek ertzainek erabiltzen duten alkoholimetroaren oso antzekoak erabiliko dituzte. "Alkohol-probek ematen duten emaitza %100 da fidagarria", esan digu Prebentzio sailak. Gainera, proba egiten dutenei hainbat aholku emango dizkiete: positiboa eman dutenei, autoa hartzeko zenbat denbora itxaron behar duten esango die, besteak beste.

IAZ, 476 PROBA EGIN ZITUZTEN

Borondatezko progak izan arren, iaz egindako deialdi bikoitzak erantzun oso ona izan zuen herritarren aldetik. Alde batetik, iazko Gorpuzti jaietan, 166 alkohol-proba egin zituzten: 124 gizonezkoak eta 42 emakumezkoak eta, horietatik, 119 positiboak izan ziren, eta gainerako 47ak, negatiboak. Bestalde, San Migel eta Errosario jaietan, 310 proba egin zituzten: 227 gizonezkoak eta 83 emakumezkoak. Orduan ere, proba gehienak positiboak izan ziren: guztira, 259.

BISITA GIDATUA

Turismo Bulegoak antolatua bisita gidatua egingo dute domekan, 09:45ean hasita. Lehenengo Unibertsitatea bisitatuko dute, eta ondoren Gorpuzti jaiaren inguruko azalpenak emango dituzte, besteak beste, prozesioan parte hartzen duten pertsonaiak nola jantzen diren ikusiko dute. Bisita gidatua, 11:00etan bukatuko da. Interesatuak erreserba egin dezakete 943 78 34 53 telefonoan. Hiru euro ordaindu behar da bisita gidatua, eta 10 urte arteko neska-mutikoei doan parte hartuko dute.

Gorpuzti jaietan musikarendako tartea ere egingo da: alde batetik, bihar arratsaldean eta gauean, DJ festa egingo dute plazan, eta beste alde batetik, gaztelekuan, 22:30ean, Supagroup taldearen kontzertua egingo da.

Domekan, prozesioa bukatu ondoren, Musika Bandak kontzertua emango du, eta 19:00etatik aurrera, dantzaldia. Arratsaldean, Oñatz dantza taldeak Gorpuzti eguneko dantza egitarau osoa eskainiko du. Bestalde, 10:00etan plater-tiroketa saioa egingo dute Txopekuako tiro zelaian.

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Bigarren urtez egingo dituzte borondatezko alkohol-probak Oñatin, Prebentzio sailak eta Sasoia elkartek antolatuta. Gorpuzti jaien aitzakian herrira etorriko den lagun kopurua aprobetxatu gura dute probak egiteko. Hain zuzen ere, Unibertsitate Etorbidean egingo dituzte probak, bihar, gauerdian hasi eta 03:00etara. Tarte horretan, alkohol-proba egin gura dutenek ohiko alkoholemia kontroletan egiten diren probak egin beharko



Goian, Igartua eta Atxaga; behean, Sagarzazu eta Ruiz. Alberdi falta da. M.B.

BERTSOLARITZA > TXAPELKETAKO SAIOAK

Oñatiko bost bertsolari, Eskolarteko Txapelketan

Gipuzkoako Txapelketako azken kanporaketa gaur jokatu da Santa Ana antzokian

M.B. > OÑATI

Beñat Alberdi, Iñaki Igartua, Endika Ruiz, Arantzazu Sagarzazu eta Egoitz Atxaga lehiatuko dira gaur, Gipuzkoako Eskolarteko 28. Bertsolari Txapelketan. Bertsolari Txapelketan hiru bukatu ondoren hasi den saioan, f Egoitz Aizpuru izango da gai jartzailea. Nagusien mailan, guztira, zortzi bertsolari lehiatuko dira bat-bateko saioan, eta horietatik bost bertso eskolako kideak dira.

Era berean, 14 urtetik beherako mailan, ez da herriko ordezkariarik egingo. Elgoibar, Zumarraga eta Urretxuko bertsolariak kantatuko dute maila horretan.

Hirugarren txapelketa, bertsolaparekoa, Txantxiku Ikastolan egingo dute.

TXAPELKETAK HIRU FASE DITU

Gipuzkoako Eskolarteko 28. Bertsolari Txapelketak hiru fase ditu: ikastetxe barruko aukeraketa, eskualdeko kanporaketak eta finala, eta bi arlotan jokatu dute: bertsolaparean eta bat-batean. Bat-bateko finalera txikien mailako lau talde pasako dira eta, handien mailako zortzi bertsolari. Aldiz, bertsolapareako erabakia eta sariak finalean banatuko dira. Beste hiru kanporaketak, Usurbilen, Elgoibarren eta Alegian jokatu dituzte.

> OSPAKIZUNA

Urbiako ermitan meza emango du domekero Joseba Etxeberria fraideak, azaroaren 1era arte

Maiatzeko lehen domekatik hasita, meza ospatzen du Joseba Etxeberria frantziskotarrak Urbiako ermitan. Hain zuzen, elizkizuna 11:30ean hasten da. 1942. urtean hasi ziren meza ematen Urbian, eta Joseba Etxeberriak dituen datuen arabera, azken bost urteotan, domekero, 40 pertsona inguru joaten da elizkizunera.

> KANPAINA

Organo-emaileak egiteko kanpainaren barruan, mahaia jarriko ditu domekan Atcore elkartek

Euskadiko Bihotz eta Birika Gaixoen eta Transplantatuen Elkarrekin transplantei buruzko informazioa emateko eta organo-emaileak egiteko mahaia jarriko ditu domekan. Hortaz, herritarrek aukera izango dute organo-emaile egiteko. Horren harira, Emailearen Nazioarteko Eguna ekainaren 8an ospatuko dute.

> PAILAZOAK

Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorrek bigarren emanaldi bat emango dute, bihar, 18:30ean

Arratsaldeko bostetan egingo duten saiorako sarrerak agortu ondoren, bigarren saio bat eskainiko du pailazo taldeak 18:30ean. Sarrerak eros daitezke kultura etxean edo, bihar, antzokiaren sarreran. *Irriz irri* da pailazo taldeak eskainiko duen antzezlan.



PEDRO IRURZUN

Iker Alberdi, Gipuzkoako txapeldun

Alebin eta infantil mailetako Gipuzkoako txapelketa jokatu ziren maiatzaren 17an Arrasaten, eta Lizarralde Kirolak taldeko hiru txirindularik dominak jantzi zituzten. Sari preziatuena, txapeldunarena, alegia, Iker Alberdik jantzi zuen alebin mailan. Xabier Aiausti hirugarren sailkatu zen maila berean. Bestalde, nesken txapelketan, Maider Usandizaga, bigarren tokian sailkatu zen. Azkenik, infantil mailan, Unai Arabaolaza, zortzigarrena izan zen. Argazkian, Aiausti, Alberdi eta Usandizaga.



Eskoriatzarrez gain, ibarreko beste herri askotako mendizaleek ere esku hartzen dute bi urtetik behin elizateak zeharkatzen dituen martxa horretan.

JOXEBI RAMOS

KIROLA > IV. ELIZATEEN MARTXA

Elizateak ezagutzeko ibilaldia izango da etzi

Elizate guztiak zeharkatuko dituen ibilaldia egingo dute domekan; ez dago irabazle ezta galtzailerik, eta 32 kilometroko luzera dauka

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Herritar talde batek IV. Elizateen Martxa antolatu du etziko, domeka. Bi urtetik behin egiten dute martxa hori, Eskoriatzako Kirol Elkartearen laguntzarekin; eta aurtengoak 32 bat kilometro izango ditu.

TXIKIRRI-TXIKIRRIREKIN TXANDAKA
Txikirri-Txikirri mendi ibilaldia bi urtetik behin egiten da. Hor-taz, elizateen mendi martxa horrekin txandakatzen dute. Edizio bakoitzean 80 bat lagunek esku hartzen dute elizateen mendi martxan, eta aurten 100 lagu-

netara heldu gura dute. Hala jakinarazi digute antolatzaileek: "Mendian sarritan ibiltzen den edozeinendako moduko martxa da, gazte zein nagusiendako", azaldu digu antolakuntza lanetan ibiltzen den Roman Aranburuzabalak.

IZENEMATE BARIK
Antolatzaileek azaldu digute interesatuek nahikoa dutela domekan, 07:00etan, herriko plazan agertzearekin. Ez dago izenema-

terik, eta ezta irabazle ezta galtzailerik ere. Ibilaldia egiteko sei-zazpi ordu behar izango direla uste dute, nahiz eta gutxi batzuk lau bat orduan egiteko gai izango diren.

32 KILOMETROKO IBILALDIA

Eskoriatzako plazatik Mazmela-ra abiatuko dira, eta handik, autobide gainera, Zarimutzero joko dute. Marinera igotzeko, berriz, Kurtzetako aldapa igo beharko dute. Hori izango da ibilbideko zati zailena. Horren ostean, San Adrian ermitatik Apotzagara jaitsiko dira. Han, Apotzagan, hamarretakoa emango diete parte-hartzaileei.

Atsedenaldira txiki horren ostean Gellao auzoraino jaitsiko dira, eta handik, Aretxabaleta aldetik, Mendiolarara igo beharko dute. Hori izango da ibilbideko bigarren zati zailena edo deseroso-

na. Horren ostean, Bolibar alde-ra jaitsiko dira, eta Eskoriatzako herriko plazan bukatuko dute. Han, salda eta pintxoak banatuko dituzte. Guztira 32 kilometro direla jakinarazi digute antolatzaileek.

PAISAIA ZORAGARRIAK

Antolatzaileek azaldu digute sasoi honetan bestelako mendi probak egiten direla, baina elizateetako martxa tamaina txikiagokoa dela, apalagoa: "Kirolari handienendako baino gehiago, gurea domekero mendira joaten diren herritarrendako da. 75 urteko herritarren batek ere esku hartu izan du".

Bestalde, martxa horrek badu balio erantsi bat: hain zuzen, buelta osoa emango diete Eskoriatzako inguruei; ibilbidean Udaltx, Aramaio eta beste ikus daitezke eta paisaia zoragarria da.

AISIALDIA > IBILALDIA

Arrikrutz kobetara irteera egingo dute Tortolis ludotekatik gura duten guztiendako

I.B. > ESKORIATZA
Udaleko Gazteria Zerbitzua eta Tortolis ludoteka gazteei zuzendutako ekitaldi ugari antolatzen dabilta. Horieta asko Tortolis ludotekan bertan egiten dituzte, baina, tarteka, herritik kanpora ere jotzen dute.

EGUBAKOITZ ARRATSALDEAK
Esaterako, egubakoitz arratsaldean ekimen bereziak egiten dituzte. Adibidez, hilabete honetan

dantza tailerra eta antzerkia gartu dituzte; eta gaur, hilaren 23a, kanpo jokoak egingo dituzte. Hala, ez dago aspertzerik.

ARAOTZERA JOANGO DIRA

Datorren asteburuan, berriz, irteera bereziagoa egingo dute: Arrikrutz kobetara joango dira maiatzaren 31n, zapatua. Are gehiago, deialdia ludotekako erabiltzaileei, umeei eta baita haien gurasoei zuzendu diete.

Egun horretako hitzordua Akeita taberna ondoko autobus geltokian egingo dute, 10:00etan; eta asmoa da 14:00etarako herri-ira itzultzea.

IZENEMATEA ASTELEHENERA ARTE

Interesatuek astelehena, hilaren 26a, aurretik eman beharko dute izena Tortolis ludotekan edo Udaleko Gazteria Zerbitzuan bertan. Baina, horrez gain, telefonoz ere bada aukera apuntatzeko, 943 71

49 21 edo 943 71 44 07 telefono zenbakira, bietako edozeinetara, lanorduetan deituta.

Tortolis ludotekako bazkide diren umeek sei euro ordaindu beharko dute; eta haien gurasoek, berriz, zortzi euro.

Bestalde, ludotekako bazkide ez diren ume eta gurasoek ere izango dute Arrikrutz kobetara joateko aukera: lehenek 8 euro ordaindu beharko dituzte; eta helduek, berriz, 10 euro.

> HIRUGARREN ADINA Imersoren oporraldi programa abian jarri dute adindunendako

Imersoko arduradunek datoren denboraldirako oporraldi programa abian jarri dute. Hala, herriko erretiratuek aukeratu ahal izango dute noiz eta nora joan gura duten oporretan. Aukerak zabalak dira: hain zuzen ere, asko dira oporrak igarotzeko eskaintzen dituzten lekuak.

Interesatuek Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo dezakete informazio bila. Horrez gain, bada aukera www.seg-social.es/imerso webgunean edo 901 10 98 99 telefonoan ere apuntatzeko.

Garikoitz Ibabe > Apotzagako auzo alkatea

"Autobidea bukatu ahala, auzoa ahalik eta txukunen utzaraztea da gure ardura handienetakoa"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Garikoitz Ibabe joan den urtea ezkerro da Apotzagako auzo alkatea. Batzarreko beste bi kiderekin batera saiatzen da auzoko premiak eta lanak koordinatzen. Autobideko lanak noiz bukatuko diren zain daude, azpiegitura horrek sortuko dituen aldaketak ahalik eta txikiak izan daitezten.

Zenbat jende bizi zarete Apotzagan? Eta zenbat baserrik osatzen dute?

65 bat lagun bizi gara auzoan, eta 18 bat baserri eta etxe daude bertan.

Noiztik zara auzo alkate?

Joan den urteko udatik. Udal gobernua aldatu eta hilabetera elizateetako auzo alkateak aldatzen ditugu. Apotzagan erroldan dauden guztiok daukagu bozkatzeko eta bozkatuak izateko aukera, eta neu hautatu ninduten. Nirekin batera lantaldean, baina, idazkaria eta diruzaina ere badaude. Saiatzen gara lanak hiruron artean banatzen.

Zein da zure zeregin nagusia Apotzagan?

Auzoko ordezkaria naiz udalaren eta beste edozein erakunderen aurrean. Horrekin batera, auzoko mantentze lanen ardura eta koordinazioa daramatzat.

Zelan antolatzen zarete?

Eztabaidatzeko edo erabakitzekeo gaiak daudenean auzo batzarrak egiten ditugu. Aparteko-rik ez badago, urtean birritan egiten ditugu, baina auzotarren batek eskatzen badu edo premiazkoa bada, sarriago egiten ditugu.

Auzolanak ere tarteka egiten dituzue, ezta?

Bai, aspaldiko ohitura dugu udazkenean eta udaberrian auzolanak egiteko. Adibidez, bihar, 08:00etan batuko gara auzoko ur-hartune batzuk ondo jartzeko, ur biltegia garbitzeko eta kanposantua eta areka batzuk garbitzeko.

Zeintzuk dira Apotzagan dituzuen premia nagusiak?

Aspalditik konpontzeaz daukagun kontu bat Gellao eta Apotzaga arteko bidea da. Behin baino gehiagotan lur-jausiak izan dira eta autoan ezin da handik pasatu. Hori behin betiko konpontzea lehentasuna da guretzat. Bestela, autobideko lanekin lotuta ere hainbat buruhauste daukagu.

Zeintzuk dira autobideak eragin dizkizuen buruhauste horiek?



Garikoitz Ibabe da Apotzagako auzo alkatea.

IKER BARANDIARAN

"Gellao eta Apotzaga arteko bidea konpontzea aspaldiko premia da"

"Udaberrian eta udazkenean, auzolanak deitzen ditugu; zapatuan ere egingo dugu"

"Aurrera begira, auzoko elektrizitate transformadorea lekuz aldatu gura dugu"

Ni auzo alkate izan aurretik arazo asko egon dira, ugari: desjabetzeak direla, auzora joateko bidea lanetarako hartu zutela... Orain lanak bukatzeaz daudela esaten dute, eta guk esku artean ditugun gaiak dira jarri dituzten bi hondakindegia ahalik eta txukunen utz ditzatela ziurtatzea; eta lanen ondorioz erdi apurtuta utzi diguten bidea konpontzea, batez ere. Kontu horiei jarraipena egiten gabilta; eta bestalde, bidearen hobekuntzaren gainean hainbat hobekuntza proposamen egin ditugu.

Bestalde, udaletxean negoziatzen gabilta autobidearen lanei dagozkien neurri konpentsatzaileak zeintzuk izango diren.

Eta zein proiektu dituzue esku artean?

Gellao eta Apotzaga arteko bideaz gain, auzoko beste bide batzuk konpontzeko asmoa daukagu. Zama ibiltzen dugun bide garrantzitsuak dira, eta hobetu behar daude. Bestela, aurrera begira, elektrizitate transformadorea ere berritzeko premian gaude eta, bide batez, auzo erditi ateratzea.

Bukatzeko, zer nabarmenduko zenuke Apotzagaz? Zer dauka berezia ikusteko?

Esaterako, jende askok kanposantua nabarmetzen du. Jaur-laritzaren izendapen bereizgarria dauka, duen forma eta dituen berezitasunengatik. Hala ere, jende askok uste du aspaldikoa dela, eta ez da hain zaharra.

Auzoak daukan beste balio erantsi bat da bertatik izugarriko paisaiak ikusten direla: Etxaguen, Orixol, Anboto, Tellamendi, Debarro osoa, Orkatategi, Kurtzeberri, Atxorrotx... Eta San Migel eliza eta San Bernabe ermita ere baditugu, jakina.

HEZKUNTZA > NAGUSIENGANDIK IKASI

Aitaita-amamen eguna Jose Aranan

Pilotan jokatzeko, oigia eta erroskilak egiten, margolanak egiten eta ipuinak kontatzen erakutsiko diete txikienei

I.B. > ESKORIATZA

Eguenean, hilaren 22an, aitaita-amamen eguna ospatuko dute Arizmendi ikastolako Jose Arana gunean. Egun batez aitaita-amamek ikasleen begirale lanak egingo dituzte eta tailer-erakundeak ere gidatuko dituzte.

Aitaita-amamek aukeratu, hainbat arlo landuko dituzte egun horretan. Hain zuzen

ere, ipuinak kontatzen ibiliko dira, margolanak egingo dituzte, eta beste gauza asko.

PILOTA, GOZOGINTZA, IPUINAK

Hala, tailer eta ekintza desberdinetan banatuko dute eguna. Ume eta gaztetxo asko liluratu-ta geldituko dira nagusienekin. Beste batzuek, berriz, margolanak egiten erakutsiko dizkiete txikienei, eta horren ostean erakusketa egingo dute.

Pilota ere presente egongo da egunean. Esku pilotan jokatzeko, takoak ipintzen eta sakeak egiten ere erakutsiko dizkiete. Baita oigia eta erroskilak egiten; eta loreak landatzen ere erakutsiko dizkiete ikasle gazteok.

MUSIKA > MUSIKA ESKOLA ETA GANBARA TXIKI

Gaur, abesbatzek emanaldia egingo dute San Pedro elizan

Eskoriatzako Musika Eskolako abesbatzak eta Ganbara Txikik kontzertu bana egingo dute

I.B. > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitz, abesbatzak entzuteko aukera izango da San Pedro elizan, 19:30ean. Eskoriatzako Musika Eskolak antolatuta, Eskoriatzako eta Oñatiko umeak ibiliko dira kantuan.

Lehenik eta behin, Eskoriatzako Musika Eskolako abesbatzak hiru abestiz osatutako emanaldia egingo du. Eskolako abesbatza 10 eta 11 urte bitarteko gaztetxoek osatzen dute, eta honako kantuok aurkeztuko dituzte jendaurrean: *Seme baten tristura*, *Barber shop blues* eta *Caresse sur l'océan*, hain zuzen ere.

Horien ostean, Oñatiko Ganbara Txikik hartuko du ikuskizunaren lekukoa.

GANBARA TXIKI

Ganbara Txiki 10 eta 16 urteko bitarteko 43 abeslarik osatzen dute. Hasieran eliz musika landuko dute. Horien artean, Xabier Sarasuaren *Pater Noster*. Horren ostean, hainbat pieza folkloriko eskainiko dituzte: *Pasaian xexenak*, *Irish lullaby* edo *Akai harra* japoniarra.

Horrez gain, Eva Ugalderen *Cubanita* pieza ere entzungai izango da. Guztira, 12 abesti eskainiko dituzte.



Argazkian, Oñatiko Ganbara Txiki Madrilin izan zenean.

GANBARA

bere ustez



Iñigo Ramirez de Okariz

Kooperatiben aldaketen harira

Azken asteetan kooperatibismoaz orokorrean eta Antzuolan sortu eta garatutako kooperatibismoaz –San Jose Obrero eta Goizper, batez ere– hitz egiteko aukera izan dut garai bateko kooperatibistekin. Eurak ere bat datoz esaterakoan garai bateko balore kooperatiboak krisian daudela. Gero eta zailagoa dela enpresa kooperatiba edo enpresa (neo) kapitalista desberdintzea.

Krisian zergatik? Agian gizartea azkarregi eraldatu delako, eta horrek gure eus-

"Tradizioari utsi behar zaio garai bateko kooperatiben zentzua egungo gizartera egokituz"

kal (antzuolar) gizartearen egitura sozialari, ekonomikoari, kulturalari eta pertsonalari ere eragin diolako.

Zer egin honen aurrean? Tradizioari utsi, garai bateko kooperatiben zentzuari jarraituz; kooperatibistek bul-tzaturiko oinarritzko baloreak (solidaritatea, elkartasuna, komunitate sena...) erabiliz, egungo gizartera egokituz.

Ni neu kooperatibista naiz eta bat nator goian adierazitako kezkekin. Agian ordua da geratzeko eta egoera aztertzeke, berandu baino lehen etorkizuna bideratzeko. Horretarako, kooperatibista baten hausnarketarako proposamena ondo datorkit: "Zer garen jakin, zer izan nahi dugun jakin eta nortzuk gidatuko gaituzten jakin".

JAIK > CORPUSAK ONDARRA PLAZAN

Umeendako ekintzak bihar, eta prozesioa etzi, jaiak ospatzeko

Auzoan bizi direnek eta bizi izandakoek afaria egingo dute zapatu gauean plazan eta gero kafea eta erromeria egongo dira herritar guztiendako

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Ondarra plazan jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran. Biharko, zapatarako, jinkana antolatu dute (12:00). Bizikletan, zirkuitu batean, ibilbidea osatu beharko dute umeek. Herriko txirindulari *challenge*-ko sei probetatik lehenengoa izango da.

Arratsaldean, eguraldi txarra eginez gero, umeendako jolasak egongo dira 16:30ean, eta ona badago, igerilekuak. Ondoren, buruhandekin, krosarekin eta Eriz magoaren ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango dute.

Gauean, auzoan bizi direnak eta bizi izandakoak elkartuko dira afaritarako, eta sarrerakoak, saiheskia eta pastelak jango dituzte. Gero, auzora hurbiltzen direnei kafea emango diete. Afalostea girotzeko, erromeria izango da.

PROZESIOA

Domekan, 12:30ean, meza ostean, prozesioa egingo dute elizatik Ondarra plazara. Hori auzokoek aurrez belarrez estaliko dute.



Jaunartzea egin dutenek hartuko dute parte prozesioan domekan. NEKANE BERSATEGI

Han erreztatu egingo dute eta aurtun jaunartzea egin duten haurrek eramandako loreak bedeinkatuko dituzte. Prozesioaren ondoren, Oinarineko dantzari txikiek

ikuskizuna egingo dute eta auzora gerturatzen direnendako salda izango da, 13:00etan, eta dozena bat txuleta eta sei botila ardo zozketatuko dituzte.

Arrolako iturria txukun ipini dute herritarrek

Domekan 25 lagunek jardun zuten auzolanean Arrolako iturrian. Iturri ingurua egokitu zuten lurra eta lokatza kenduz, zoruaren losak ipiniz, ubideak tapatuz, bi jarleku egokituz eta hesolekin itxiz. Askan ur sarrera eta isurbidea ere ondo ipini zituzten. Lan luzearen ostean, 14:00ak aldera, mokadua hartu zuten.



JOSE MARI ITURBE

> OSASUNA

Odol-ateratzea egingo dute eguenean Olan etxean

Odol Emaileen Elkartek herritarrei jakinarazi nahi die eguenean, maiatzaren 29an, odol-ateratzea izango dela. Olanen da hitzordua, 17:30etik 20:00etara bitartean. Elkartetik dei berezia egin nahi diete herritarrei odola ematera joateko. Izan ere, premia larria dago. Bete beharreko baldintza nagusiak dira 18 eta 65 urte bitarteko adina izatea; 50 kilotik gora pisatzea; eta tentsioa eta hemoglobina balioak egoki izatea. Gainontzeko probak odola eman aurretik egingo dituzte adituek.

> ERRETIRATUAK

Zoriontasunaren gaineko hitzaldia dago eguaztenean

Erretiratuen elkarteak eta bizitza osoan zeharreko ikasketza helburua duen Bizikasi programak antolatuta, hitzaldia izango da maiatzaren 28an Olan etxean. Zoriontasuna izango da berbaldirako aukeratutako gaia eta gerontologia zerbitzuak eskaintzen dituen Adindu elkartetik etorriko da hizlaria. Hitzordua 17:30ean izango da eta hitzaldia herritar guztiendako da.

> HEZKUNTZA

Zabalik dago haurreskolarako izena emateko epea

Antzuolako haurreskolatik jakinarazi nahi diete herritarrei jadanik zabalik dagoela datorren ikasturterako umeak haurreskolan matrikulatzeko epea. Interesa duten gurasoek eskaerak aurkezteko aukera izango dute maiatzaren 30era bitartean. Eskera orriak betetzeko edo haurreskola zerbitzuaren gaineko informazio gehiago jasotzeko haurreskolara bertara jo beharko dute 13:00etatik 14:30era bitartean.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose
Gomez
AbadErrekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

INGURUMENA > ASTE BERDEA

Umeeek Udalean eskatu dute herriko eta eskolako iturriak konpontzeko

Herritarrek udaletxean eskatu ahal izango dute uztailaren 4ra bitartean ura aurrezteko hiru aparailu txiki dituen kaxatxo



Eskolako umeeek, Salbador kalean obretan dihardutela aprobetxatuz, uraren hodiak ikusteko aukera izan dute.

MIREN ARREGI

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Aste Berdea izan da herrian eta ingurumenarekin lotutako hainbat ekintza antolatu dituzte. Gidatze ekonomikoaren gaineko ikastaroa egitekoak ziren zapatuan, baina oso jende gutxi eman zuen izena eta bertan behera geratu zen.

Gainontzeko ekintza gehienak urarekin lotutakoak izan dira. *Ura aurrezten* erakusketa eta *Ura ala ibai-arroa zer kudeatu?* Iñaki Antiguedaden hitzaldia izan ziren lehenengo.

Martitzenean, Salbador kalean bisita gidatuak egin zituzten eskolako umeeek. Ur hodiak iku-

si zituzten eta azaldu zieten nola iristen den ura etxeetara, euri ura nora bideratzen den eta etxeko ur zikinak araztegia nola bide-

ratzen diren. Horretaz gain, ingurumen gaiaren harira konpostaje ikastaroa ere egin zuten eskolako umeeek eguaztenean.

Eguenean, Eskola Agenda 21ean landutakoak Udalarai aurkeztu zizkioten umeeek udalbatzar berezian. Uraren gaia landu oste-

an, hainbat konpromiso hartu zituzten ikasleek, eta baita zenbait proposamen egin ere. Proposamenak iturrien gainekoak izan ziren, batik bat: eskolako zein herriko hainbat iturritan ura aurrezteko gailuak ipintzea, txorrotak hondatuta dituztenak konpontzea, iturriak berrikustea...

URA AURREZTEKO APARAILUAK

Umeeek ez ezik, Udalak ere badi-tu hainbat asmo ura aurrezteko proiektuarekin bat egiteko. Besteak beste, kaleko ur txorroten sakagailuak berrikusiko dituzte eta udal eraikinetan ura aurrezteko gailuak ipiniko dituzte.

Herritarrek uztailaren 4ra arte izango dute aukera ura aurrezteko kaxatxoak udaletxean hartzeko. Kaxatxo horietan hiru aparailu izango dituzte: txorrotetan ipintzeko bi eta dutxarako bestea.

Eta, Aste Berdearen barruan, ekainaren leian, domekan, *Iturritz* mendiko iturri mendira irteera egingo dute herritarrek. Irteera 09:30ean izango da, plazan.

ELKARTASUNA > 'OPORRAK BAKEAN' PROGRAMA

Saharako hiru ume etorriko dira Elgetara uda pasatzera

I.A. > ELGETA

Bergarako Bubisher elkartearen bitartez, eta *Oporrak bakean* kanpainaren barruan, Saharako umeak etorriko dira udako oporrak pasatzera Elgetara.

Iaz Saharako bi ume izan ziren herrian, eta, aurreikuspen arabera, aurten hiru izango dira. Izan ere, Elgetako hiru familiak egin dute eskaria umeei etxean hartzeko. Ekainaren amaieran etortzea espero dute eta bi hilabete emango dituzte gure artean.

Kanpaina horren helburua da umeei Aljeriako desertuko errefuxiatu kanpalekuetan jasan behar dituzten bizi baldintza gogorak arintzea. Umeen gabeziarik garrantzitsuenak elikadurari, osasunari eta hezkuntzari lotuak dira.

TXERNOBIL

Bestalde, Saharatik ez ezik Txernobildik ere etorri izan da umerik udan Elgetara, eta, oraindik zehazteke badago ere, baliteke aurten ere ekartzea.

Bardera joan ziren mendiko bizikletarekin

Egoki kirol taldeak antolatuta mendiko bizikleta irteera egin zuten aste bukaeran. Bardera joan ziren 11 lagun eta Bardea Zurian barrena 45 kilometro inguruko ibilbidea egin zuten goizean.

Egoki taldeak antolatutako hurrengo irteera uztailaren 12an eta 13an izango da eta Monte Perdidorra, Pirinioetara joateko aukera izango dute 16 urtetik gorako mendizaleek.



TOMAS AGOTE

> KIROLA

Uztaileko Txirrindulari Mendi Kriteriuma antolatzeko batzarra egingo dute barikuan

Elgetako Txirrindulari Elkarteak deituta batzarra izango da datorren barikuan, maiatzaren 30ean, 19:00etan, udaletxean. Bileren helburua da uztailean herrian egiten duten Txirrindularitza Mendi Kriteriuma antolatzeko eta datorren urterako ere bidea zabaltzea. Izan ere, Txirrindulari Elkarteok urte mordoan dihardute lasterketa antolatzen eta hurrengoei, gazteagoei, pasa nahi diete lekukoa. Udalak ere txirrindulari proba mantentzeko ahalegina egingo duela esan du, eta aurrekontuetan diru zati bat aurreikusitako duela lasterketa babesteko. Bat egiten du Txirrindulari Elkartearen deiarekin eta, herrian hainbeste txirrindularitza zale egonik, animatu nahi dituzte elkarteari laguntza emateko proba antolatzeko.



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxe: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

Aperribay, s.l.

*Marmoldegi
eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxe: 943 78 90 21

20690 ELGETA

Gaur egun, sei ume daude Aramaioko Masusta haurreskolan

Haurrak, gehienez, zortzi orduz egon daitezke hantxe

Ume gutxi daudela-eta haien zaintza oso pertsonalizatua da

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Aramaio Masusta haurreskolan sei haur daude gaur egun, eta guztiak gela bakar batean bildu dituzte. Txikiak 8 hilabete dauzka, eta nagusienak, 2 urte.

Aramaio haurreskola 07:30etik 17:00etara dago zabalik, baina haur bakoitza zortzi orduz egon daiteke, gehienez, bertan. Bi hezitzailek egiten dute lan Aramaio Masusta haurreskolan: Aitziber Aginagalde eta Ursua Etxebarria.

Goizeko lehenengo orduan, haurrak iristen direnean, "alfonbra momentua" edo "batzarra" egiten dute. "Nor etorri den eta nor falta den ikusten dugu haurrekin. Gero, abestiak kantatu edo ipuin bat kontatzen diegu", azaldu du Aitziber Aginagalde. 10:00ak inguruan lo-kuluxka egiten dute hala nahi duten haurrek, eta 12:00etan, jangelara joaten dira, bazkalostera. Bazkalostean, sienta egiten dute, eta arratsaldean, jolas libreak. "Aramaioaren

HAURRESKOLA > MATRIKULAZIO EPEA

Hilaren 30ean amaitzen da haurrak matrikulatzeko epea



Aramaio Masusta haurreskolan matrikulazio epea zabalik egongo da maiatzaren 30era arte.

MASUSTA HAURRESKOLA

kasuan, oso ume gutxi ditugu, eta hori ere puntu positiboa da. Haurren zaintza oso pertsonalizatua da", dio Aginagalde.

Matrikulazio epea maiatzaren 30era arte dago zabalik, eta familiek honako kuotak ordaindu beharko dituzte: bost ordu edo

gutxiago badira, 145 euro; bost ordu baino gehiago badira, 190 euro; eta egokitze-aldiarengatik, 135 euro ordaindu beharko dira.

11 kuota izango dira, irailetik uztaile bitartean. Dena dela, umeak haurreskolara urrian joaten hasteko aukera ere badago.

M. Arriolabengoa > Lasterketaren antolatzailea

"Herriko gazteengan txirrindularitzarako zaletasuna badago"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Euskadiko Open Spiuk mendiko bizikleta proba egingo dute Aramaion ekainaren 8an. Lasterketa hori, gainera, puntuagarria izango da Espainiako txapelketarako. Aramaio hiru gazte hartuko dute parte proba horretan: Markel Arriolabengoa, Raul Perez eta Bingen Lopez. Martin Arriolabengoa lasterketaren antolatzailerako bat da.

Zer dela-eta bururatu zitzaizuen lasterketa hori Aramaio-ara ekartzea?

Aramaio gazteengan bada txirrindularitzarako zaletasuna. Hiru aramaioar dabilta Lizarralde Kirolak taldean, eta gogotsu ari dira lanean. Aramaion horrelako lasterketa bat egitea posible zela ikusi genuen, eta Euskadiko Txirrindularitza Federazioak ere aurrera egitera animatu gintuen.

Zein izango da zirkuitua?

Zazpi kilometro inguruko ibilbidea izango da. Aramaio kiroldegian izango da irteera. Handik Basaurtira, Arragara eta Arrikoi-tira joango dira. Arrexola alde-ara egingo dute gero, eta handik Errotaberrira. Helmuga kiroldegian izango da. Aldapen desnibelak aztertu eta zirkuitu orekatua egiten saiatu gara. Txirrindulari gazteen laguntza izan dugu horretarako.

Nola ikusten dituzu hiru txirrindulari aramaioarrak?

"Aldapen desnibelak aztertu eta zirkuitu orekatua egiten saiatu gara gazteekin batera"



Ekainaren 8an, Euskadiko Open Spiuk mendi bizikleta proba egingo dute. GOIENKARIA

Lan ona egingo dute. Junior mailan, lehenengo bost postuetan dabil haietako bat, eta, kadete mailan, hamabigarren postuan geratu zen azkenekoz beste bat.

Esan behar da, gainera, erdi aramaioarrak diren beste bi ere izango direla, biek ere ama aramaioarra daukate-eta: Iñaki Lejarreta eta Aitor Idigoras, hain zuzen.

> UDALA

Eskola publikoaren jairako, autobusak ipini ditu Udalak

Ekainaren 1ean, eskola publikoaren jaia ospatuko dute Barakaldon. Aramaioarrek ere izango dute festa horretara modu erosoan joateko aukera. Udalak autobusak antolatu ditu Barakaldora joateko. Irteera 09:00etan izango da Aramaioko autobus geltokian eta itzulera 18:00etan. Interesa dutenek udaletxean edo San Martin eskolan eman beharko dute izena.

> AUZOLANA

Eguraldi txarragatik, Santikurtzeko lanak atzeratu egin dira

Maiatzaren 10ean hasi behar zituzten Santikurtz ermita konpontzeko lanak. Baina eguraldia ez dute lagun izan azkeneko bi aste bukaeretan eta deialdia atzeratzea erabaki dute. Seguruenik, ekainean edo uztailean egingo dituzte konponketak. Udalak, dena dela, emango du aditzera noiz izango den hori.

HIRIGINTZA > PLAN OROKORRA

Arlabanen lekua egingo diote Jakioni

Aisialdirako gunea eta nekazaritza-turismorako jarduerak aurreikusita daude, tartean, Jakion

Planak aurrera egin baino lehen, Udalak gura du uraren kontua konpon dezatela erakundeek

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Arlaban gaineko plan berezia orain dela urtebete egin zuten; aurreko agintaldiko udalbatzak egin zuen, Toledo aditu taldearekin batera. Orduan zera proposatu zuten: ostatu eta aisialdirako gunea egitea Arlabanen, eta nekazaritza-turismoko jarduerendako tokia. Bost esparru zehaztu zituzten bertan: babestu beharreko gunea (basoa eta erreka); Aizkorri-Aratz parkean sartutako lurrak; abereak ibiltzen diren gunea; ostatu eta aisialdirako gunea –guztia %24,5–; eta nekazaritza-turismoko ekipamenduendako gunea –Jakion eta antzeko jarduerendako tokia,

%0,68. Sarrera samurtzeko, biribilgunea egitea proposatu zuten, errepide zaharra eta Arlabangoa elkartzen diren inguruan.

Ekainean lanean hasi ziren udalbatzako kide berriek plana aztertzen jardun dute, baita herritarrek aurkeztutako alegazioak ere. Eta hainbat aldaketa proposatu dituzte. Toledo taldeko kideekin egon dira aldaketok adostu eta plana berritzeko, baina oraindik ez dute azken erabakirik hartu: "Ez da hain samurra, onartu aurretik guri ez dagokigun beste kontu batzuk daudelako konpondu beharrekoak; uraren kontua, esaterako", esan du Eusebio Villar alkateak.



Gaztainuzketako mendi etxeak Arlabango planean sartuko lirateke.

MIRARI ALTUBE

Maroto basoko iturburutik iristen da ura Arlabanera; Gaztainuzketako mendi etxeetara, esaterako. Baina uda sasoiaren gutxi dakar, eta alkateak uste du Arlabanen egin gura diren ostatu eta aisialdi guneez ura zelan izango duten ondo zehaztuta utzi behar dela. Horregatik, bai Aldundiko, bai Jaurlaritzako ordezkariekin elkartuko dira hurrengo hilabeteotan; Turismo Saileko arduradunekin, esaterako, ekainean dute batzarra.

JAKION ENPRESARENDAKO LEKUA

Arlabango plana onartuz gero, nekazari produktuak gertatzen dituen Jakion enpresak izango du tokia bertan. Orain, Gatzagako San Migel plazan dauka lantokia, baina azpiegiturak ez dira egokiak, eta Udalaren asmoa da Arlabanera eroatea. Azken hilabeteotan, gainera, plan estrategikoa egiten dabil Jakion. Horrekin, hamar urteotako ibilbidea ondo aztertu, eta etorkizuneko pausok zehaztu gura ditu.

> LANAK

Ezusteko barik doaz aurrera kaleetako azpiegitura lanak

Orain dela bi hilabete eta erdi hasi zituzten bigarren faseko azpiegitura lanak, eta, alkaterearen esanetan, aurreikusitako moduan eta ezusteko barik doaz aurrera.

Arrasateko Aikia enpresa dabil ur saneamenduaren hodiak aldatu eta gasarenak sartzeko, eta Udalak uste du Andramari jaietarako, hau da, iraileko lehen asterako, bigarren faseko etxe batzuetan dagoeneko gasa izango dutela.

> INTERNET

Zabalik dago KZgunea, irakaslea ez joan arren

Gatzagako KZgunea zabalik dago, lehen legez, irakaslerik joaten ez bada ere. Labidea dendan eskatu behar da giltza, eta, KZguneko arauak diotenez, 16 urtetik gorakoak ibil daitezke bertako ordenagailuetan. Azken hilabeteotan ez dute antolatu Interneten gaineko ikastarorik Gatzagan, baina inguruko herrietara –Eskoriatza eta Aretxabaletajo dezakete interesatuek.



PROMOCIONES ARAMAIXO

11 etxebizitza berri Aramaioko erdigunean





- Aramaio, zerbitzu guztiak dituen herria.
- Eraikuntza-fase oso aurreratua.
- Erabilgarriak diren 166 m²-tik gorako etxebizitzak, 89 m²-ko beheko solairua bi-hiru ibilgailuentzako garajearekin.
- 480.000 €-tik aurrera.
- Lursaila eta 24m²-ko terraza.
- Polo Garaia berrikuntza gunetik 8 minutura.

Informazio gehiago:

630 31 13 18 / 659 93 53 70 / 619 71 60 65

Nardeaga kalea 26





Xabier Lijo, orain dela bi urteko edizioan, probako ikusleen animuak jasotzen; bergararrak aurten 373. dortsala eramango du.

GOIENKARIA

Mendiko maratokia esku hartuko duten 468 korrikalaritatik 25 dira ibarrekoak; aurrean ibili izan den Zuhaitz Ezpeleta ez da aurten egongo

XABIER URTZELAI > BERGARA

Domekan (09:00) 468 korrikalarik hasiko dute Zegama-Aizkorri maratokia, baina denek ez dute helmuga zeharkatuko. Asko geratuko dira bidean, gorputzak nahikoa dela esanda. Aurrean ibiliko diren artean, baina, faborito garbi bat: 1 zenbakia eramango duen Kilian Jornet kataluniarra. Iaz, 19 urterekin Skyrunner World Series txapelketako inoizko irabazle gazteena bilakatu zen Gironakoa, eta Zegama-Aizkorri erakustaldia eman zuen (3:56:59).

Hori gutxi balitz, 2007an baita ere, Grindelwald-en (Suitza) egindako mendiko eskiko Europako Kopan azkarrena izan zen. Eta berriro diogu, hori guztia 19 urterekin.

MENDIKO LASTERKETA > VII. ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIA

Ibarreko hogeita bost lagun gertu domekan erronkari aurre egiteko

BESTE FAVORITO BATZUK

Jornetekin batera, probako antolatzaile Alberto Airbek beste hainbat izen aipatu ditu, bidea lokaztuta egongo dela aprobetxatuta aurrean ibiliko direnak: "Adi Ricardo Mejiarekin -2006ko irabazlea-, Helmut Schiessl alemaniarrekin, Fabio Fontanti italiarrekin, edota iaz bigarren izan zen Raul Garcia segoviarrekin. Borroka latza izango dute horiek".

Horrekin batera, merezi du aipatzea hainbat urtetan lasterketatik desagertuta ibili den Juan Martin Tolosa ere irteera puntuan egongo dela, amezketarra izan zen eta Zegama-Aizkorriko lehen irabazlea, 2003an (4:14:23). Eta, Aierbek gogorarazi moduan, atleta ezagunen artean aipatzekoa da

Fabian Ronceroren parte-hartzea -Sasoi batean munduko maratolari onenen artean egon zen, eta egun ere 10.000 metroko distantzian errekorra du-. "Hala ere, Roncero errepideko lasterkaria izan da. Badakit fisikoki oso indar-


tsu dagoela, asko entrenatu dela, eta badakigu korrikalari moduan zelako kalitatea duen. Baina hau ez da bere espezialitatea, jaitsieretan sufritu egiten duela esan didate, ez dela horren azkarra. Domekan seguruenik labainkor egongo da mendia, eta horrek ez dio mesede egingo".

DATUA

3:54:18

ERREKORRA

2005ean Munduko Txapeldun Rob Jebb-ek (Yorkshire, Ingalaterra) denbora hori egin zuen; sekulako marka da. Iaz, Kilian Jornetek ere lau ordu baino gutxiagotan egin zuen proba (3:56:59).



Ibarrekoen zerrenda

41. Mari Fran Alonso (Arrasate)
121. Iban Isasti (Oñati)
130. Asier Lasa (Eskoriatza)
175. Iker Agirrebalzategi (Oñati)
200. Josu Gascon (Arrasate)
210. Bixente Pagaldai (Bergara)
215. Iñaki Bengoa (Leintz Gatz.)
303. Xabier Uribesalgo (Berg.)
321. Aitzol Guridi (Oñati)
324. Joxe Mendiola (Oñati)
328. Jabi Martinez (Eskoriatza)
331. Gotzon Aranguren (Oñati)
332. Xabier Elkoro (Bergara)
334. Aitor Elkoro (Bergara)
344. Joxan Larrea (Oñati)
348. Juanma Martinez (Arras.)
355. Bittor San Jose (Aretxab.)
356. Iban Aranguren (Arrasate)
358. Aitor Larrea (Bergara)
373. Xabier Lijo (Bergara)
380. Mikel Navarro (Arrasate)
394. Aritz Kortabarria (Arras.)
404. Xabier Iñurritegi (Oñati)
406. Jesus Odriozola (Oñati)
434. Asier Sagastizabal (Oñati)

ITURRIA: WWW.ZEGAMA-AIZKORRI.COM

Maratoiaren fitxa tekniko

Distantzia	42.195 metro
Harrizko gailurretan	4,5 km
Lurrezko pistetan	10,5 km
Autoendako pistetan	2 km
Mendiko bideetan	24 km
Asfaltoan	0,5 km
Malda osoa	5.472 metro
Igoera	2.736 metro
Jaitsiera	2.736 metro
Gutxieneko altuera	296 m
Gehienezko altuera	1.551 m
Tarteko helmuga	Aizkorri
Ibilbide kontrolak	14
Jan-edan postuak	14
Gogortasuna	Oso gogorra
Denbora azkarrena:	3:54:18

ITURRIA: WWW.ZEGAMA-AIZKORRI.COM

da (4:03:58). Aurten, baina, Ezpeleta ez da Zegamako irteera puntuan egongo, beste helburu batzuk ditu eta buruan -datorren astean egongo duen Anbotoko Kilometro Bertikalean izango da-. Horrenbestez, ikusteko dago ibarrekoen artean zein ibil daitekeen aurrealdean; hautagaiak badaude. Aipamen berezia ibarreko emakumezko ordezkari bakarrari, Mari Fran Alonsori. Eta baita Bixente Pagaldai beterrano bergararrari ere.

Mondeo gama: kontsumoa 5,8-9,3 l/100km. CO2 emisioak 199-326 g/km.

Ford Mondeo berria | Feel the difference

Mugarri Autoak
Araba Etorbidea, z/g.
ARRASATE-MONDRAGON

Bat nahi dut

Wentworth Miller




Ray Ban

Courtney Cox



Burberry

Eva Longoria



Chloe

Charlize Theron



Gucci

Jude Law



Persol

ITZIAR UGARTE

Kate Beckinsale



Chloe

optika

ARRASATE



Sienna Miller



Ray Ban
Wayfarer

ATLETISMOA > VI. NAZIOARTEKO HERRI LASTERKETA

Jakob Yator eta Sarah Kerubo dira biharko lasterketarako faboritoak

Bihar egingo dute Oñatin nazioarteko herri lasterketa (19:00) eta, urtero moduan, korrikalari afrikarrak izango dira protagonistak; Asier Cuevasi omenaldia egingo diote ondoren

XABIER URTZELAI > BERGARA

Aurten ere nazioarteko herri lasterketak puntako korrikalariak ekarriko ditu Oñatira. Gorpuzti jaiei lotuta, Antxintxiketan Kirol Elkarteak, beste behin, gogotik egin du lan maila goreneko korrikalariak ekartzeko. Egia da, eta antolatzaileek horrela onartzen dute, 2006an Zersenay Tadesse ekarri izanak oso goian utzi zuela lista –harena da lasterketako errekorra, 27:54–, eta aurten atletismoko izarririk egongo ez bada ere, kalitate handiko atleta afrikarrak izango dira irteera puntuan (zapatua, 19:00).

Biharko lasterketari begira Jacob Yator da faborito nagusia –urteko hirugarren marka onena eta Bartzelonako maratoi erdiko irabazlea (1.01.19)–, baina ondoan



AURKEZPENEAN Ezkerretik eskumara Unai Pedregal, Asier Cuevas, Jesus Arregi, Andoni Gartzia eta Asier Osinaga, eguaztenez egindako aurkezpenean.

MIREN ARREGI

izango ditu, besteak beste, Peter Kirui, Sergei Barnaba eta Peter Kamais (iaz bigarren). 10.000 metroko proba egiteko zazpi itzuli egingo dituzte herriko kale esanguratsuenetan: "Zirkuitu azkarrak da, marka onak egiteko modukoa", azaldu zuen Asier Osinagak,

Antxintxiketan kirol elkarteak aurkezpenean.

ASIER CUEVASI OMENALDIA

Lasterkari afrikarrekin batera, azpimarratzekoa da aurten inoiz baino euskaldun gehiagok hartuko dutela esku Oñatiko lasterke-

tan. Hori bai, kantitatearen aurretik kalitatea lehenetsi dute, gehiezin 100 korrikalarik hartuko dute eta esku. Hala, Asier Cuevas eibartarraren parte-hartzea da etxekoan artean azpimarragarria. Lasterketa amaitutakoan, gainera, Antxintxiketan taldeko lagunek omenaldia egingo diote, Espainiako maratoiaren lehenengo sailkatu zen-eta –joan den astean

Otala Zelaiko krosean gozatu ahal izan zuten eibartarraren mailarekin. Emakumezkoen ere kolore beltzarana izango du probak. Sarah Kerubo ahaleginduko da bere nagusitasuna erakusten, eta Pamela Berton eta Tigist Tufa aurre egiteko moduan izango dira. Amaitzeko, Ritxar Fernandezek eta Asier Osinagak ordezkatuko dute Oñati.



GOIENKARIA

Hil edo biziko jardunaldia Mondrarendako eta BTLsrendako

Asteburuan, bigarren erregionaleko Mondrak (26) eta BTLsk (27) urteko lan guztia izango dute jokoan. Igoera faseko azken jardunaldia jokatu dute, eta bi taldeak daude kategoriaz igotzeko borrokan. Ibarreko bi talde horiekin batera Kostkas (26) eta Getaria (25) ere gora igotzeko borrokan daude. Saillkapena estu-estu dago, eta, hori gutxi balitz, BTLsk eta Kostkasek elkarren kontra jokatu dute (bihar, 17:30, Matigoxotegi). Mondrak, berriz, ezer jokoan ez duen Landetxaren zelaira egingo du bidaia (bihar, 17:30, Irun). Onena da bai Mondrak eta baita BTLsk euren esku dutela kategoriaz igotzea; irabazi egin behar dute horretarako.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES

Jarraitzeko prest?

MBA - ENPRESA ZUZENDARITZAN MASTER OFIZIALA

- Zuzendaritza Orokorra Espezialitatea
- Finantza Zuzendaritza Espezialitatea
- Marketing Zuzendaritza Espezialitatea
- Logistika eta Garraioa Espezialitatea (Bidasoako Campusa)
- Kirol Entitateen Kudeaketa eta Zuzendaritza Espezialitatea

> ENPRESA KOOPERATIBEN KUDEAKETAN MASTER OFIZIALA

> BANKA ETA BURTSIA MASTERRA – ON LINE

> ENPRESA PROIEKTUEK ZUZENDARITZAN MASTERRA

Hitzaaldi informatiboa: 2008ko maiatzaren 28a, 18:30 h.

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultatea
Larraña, 16 - 20560 OÑATI

INFORMAZIO GEHIAGO:
www.mondragon.edu/ezf // Tfnoa.: 943-718009
postgrado@eteo.mondragon.edu

www.mondragon.edu



G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> DISKOAK

Belceblues eta Mahaster River taldeek grabatu berri dute > 44



> KORPUSAK

Umorezko bakarrizketa, pailazoak eta rocka Oñatin > 45

> DAVID ARDIONS

Gazte oñatiarrak autoak ditu gustuko, "Jaizkibeleko igoera bat ikusi zuenetik". BMW M3 zaharra da gustukoaren duen autoa eta Sebastian Loeb gidaria > 50



AZKEN LANA Jabier Muguruzak *Konplizeak* azken laneko abestiak eskainiko ditu zapatuko kontzertuan Amaia antzokian.

GOIENKARIA

MUSIKA > JABIER MUGURUZA ARRASATEKO AMAIA ANTZOKIAN

"Kontzertu intimista batean, tristuraz gain, emozio asko ipiniko ditut dantzan"

Angel Unzu gitarran eta Mireia Otzerinjauregi kantari izango ditu lagun Muguruzak

Jendea jakin-minez eta aurreiritzi barik gerturatzea espero du musikariak

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Jabier Muguruzaren musika gustuko dutenek *Konplizeak* azken laneko abestiak bihar entzuteko aukera izango dute zapatuan, Arrasateko Amaia antzokian, 20:00etan. Jabier Muguruzak aho-tsean eta akordeoiarekin jardungo du, eta Angel Unzu gitarra jolea eta Mireia Otzerinjauregi abeslaria izango ditu lagun.

"Zuzenean aurkeztuko ditugu *Konplizeak* diskoko abestiak eta kantu zaharrago batzuk ere sartuko ditugu emanaldian. Azken emanaldietarako dezente kosta zait kantu zahar batzuk kentzea errepertoriotik, penaz kendu nituen batzuk, baina berriak aurkeztu nahi izanez gero ez dago beste modurik", esan digu Jabier Muguruzak.

OBRA INTIMISTA

Diskoa obra moduan defendatzen du Jabier Muguruzak: "Diskoa bere osotasunean obra bat da, egilearen une jakin batean egin dagoelako, musikari zehatzekin, kontzeptu musikal konkretuekin... Obra honek aurrekoaren ildo jarraitzen du. Urte askoan pianoa, bateria eta kontrabaxua izan nituen lagun eta gehiago biluzte aldera gitarra, ahots eta eskusoinuarekin dihardut; janzkera musikal ahalik eta intimistenaren bila".

Hortaz, kontzertu intimoa entzuteko aukera izango da zapatu iluntzean Amaian: "Diskoan aitaren heriotzak badu isla, baina ez nuke esango disko tristea

denik, emozio asko dago dantzan tristeziatz gain. Giro intimista eramango dut Arrasatera".

Ez du gogoan Arrasaten noiz egin zuen azken emanaldia: "Bekatu kapitalen eta literatura-gaineko mahai-inguru batean izan nintzen, Bergaran orain dela hiru edo lau urte egin nuen emanaldia, baina Arrasaten ez naiz gogoratzen", esan digu.

Zuzenekoak gustuko ditu Muguruzak: "Estudioko lanak, grabaketak, badu garrantzia, baina guretzat jendaurrean jardutea luxuzko aukera da. Gainera, kontzertuan hartuta nola dagoen musika panorama, nire interesa da hemen ahalik eta indartsuen sartzea. Arrasaten espero dut jendea hur-

biltzea jakin-minez eta aurreiritzirik gabe. Izan ere, azkenaldian musika estandarra entzuten dihardugu eta kosta egiten da hortik ateratzen dena entzutera jendea joatea. Baina ziur naiz egongo dela publiko bat horretarako gertu".

ANTZERKIRAKO MUSIKA

Aurkezpenekin dabil batera eta bestera baina bien bitartean ateratzen du denbora beste kontu batzuetarako: "Umeendako ipuin bat idazten dihardut, antzerki obra baterako musika prestatzen, non balitekeen zuzenean ere jardutea...", esan digu.

Kontzertura joaten animatuz gero, damurik ez dugula izango esan digu Jabier Muguruzak.



MAHASTER RIVER Taldeko kideak grabazio estudioan. Goiko eskumako argazkian, Mikel Arantzabalekin, eta behekoan Abregorekin eta Arkarazo aita-semeekin. UNAI AZKARATE



EUSKAL BLUESA

Belceblues taldeak ere grabatu du euren lehenengo diskoa izango dena. Hori ere Soraluzekeo Gaztelupeko Hotsak zigiluarekin aterako dute, baina uda osterarte itxoin beharko dugu kalean ikusteko. Diskoaren azala-eta ere prestatzen dabilta: Jon Andoni Urisabel pintore bergararrak egingo die.

Aby Kem taldeko *Xarti*-rekin grabatu dute Bergarako Goiko estazioko lokalean. Eta oso gustura geratu dira emaitzarekin; izan ere, lasai eta nahi beste ordu sartuta grabatu baitute. "Oso perfektio zaleak gara eta estudio batean sartuz gero, orduak eta orduak joango zitzaizkigun" dio taldeko abeslari Asier Elortzak. Bederatzi abesti grabatu dituzte (40 minutu), ohiko blues klasiko, jazz eta rock estilokoak, ahotsari, koruei, garrantzia handia emanez, eta nahasketa eta masterizazio lanak ere amaituta dituzte. Azala eta kopiak egitea besterik ez zaie falta kaleratzeko. Titulua ere badute: *Infer*, Bergarako Infernokua taberna mitikoaren omenez.

ABESTI GUZTIAK EURENAK

Belceblues-ekoek norberen abestiak tartekatzen dituzte beste batzuen moldaketekin, baina diskorako grabatu dituzten bederatzia eurenak dira. Ingelesa eta euskara darabilte. "Lehen ingelesez abesten genuen, bluesari hobeto egokitzen zitzaiolekoan, baina Bergarako Kilometroarako euskarara moldatzen hasi ginen eta oso gustura geratu ginen; hala, orain bietara aritzen gara" dio Elortzak. Edozelan ere, diskoko abesti guztiak ingelesez ere grabatu dituzte, etorkizunean kanporean argitaratu nahiko balituzte.

Azkenaldian taldeko kide bihurtu den haize laukotearen laguntza izan dute diskoan eta igartzen da hark ematen dien indarra eta kemena. Enrike Txurrak ere sartu du pianoa. Zuzenean, "batzuetan hiruko formatuan eta beste batzuetan haize laukotearen laguntzaz" aritzen dira. Ekainaren 8an, Mundumira jaialdian, talde osoa egongo da, 17:00etatik aurrera Bergarako San Martin plazan. Hortaz, diskoa argitaratu bitartean, zuzenekoarekin konformatu beharko dugu.

MUSIKA > MAHASTER RIVER ETA BELCEBLUES

Grabatu berri eta laster kalean, Mahaster River eta Belceblues talde bergararren diskoak

Mahaster Riverrek uztaileko izango du diskoa kalean, eta Belceblue-sek, urrirako

Biek argitaratuko dute Gaztelupeko Hotsak etxearekin, eta biak izango dira Mundumiran

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Antzekotasunak dituzte Belceblues eta Mahaster River taldeek. Biak dira bergararrak; biak hirukote; bluesa dute gustuko eta hori islatzen da egiten duten musikan, taldeok estilistikoki ezberdinak izan arren; Bergarako jailetan agertokia konpartitu zuten eta Mundumiran ere Bergarako plazan izango dira, ekainaren 8an; biek darabilte euskara eta ingelesa abestietan... Biak nabarmendu ziren azkeneko Danbaka musika lehiaketan; Belcebluesekoak, gainera, finalera helduz...

Bada, biek ala biek diskoa grabatu berri dute eta Gaztelupeko Hotsak etxearekin argitaratuko dituzte diskook. Hainbat musikariren laguntza izan dute diskoa grabatzeko. Horietako batzuek bietan hartu dute parte. Horretan ere, eskutik.

'NAHASTERREKAN'

Mahaster Riverrekoek bigarren diskoa izango denari (*Nahasterrekan*) azken ukituak ematen dihar-

dute: nahasketak-eta egiten dabilta Andoaingo Garate estudioetan. Martxel Arkarazo izan dute soinu teknikari, Mikel Arantzabal laguntzaile eta Kaki Arkarazo arduratu da nahasketez.

Hamar abesti jasoko dituzte diskoan. Horietatik zazpi eurek sortuak eta beste hiru beste talde batzuen moldaketak dira; hain justu ere, The Shadows, The Allman Brothers eta Mikel Arantzabal musikari oriotarraren abesti bana. "Gurean ohikoa den moduan, hiru abesti dira instrumentalak eta gainerakoetan ahotsa sartu dugu, ingelesez eta euskaraz kantatzeko", dio Unai Azkaratek, Mahaster Riverreko kantariak.

HAINBAT KOLABORAZIO

Unai Azkaratek jartzen dio ahotsa abestiei, bati izan ezik; horretan, Olaia Ramos bergararrak kantatzen du. Eta Ramos da, hain justu ere, disko berri horretan izan duten kolaboratzaileetako bat. Besteak honako hauek dira: Jesus Alvarez

(saxoak), Enrike Txurruka (teklatuak), Domentx Uzin (biolina) eta Mikel Alvarez (ahotsa). "Erabakigarriak izan dira kolaborazioak; izan ere, gure abestiak asko jantzi dituzte" dio Azkaratek. Hartara, bigarren disko hau lehenengoa baino landuagoa eta osoagoa izango dela uste du Azkaratek; gainera, "azkenaldian, urtean 50 emanaldi eskaini ditugu eta hori ere igartzen da" dio Azkaratek. Ostarantzean, ildo beretik jotzen dute bigarrenean: bluesa, folka, flamen-

koa..., baita jazz ere eta beti ere gitarrak oinarri eta protagonista direla, horixe baita Mahaster Riverren marka. Diskoa ekain amaieran edo uztaile hasieran kalean egotea espero dute.

Bestalde, diskoaren entzunaldia egingo dute Mundumira jaian, Masterreka kalean duten entsegu lokalean, lagunen, Garate estudiokoen eta Gaztelupeko Hotsak zigiluko kideen artean, haien hasierako inpresioak eza gutzeko.



BELCEBLUES Maniega, Vega, Larrañaga, Markiegi, Alvarez eta Aitor Elortza.

JAIK > KORPUSAK OÑATIN

Umirezko bakarrizketak, pailazoak eta rock kontzertua, Korpus jaietako egitarauan

Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior pailazoen lehen saiorako sarrerak agortu direnez, bigarren saio bat egingo dute zapatuan, aurrekoaren ostean

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Oñatiko Korpus jaiak dira aste-buruan eta kultura ekitaldirik ez da faltako jai egitarauan.

Gaur, egubakoitza, maiatzaren 23an, *Improvisados* umirezko bakarrizketak egongo dira Santa Ana antzokian 22:30ean. Paramount Comedy telebista kateko kideek bat-batekotasuna, komedia eta bakarrizketa uzartuko dituzte ikusleekin jolas eginge eta hauek barrez ipini asmoz. Pedro Llamas egunerokotasunarekin kritiko azalduko da imitazioa eta interpretazioa lagun. Carlos Ramosek ikuspegi zorrotza erabiliko du antzezpen lotsagabea eta Dani Lopezek tonu alu eta surrealista barre egingo dio edozein gauzari.



Carlos Ramosek, Pedro Llamasek eta Dani Lopezek jardungo dute.

GOIENKARIA

PAILAZOAK ETA ROCK MUSIKA

Zapatuan txikien txanda izango da arratsaldean. Txirri, Mirri eta Txiribiton junior pailazoek *Irriz irri* ikuskizuna eskainiko

dute. Lehen saioa 17:00etan izango da Santa Anan eta emanaldi horretarako sarrera guztiak agortu direnez, bigarren saio bat antolatuko dute 18:30erako.

Gauean, gaztelekuan Supagroupek jardungo du 22:30ean. New Orleansen sortutako rock taldeak *Fire For Hire* azken laneako abestiak eskainiko ditu.

BERTSOLARITZA > PLAZATIK GAZTETXERA TXAPELKETA

Jokin Labaien finalean izango da

Andere Arriolabengoa aramaioarrak gaur hartuko du parte Plazatik Gaztetxera txapelketan Soraluzeko saioan

du zen Xabat Gallettebeitiarekin batera; besteak beste, ideia originalak bertsoara modu dotorean eraman zituelako.

IRURETAGOENAREKIN LEHIAN

Aurtengo txapelketako berritasuna saioko irabazlea aukeratzeko orduan dago. Epaileen emaitzaz gain, entzuleek bertsolari gogokoena aukeratzeko botoa ematen dute eta entzuleek aukeraturakoa, Hodei Iruretagoiena, eta epaileek hautatua, Jokin Labaien, bat ez zetozenez, elkarren aurka hamarrekotxian jardun behar izan zuten ofizioa. Azken saio horretan Jokin Labaien gailendu eta finalerako txartela lortu zuen.

Debako gaztetxean izan zen bigarren kanporaketa eta Jone Uria algortarrak irabazi zuen.

Bestalde, gaur, maiatzaren 23an, Soraluzeko gaztetxean jokatu da hirugarren kanporaketa. 21:00etan izango da afaria eta, ostean, saioa. Andere Arriolabengoa aramaioarrak saio horretan jardungo du eta bertan jakitera emango dira finalista guztien izenak. Finala maiatzaren 31n jokatu da Mutrikuko gaztetxean.

I.A. > ARRASATE

Bertsolari gazteei plaza berriak eskaintzeko eta gaztetxeen arteko loturak sendotzeko asmoa duen Plazatik Gaztetxera txapelketako aurtengo edizioa abian da. Elgoibarko gaztetxean jokatu zen lehenengo kanporaketa eta Jokin Labaien arrasatearra izan zen irabazlea.

Jon Garate *Katalo* gai emaitza esanetara jardun zuten Jokin Labaienek, Hodei Iruretagoienak, Egoitz Alkorkak, Xabat Gallettebeitiak, Maialen Velardek eta Maddi Gallastegik.

Gaztetxean bertsoarako giro aproposa sortu zen arren *txispa* handirik gabe jardun zuten bertsolariak, tarteka ideia distiratsuak eta erantzun dotoreak bota bazituzten ere. Ofiziotan Jokin Labaien nabarmen-

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ASEGURUAK
GOIENA ASEGURUAK

ARRASATE / Antso Abarka 6
T: 943 79 59 81
F: 943 79 39 18

BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65
F: 943 76 40 37
goiena@goienaaseguruak.com

EKONOMISTAK

ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behe
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

GESTORIAK

EGUREN
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49



Xabier eta **Ines** oñatiarrak maiatzaren 24an ezkonduko dira. Ezkon bidaian Sri Lankara eta Maldiva uharteretara joango dira. Zorionak eta muxu handi bana, etxekoen partetik. Ondo-ondo pasa eguna eta gozatu bidaian!



Jose Ruiz eta **Felisa Ortiz** 1948an, maiatzean, ezkondu ziren. Ikerrek eta seme-alabek zorionak eman gura dizkiete urrezko ezteietan eta esan gura diete ospatuko dutela ganoraz familia guztiarekin.




Felix Aldanondo eta **Paula Ibabe** oñatiarrak maiatzaren 22an ezkondu ziren orain dela 50 urte. Urrezko ezteiak zapatuan ospatuko dituzte, etxekoekin, Arantzazun. Zorionak eta muxu handi bana, etxekoen partetik!



Jesus Mari Lizarralde Gabi-londo eta **Lourdes Elkoro-barrutia Ibabe** oñatiarrak maiatzaren 22an ezkondu ziren orain 25 urte. Zilarrezko ezteiak ospatzen dituzten honetan, semeen eta familiako guztien partetik zorionak eta muxu bana!



Karlos Azkoitia eta **Begoña Altube** senar-emazte oñatiarrek 25 urte bete dituzte ezkondu. Zilarrezko ezteiak ospatzen dituzten honetan, familiako guztien partetik zorionak eta orain arte bezala jarraitu.



Zorionak, **Ainhoa** eta **Gorka!** Zapatuan, maiatzaren 17an ezkondu ziren Bergarako Santa Marina elizan eta Lasa jatetxean izan zen ospakizuna. Zorionik beroenak, familiakoen eta lagun guztien partetik!

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,

deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zator ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
Arrasate Goiena: Otolara lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05. **Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. **Arexabaleta** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramalo** Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22. **Elgeta** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98. **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta astelehenerako GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120 euro.**

Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).



ESKER ONA

Jose Luis Goitia Kortabarria

Oñatin hil zen 2008ko maiatzaren 20an, 58 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2008ko maiatzaren 25an.

ESKER ONA

Angel Etxezarreta Lopez

Josefa Leteren alarguna

Bergaran hil zen 2008ko maiatzaren 19an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko maiatzaren 25an.

hildakoak

- Margarita Iturmendi Busto. Oñatin, maiatzaren 14an.
- Policarpa Guerra Luna. Arrasaten, maiatzaren 15ean. 73 urte.
- Francisca Ruiz de Azua. Eskoriatzan, maiatzaren 15ean. 85 urte.
- Josefa Salbide Arbizu. Arrasaten, maiatzaren 15ean. 69 urte.
- Maria Luisa Aranburu Ibañez. Bergaran, maiatzaren 15ean. 94 urte.
- Maria Oregi Unzueta. Bergaran, maiatzaren 16an. 87 urte.
- Iñaki Bereziartua Odriozola. Arrasaten, maiatzaren 17an. 61 urte.
- Ciriaco Elkorobarrutia Urrien. Bergaran, maiatzaren 17an. 77 urte.
- Gregorio Zugastegi Igartua. Oñatin, maiatzaren 19an. 85 urte.
- Angel Etxezarreta Lopez. Bergaran, maiatzaren 19an. 82 urte.
- Juan Jose Espada Segovia. Arrasaten, maiatzaren 19an. 57 urte.
- M^a. Jesus Kortazar Uribealzo. Eskoriatzan, maiatzaren 19an. 64 urte.
- Jose Luis Goitia Kortabarria. Oñatin, maiatzaren 20an. 58 urte.
- Blanca Legarda Furtado. Oñatin, maiatzaren 20an.

ESKER ONA

Iñaki Bereziartua Odriozola

Arrasaten hil zen 2008ko maiatzaren 17an, 61 urte zituela.

Egun gogor hauetan jasotako laguntza eskertu nahi dizuegu danoi Iñakiren senideok.

Aita, zuk erakutsitako lekzioak jarraituz, aurrera egingo dugu eguneroko bizitzan.

Ondo izan.

Arrasaten, 2008ko maiatzaren 25an.



ESKER ONA

Pedro Larrañaga Odriozola

Bergaran hil zen 2008ko maiatzaren 1ean, 67 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko maiatzaren 19an.



Babeslea:

OROIOLORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak
Amillaga Auzoa, 27. 20570 Bergara
Tel.: 617 442 155 - 943 76 94 73 - Faxa: 943 76 94 76
maribi@oroilore.com



Bidaia ezin hobea
Bidaia ezin hobea

OROIOLORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

1. URTEURRENA

Domingo Lizarralde Lizarralde

Txomin

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 25ean, 11:30etan Antzuolako Errukizko Ama parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.



6. URTEURRENA

Jose Luis Miner Arrieta

Seigarren urteurreneko meza domekan, maiatzaren 25ean, 12:30etan Bergarako San Pedro parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.



bila-bila 7



hitz gezidunak

	Agiri mota	Kafea hartzeko leku	Gipuzkoako herria
	Basa	Hitza	
	* Irudiko hiriburua		
	Egon dadila		
Zikoitza	Dantza mota		Ekintza gaitzesgarria
Komunikazio mota	50		
Potasioa	Jateko gogo		Bokala
Mojagai	Marinelen zerrenda		... denez, dirudienez
Harrapa ezan!		Kontso-nantea	Gora egin
Perpauaren atala		500	Kontso-nantea

GOIENKARIA


soluzioak



Jeroglifikoak: Jokorik ez.

7	3	5	4	6	8	2	1
4	2	3	8	5	6	7	6
6	8	9	1	2	3	4	5
2	4	7	5	6	8	3	9
8	1	9	6	4	7	3	2
9	5	3	6	1	2	4	7
6	7	8	9	3	6	1	2
1	6	1	8	4	7	8	3
3	4	9	2	5	1	7	8

V	A	I	A	G	E	D	A	L	G
O	G	I			T		O	N	
A	A	G	A	R	O	R	A	S	E
Z		S	E	O	S	E	G	O	K
A	I	A	T	I	A	P	A	T	I
A	I	F	I	A	L	E	T	Z	
A	I	F	I	A	L	E	T	Z	
A	I	F	I	A	L	E	T	Z	
A	I	F	I	A	L	E	T	Z	



sudokua

8	6		1	2				
				7				
4		2						5
	8		2	6				5
	9							1
	3		8	5				4
5						9		6
				8				
			9	4		3		7

hieroglifoa

Museoan

jaO
jeO
jiO
jo
juO

hizki salda

Gizonezkoen 6 izen

F	T	B	Z	E	T	N	O	G
J	E	R	L	M	T	D	N	E
L	E	L	E	P	U	O	T	P
Z	E	T	I	O	R	M	T	E
P	J	E	T	X	T	E	B	D
E	G	O	I	T	Z	O	I	R
O	T	I	K	P	I	O	Z	E
U	P	E	O	I	P	U	O	P
T	E	R	J	O	N	T	I	L

bono fotoa



Esan argazkiko hiru mendiren izenak

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta



Super BM emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Tranchetes
9 ale

1,08 €

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Bergarako Nora Blancorendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Koldo Eleizalde (1878-1923).

ZELAIA
ONATI
www.zelaia.net

1970ean sortua

Etxeko Altzariak



- ... ALTZARI KLASIKOAK, MODERNOAK ETA ERRUSTIKOAK
- ... EGONGELAK, LOGELAK, SARRERAK
- ... MAHAI GAINEN LANPARAK,
ZUTIKAKOAK, SABAIBOAK...
- ... ALFONBRAK
- ... KOADROAK, ISPILUAK
- ... DEKORAZIO GAUZAK
ETA OSAGARRIAK.



— . *Norberari egokitutako dekorazio-proiektuak* . —

ERAKUSKETA

Euskadi etorbidea 3 - 943 78 36 99 - Onati

David Ardions > Auto lasterketetan ibiltzen da

"Nahiago dut lasterketa bat zortzi orduko lan jardunaldi bat baino"

Ardionsek autoen mundua du gustuko, "Jaizkibeiko igoera bat ikusi nuenetik". Gurasoek ez zuten nahi bera auto lasterketetan ibil zedin baina, orain, "lasterketa guztietara etortzen dira". Eskorga jasotzaileak egiten ditu Ulma enpresan. Bieta-ko bat aukeratzekotan, "dudarik gabe, lasterketekin gelditzen naiz". Autoen munduaz gain, arrantza ere gustuko du.

JASONE ZABALA > OÑATI

David Ardions 26 urteko oñatiarrak Automozio ikasketak egin zituen, eta Ulman dabil eskorga jasotzaileak egiten. Lasterketa mundua ere gustuko du. Bere aisi denbora Renault Clio Sport autoa puntuan ipintzen pasatzen du. Parrandak gustuko dituen arren, ez zaio inporta horiek alde batera uztea, auto lasterketetan buru belarri aritzeko.

Noiztik, lasterketetako autoekin lehiatzen? Zer dela eta zaletasuna?

Zaletasuna txikitatik izan dut. Betidanik gustatu izan zait autoen mundua. Txikitik, lagun baten aitarekin, Jaizkibeiko igoeretara joaten ginen, eta ordutik dator kit. Horrela, 2003an, Opel Kadett GSI batekin hasi nintzen lasterketetan mundu honetan. Gustatu egiten zitzaidan, eta autoa prestatzen hasi nintzen 2004. urtean igoeraren batean parte hartzeko. Hurrengo urtean, Errioxa aldean jokatzeko rallysprint lasterketetan hasi nintzen parte hartzen. Baina neukan autoa ez zen lehiakorra. 2006an ez nuen inongo lasterketetan parte hartu. Joan zen urtean, baina, Renault Clio sport autoa erosi nuen, eta horrekin nabil.

Familiatik datorkizun zerbait da autoen zaletasun hau?

Gurasoek ez zuten gustuko ni auto lasterketetan has nedin, baina beraiek emandako laguntza-rengatik izan ez balitz, ezin izango nintzakeen mundu honetan hasi. Gaur egun, parte hartzen dudana lasterketetara etortzen dira beraiek ere.

Zaletasun honetaz gain, Ulman ere eskorga muntatzailea ere bazara.

Bai, halaxe da. Erdi mailako Automozio ikasketak amaitu ondoren, Ulmara joan nintzen eskorga jasotzaile praktikak egitera, eta hantxe nabil, gustura.

Zer gustukoago: eskorgak muntatzea edo auto lasterketa bat?

Nahiago dut lasterketa batean parte hartzea, zortzi orduko lan jardunaldi bat baino. Baina, zaletasunarekin aurrera jarraitzeko, eskorgak muntatzea beharrezkoa da, bestela, ez dago lasterketarik!

Halako zaletasunak gastu handia suposatzen du?

Lasterketetan ibiltzeak diru asko suposatzen du, bai, eta daudden laguntzak txikiak dira. Sakrifizio handia suposatzen du.



JOSETXO ARANTZABAL

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Automozioa. **Zaletasunak:** Autoekin zerikusia duen guztien zalea. **Gorrotatzen duzu zeozer?:** Isunak. **Gustuko auto bat:** BMW M3 zaharra. **Gomendatzeko moduko pelikula bat:** *Trainspotting*. **Bidaiatzeko**

leku bat: Kostaldea. Donostia, adibidez, oso gustuko dut. **Zein musika gustatzen zaizu?:** Denetarik: punk-a, *bakalao* musika. **Auto gidari bat:** Sebastian Loeb, Jean Ragnotti. **Amets bat:** W.R.C (World Rally Car) batean ibiltzea.

Etxe bat ordaintzeko dirua lasterketetan gastatzeko da. Baina, gustuko dudanez, aurrera jarraitzen dut, betiere, istripurik gabe bada, hobeto!

Orain arte lortu duzun garai-penik edo posturik garrantzitsuena?

Iaz, Euskadiko Mendiko Txapelketan lehenengoa izan nintzen nire mailan, eta Gipuzkoako Txapelketan, sailkapen orokorreko laugarren postua lortu nuen.

Istripu larririk izan duzu noiz-bait?

Gaur arte, kolpe batzuk baino ez. Orain arte, ez dut lesio larririk izan. Txapa arazoak izan dira gehien bat, eta halakoak gertatu zaizkidanean, Urretxuko Mugitegi tailerrak egin dizkit konponketak. Gainera, laguntza ekonomiko handia ematen dit Mugitegik.

Vivo ezizenaz ere ezagutzen zaituzte herrian. Zergatik?

Gaztetan ipini zidaten ezizena izan zen; ez dakit zergatik, baina ezagutzen nauten guztiek diote ezizen egokia dela niretzako, azkarra naizela baitiote.

Zenbat auto izan dituzu orain arte?

Lasterketetarako erabili ditudan biak eta kalerako erabili ditudanekin batera, hamar baino gehiago; baina, betiere, bigarren eskukoak.

Auto karreraren zaletasuna duten askok futbola gorroto dutela esaten dute. Hala da zure kasuan?

Futbola inoiz ez dut izan gustuko. Gainera, gure lagun koadrilaren leloa beti izan da *futbol gutxiago eta lasterketa gehiago*.

Baduzu beste zaletasunik?

Arrantza dut gustuko, eta mendian txakurrarekin ibiltzea. Honetaz gain, autoarekin zerikusia duen guztia.

Parrandarako astirik gelditzen zaizu?

Parrandaren bat edo beste egiten dut. Baina dena ezin da, eta gauza batzuk alde batera utzi beharra egoten da beste batzuk egin ahal izateko.

Gustatuko litzazuke lasterketetatik bizitzea?

Gustatuko litzaidake, baina zaila ikusten dut. Garrantzitsuena gustatzen zaidana egitea da.

'BERRIA' EGUNKARIA > 5. URTEURRENA

'Berria'-ren urteurrena ospatu dute Kulturaten

'Berria' egunkaria sortzeko egindako lana eskertu eta proiektu berriak aurkeztu ditu Joanmari Larrarte Euskarazko Komunikazio Taldeko presidentek Arrasaten



Datozen erronkez berba egin zuen Juanmari Larrartek.

ARRITXU BARRUSO

NEREA MENOR > ARRASATE

Datorren ekainaren 21ean bost urte beteko dira *Berria* egunkaria sortu zenetik. Hori ospatzeko jai handia egingo dute egun horretan Kursalean. Data hori heldu bitartean, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte eskualderik eskualde.

Debagoieneko ekitaldia Arrasaten ospatu zen joan den martitzenean Kulturaten. Bertara eskualdeko harpidedunak, akziodunak, komunikabideak... agertu ziren. *Berria*-k bost urteotan egin duen ibilbidearen gaineko bideoa eman zuten; ondoren, Joanmari Larrarte Euskarazko Komunikazio Taldeko presiden-

teak *Berria*-ren erronkei buruzko berbaldia egin zuen eta horietan herritarrei partaide izateko dei egin zien. Besteak beste, Hamaika telebista sortzeko proiektuan sakondu eta inpresio zentro bat (*Gara*-koekin batera) sortzeko asmoa dutela esan zuen.

Era berean, nabarmendu zuen, *Berria*-ren sortze prozesuan oso garrantzitsua eta ezin-

bestekoa izan zela herririk herri egindako lana. "Herri batzordeak, kultura ekitaldiak, diru bilketak, akzio salmenta... izan ziren proiektuaren oinarria". Amaitzeko, deialdia ere egin zien herritarrei, hartzailen diren heinean, zabalkundearen ere partaide izan daitezen euren "produktuak ikusiagoak, irakurriagoak eta entzunagoak" izan daitezkeen.

JARDUNALDIAK > MOODLE ESPERIENTZIAK

Moodle esperientzien elkartruckerako bigarren jardunaldiak izango dira Arrasaten

Egun osoan izango diren hitzaldi eta tailerretan Moodleen erabilera eta garapenei buruz eztabaidatuko da

Moodleen erabilera eta garapen posiblei buruz eztabaidatzeko aukera eskaini nahi da jardunaldi horien bitartez. Hain zuzen ere, helburua da "agente ezberdinei, esperientziak elkartrukatze eta Moodleen erabilera eta garapen posiblei buruz eztabaidatzeko aukera eskaintzea", antolatzaileen esanetan.

Horren harira, Moodle esperientzia unibertsitarioak eta ez-unibertsitarioak jorratuko dira bertan, enpresa edo formazio iraunkorreko esperientziak, Moodleentzako erabilgarritan

sun garapen berriak, ezarpena eta zabalkundeak.

EGITARAUA

09:00etan hasiko da jardunaldia eta 19:00etan bukatu. Bitartean, tailerrek eta hitzaldiak egongo dira. Bazkaldu aurretik lau ponentzia egongo dira eta bi gela paralelotan Moodle hezkuntza ez-unibertsitarioan eta Moodle enpresetan emango da. Arratsaldean hezkuntza unibertsitario eta ez-unibertsitarioak jorratuko dira, baita Moodleen garapenak azaldu ere.

N.M. > ARRASATE

Moodle esperientzien elkartruckerako 2. jardunaldiak aurkeztuko dira gaur Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean.

teknologia berriak

> ORDENAGAILUAK

Toshiba enpresa Satellite Pro gamara bueltatu da bost modelo berriekin

Satellite Pro gama berriak 15,4 hazbeteko modelo eta Intel eta AMD prozesagailuak aukeran ematen ditu.

Errendimendu handia nahi dutenentzako zerbaki teklatura barneratuta duen 17 hazbeteko L-350 eramangarria eskaintzen dute, baina mugikortasuna *sakrifikatu* behar da. Modelo guztiek wi-fi-a, barneratutako webcamera eta mikrofonoa dituzte.

AEBetarako ezarritako salneurriak 699 eta 1.149 dolar bitartean daude.



Gamako modelo txikiak 13 hazbeteko pantaila du; handienak, berriz, 17.

> DISKO GOGOR ERAMANGARRIA

Western Digital My Passport Studio, USB eta FireWire konexio interfaze bikoitzarekin

Western Digital My Passport Studio disko gogorak deskatalogatuta dauden LaCie Porschek utzitako hutsunea betetzera datoz.

Konexio interfaze bikoitza, USB eta FireWire 400 eskaintzen dute. 250 edo 320 GBko edukieran eskuragarri daude.

Dagoeneko eskura daitezke ohiko saltokietan. 250 GBko edukiera duenak 169 eurotan eta 320 GBkoa 199 eurotan.



My Passport Studio disko gogorak diseinu erakargarria du.

> SAKELAKOAK

F400 dual slider, teklatura eta bozgorailuak tapa azpian ezkutatuta dituen sakelako musikala

Samsung enpresak F400 sakelakoa iragarri du. Tapa bikoitza duen sakelako musikala da. Beheko tapa zabalduz gero, metalezko zerbaki teklatura agertzen da; goialdekoan, berriz, estereo bozgorailuak daude.

Auto fokatzea eta flasha dituen hiru hazbeteko argazki kamera, FM irratiak, 8 GBko microSD txartelak erabiltzeko aukera eta bluetootha dira modelo berri horren ezaugarri nabarmenatariko batzuk.

Denbora gutxi barru salgai jarriko dute zuri eta beltz koloretan. Salneurria zehazteke dago oraindik.



Sakelakoak audioaren kalitatea hobetzen duten bi teknologia erabiltzen ditu.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko [blog komertzialak](#)

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldek
/denetik

/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuoily
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi

/gorla
/gurea
/guztizeder
/hamaikataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jcracing
/lamaino-etxeberr
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi

/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/optico
/otzeta
/pando
/perpipar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberr

/udalax
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbietza
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot


Eta baita ere:

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatexea.com
www.ehmf.com
www.gelatu.com
www.goikobenta.com
www.haurboxa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net



Goiena.net

Debagoieneko GREMIOAK



AROTZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

ARETXARGI

Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

BELLIDO ELEKTRIZITATEA

Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3. erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

RELE

Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e. arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza
• Hormigoizko estruktura eta urbanizazioak
• Kontrata
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

IGELTSEROAK

DE LA TORRE IGELTSEROTZA

Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

G. IZCUE IRURZUN

Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak...
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

ITURGINTZA

ARETXABAETA ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

EGIA ITURGINTZA

Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

J.J. IRURE ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA

Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharbertzeak
Bolibar dokorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

KONPONKETAK

MULTIARREGLOS
Arrasate
• Konponketak: Altzariak, zoruak, zokaloak, entxufeak...
• Instalazioak; Geletan antenak, telefonoenkableak...
• Jartzeak: Koadroak, lanparak gordiank...
• Ahokadurak: Telebistak, bideoak, musika ekiptoak...
Tel: 699 60 97 08

LEIHOAK

ARGI-PLASTIC
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK

Arrasate
• Lehiu eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

LEIHATEK

Arrasate
• Lehiu eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatze sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

DAVILA MARGOAK

Aretxabaleta
• Margoak orokorrean
San Migel 7, 3d.
Tel.: 646 22 41 09

Maiatzak 23-29

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

Ospakizuna



BERGARA

> Maiatzeko bigarren erromeria egingo dute gaur iluntzean Munibe plazan

Gazte-Alai dantza taldearen emanaldia, 20:30ean, eta Ansorregi eta Larrañagarekin erromeria izango dira; datorren egubakoitzean, Bergarako trikitilarien kalejira eta erromeria, afaria eta Izer, Alabier eta Lutxurdioekin erromeria.

Ospakizuna



OÑATI

> Gorputzi egunean, bisita gidatua egingo dute prozesioaren aurretik

Bisita gidatua 09:45ean hasiko da, turismo bulegotik. Prozesio pertsonaia zelaz jantzen diren ere ikusiko dute. Argibideak: 943 78 34 53. Ospakizunetarako garaiz bukatuko da: 11:00etako meza eta Corpuseko prozesioa.

Kontzertua



ARRASATE

> Jabier Muguruzak 'Konplizeak' diskoa aurkeztuko du zuzeneko baten

Jabier Muguruza bere 9. diskoarekin, *Konplizeak*, etorriko da Amaia antzokira bihar, zapatua, 20:00etan. Sarrerak erosteko aukera dago www.kutxa.net webgunean, 943 00 12 00 telefonoan edo Servikutxa sarean.

urtetik gorako eskoriatzar guztiek parte har dezakete, hiru eta bost lagun arteko taldeetan. Gura adina esaldi aurkez ditzake talde bakoitzak, jaiak ondo pasatzera gonbidatzeko; jaiak, euskara eta gazteak elkartuz; jaiak neurrian ospatzea desiratuz... Esaldiok udaletxeko eta kultura etxeko eskapeetan jarriko dituzte posta kutxetan bota behar dira.

Irudi lehiaketarako lanak entregatzeko mugaeguna maiatzaren 30a da.

ARRASATE

> 10 urte arteko umeendako marrazki lehiaketa, Badabilen

Badabil dendak marrazki lehiaketa deitu du, eta ekainaren 14a arte egongo da zabalik. Bi maila osatu dituzte: 0-6 urtekoak (txikiak) eta 7-10 urtekoak (juniorrak). A4 formatuko orrietan marrazkiak egin eta dendara eraman beharko dira. Honako sariak daude: txikien mailan, arbel bat eta 30 euroko erosketa txartela; eta, juniorrendako, eskuz egindako zurezko zango-maila pare bat eta 50 euroko erosketa txartela.

Argibideak, Badabil arropa dendan (Arrasate pasealekua, 3).

Musika

ELGETA

> The Long Fathers taldeak kontzertua egingo du

The Long Fathers taldeak musika emanaldia egingo du Espaloia antzokian. Bilboko rockzale zaharrak dira.

Bihar, zapatua, 22:30ean.

ARRASATE

> Disko-jartzaileen emanaldiak eta Funk House festa, 3.60an

Hainbat DJk emanaldia egingo dute 3.60 aretoan, Loud Klub emanaldian. Hain zuzen, Kasper & Papol, Koldo (intermusic) eta Haitz (nothing without) DJak ibiliko dira.

Bihar, zapatua, ere dantzarako musika jaialdia egongo da, Funk House festa. Acido C, THC eta DJ Alain (elektronische) DJek girotuko dute gaua.

Gaur, egubakoitza, gauerdian; eta bihar, zapatua, 23:00etan.

BERGARA

> Disko-jartzaileen emanaldiak egingo dira Ziripot tabernan

Gaur, egubakoitza, DJ Papik girotuko du gaua, eta bihar, zapatua, Humana DJk. Emanaldiak 23:00etan hasiko dira.

ARRASATE, BERGARA

> Hainbat ekintza egingo ditu Arrasate Musikalek egunotan

Gitarra kontzertua egingo dute Monterron jauregian, 18:30ean, eta orkestra txikiaren kontzertua Oñatiko nagusien egoitzan, 18:00etan.

Bi emanaldiok gaur, egubakoitza.

BERGARA

> Rock kontzertua egingo da, Txapa Irratiak antolatuta

Borrokan, The Paniks eta Mara taldeek joko dute gazte-txean, Txapa Irratiak antolatutako emanaldian.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean.

Antzerkia

OÑATI

> 'Improvisados' umorezko bakarriketarako egingo dituzte

Paramount-eko Carlos Ramos, Pedro Llamas eta Dani Lopezek *Improvisados* delako umorezko eta inprobisaziozko bakarriketa saioa egingo dute. Sarrera 10 euro kostatuko da.

Gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

OÑATI

> Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorren bi emanaldi

Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior pailazo taldearen *Irriz irri* delako ikuskizunaren bigarren emanaldi bat antolatuko dute, 18:30erako, 17:00etako emanaldirako sarrerak bukatu egin direlako.

Bihar, zapatua, izango dira bi saioak Santa Ana antzokian.

ELGETA

> 'Amama Pantxikaren altxor ezkutua' antzezlan

Amama Pantxikaren altxorra lapurtzen dute, eta Ane Monnak, Oskolak eta Karamarroik, haurrek lagunduta, hura berreskuratzen lagundu beharko diote. Bitartean, Mister Kaskarin gaiztakerietan arituko da.

Umorearen garapenerako baliagarri diren kontzeptu batzuk erabiltzen dira: lagunkidetasuna, nagusiekiko begirunea eta zentzu materialista hutsa ez duten balioak.

Etzi, domeka, Espaloia antzokian, 17:30ean.

ESKORIATZA

> Umeendako ipuin kontaketa emanaldia izango da

Maite Franco ipuin kontalariak 3 urtetik aurrerako umeendako ipuin emanaldia

egingo du datorren egunean. Udalak antolatutako emanaldia da honakoa.

Eguenean, hilak 29, liburutegian, 18:00etan.

Lehiaketak

ESKORIATZA

> Jaietako egitarauaren azal eta esaldia aukeratzeko lehiaketak

San Pedroetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Edozeinek parte har dezake, 15 x 25 cm-ko irudiekin. *2008ko Sanpedruak Eskoriatza* esaldia agertu beharko da irudian. Irabazleak 300 euro jasoko ditu. Lanak udaletxera edo kultura etxera eraman behar dira.

Bestalde, esaldi lehiaketa ere antolatu dute, eta gaur, egubakoitza, hasi eta ekainaren 6a arte egingo dute. 13

Erakusketak

ARRASATE

> Kulturateko margo ikastaroko ikasleen lanak, ikusgai

Kulturateko margo ikastaroko parte-hartzaileek euren lanak erakutsiko dituzte Harresi aretoan. Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute erakusketa.

Bisita ordutegia: ekainaren 1a arte, lane-gunetan, 18:00-20:00, eta zapatu eta jaiagunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

BERGARA

> Bergara Hiria lehiaketako argazkiak, erakusketan

Bergara Hiria argazki lehiaketa jasotako lanekin erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan. Bisitatzeko aukera egongo da ekainaren 1a arte.

Bisita ordutegia: asteleheneetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeketan, 12:00-14:00.

ARRASATE

> Arrasateko Tailaginen Elkarteak erakusketa dauka zabalik

Arte Arrasateko Tailaginen Elkarteak erakusketa dauka Kulturaten, eta bisitatzeko aukera dago domeka arte. Elkarteak 25 urte bete ditu, eta hori ospatzeko antolatu dute honako erakusketa. Elkarteko kideen ibilbidea eta garapena jasotzen ditu.

Bisita ordutegia: domeka arte, 17:30etik 20:30era.

PROPOSAMENA

OÑATI

> Supagroup taldeak 'Fire for hire' diskoa aurkeztuko du

Gaztemaniak egitasmoak antolatuta, New Orleansen oinarritutako Supagroup rock taldearen kontzertua izango da Oñatin. Rock mota askoren eragina jasotzen dute: punka, garagea, sleazy-rock delakoarena, glamarena... *Fire for hire* disko abestiak joko dituzte Oñatiko gaztelekuan.

Kontzerturako sarrerak 5 eurotan erosi ahal izango dira.

Bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean hasita.



Bergararik Ezkiora otoitzean

EZKIOKO AMA BIRGINA Ez du Elizak onartu; nahia da ekainean abade batek ermita bedeinkatzea

BERGARARRAK Hainbat lagun joaten da Ezkiora otoitz egitera; tartean, Bixenta Larrañaga

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Diotenez, Ezkioko Ama Birjina 1931ko ekainaren 30ean ikusi zuten lehenengoz Andres eta Antonia Bereziartu anai-arrebek. Ordutik hona hainbat lagun joan da erromesaldian Ama Birjina ikustera eta otoitz egitera. Tartean, baita ibarrekoak ere. Bergarako Bixenta Larrañaga da horietako bat.

BEREZIARTUA ANAI-ARREBAK
"Bereziartua anai-arrebek etxean esan zutenean ikusitakoa, amak ondo hartu zuen berria, baina aitak ez", dio Larrañagak. Gero, eskolan esan zuten eta orduko andereñoa zenak On Antonio Amondarain abadeari esan zion. Berria azkar zabaldu zen eta urtebetean jende mordoak joan zela Ezkiora gogoratzen du Larrañagak. Gerra aurreko garaiak ziren;

hori dela-eta, ez zuten astirik izan gertatukoak egiaztatzeke, eta oraindik ere Elizak ez ditu onartu. Garai hartako gotzaina On Mateo Muxika zen.

Bixenta Larrañaga jaio zen urtean azaldu zen lehenengoz Ama Birjina: "Ezkiora lehenengo aldiz 1975ean joan nintzen, hain zuzen irailaren 21ean", gogoratzen du Larrañagak. "Iragarrie batek esan zidan joateko; gainera, azken garaietako apostolua izango nintzela esan zidan", gaineratu du.

EZKIOKA, HILEAN BI ALDIZ
Hilean bi aldiz joaten dira Ezkiora, hileko bigarren domekan eta hileko 16. egunean. "Urte haue-tan guztietan ez da argirik falta izan Ezkion. Beti egon izan da norbaitek eramandako kandelaren bat piztuta", azaldu du Larrañagak. Denbora tarte honetan hain-

bat lan egiten dute Ezkion: ermita bat egin dute eta aldrean hiru irudi jarri dituzte: Andre Mari Doloretakoa, Betiereko Laguntzako Andre Maria eta Mikel Goi Aingerua.

LIBURUA ATERA DUTE
Lehenengoz Ama Birjina ikusi zuteneko 77. urteurrena ospatuko da aurten. Horregatik, ekainean abade batek ermita bedeinkatzea da Ezkiora joaten diren lagun nahia. Lagun horiek osatzen duten elkartearen izena Mikel Deunaren Lagunak da.

Logroñotik Bruguera aitak idatzitako liburu bat ekarri dute. Han, orain arteko Ama Birjina-ren istorio guztiak jasotzen dira. Liburua eskuratu gura duenak Ezkio-Itsasoko udaletxera edo Larrañagaren etxera deitu besterik ez du (943 76 14 70).



ERMITA Goian, Larrañaga, liburuarekin; behean, aldrean ikusten da. MIRYAM GALILEA

ahobero

"Takoi barik ezin dut pentsatu, ez naiz arreta jartzeko gauza"

Victoria Beckham >
Spice Girls taldeko kide ohia

Besteok garuna buruan dugun bitartean, badirudi Spice Girls taldeko abeslariak oinetakoetan duela. Ez dakigu esaldi borobil hori esan zuenean takoidun oinetakoak jantzita zituen edo ez. Baina badirudi askorik ez zuela pentsatu. Galdera da ea takoidun oinetakoekin pentsatzeko gai ote den.

iturri onetik

Bergarako Musika Eskolaren 25. urteurrenean, 'Miserableak'

Aurten 25 urte beteko ditu Bergarako Musika Eskolak. Hori dela-eta, *Miserableak* musikala antzeztu gura dute. Oraindik ez dute datarik jarri, baina datorren ikasturtean izango dela esan dute. Orain dela urte batzuk antzeztu zuten *Miserableak*. Orduan, Musika Eskolak, orkestrak eta orfeoia hartu zuten parte. Orain, berriro antzezteko eskatuta, orkestrak baiezkoa eman du.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Biktimak

Ez gara ondo ari, alde bakoitza bere biktimak goresten, besteenak ahaztuta. Uste dut ez dela iritsi orria pasatzeko garaia, oraindik biktima berriak sortzen ari baitira.

Ez dakit *terrorismoaren biktimak* izenpean bakoitzak zer sartzen duen. Ez dut ulertzen nola esan dezakeen Maixabel Lasak Jaurlaritzaren izenean onartezina dela lotzea bakea eta marko juridiko berriaren aldarria. Galeriarako? Kontraesankorra da aldi berean entzutea Kurasaalean Guardia Zibila gu defendatzeko dagoela eta Legebiltzarrean torturatu egiten duela. Nahaspila izugarria ikusten dut gai honetan, despiste galanta; batzuk borondate oneko inozo, besteak arrantzale maltzur. Berradiskidetzea beste zerbait da, sakonagoa. Eta hasten da biolentziak amaitzen direnean.

ai, ene!



Lekuz alda daitekeen aulki eramangarria

Atsedean hartzeko leku aproposak dira aulkiak. Baina, kasu honetan, aulkia aldamenean eraman behar hutsak nekatu egiten du.

www.elblogdecarlos.com



Denentzat...

Maalako Errabala 13
ARRASATE
943 79 92 76

UNITED COLORS
OF BENETTON.